



JAKIN



101

UZTAILA-ABUZTUA 1997



Aldizkari hau ARCEko kidea da
(ARCE: Asociación de Revistas Culturales de España)



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura eta Euskara Departamentua



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

AURKIBIDEA

Z	ENBAKI HONETAN	7
G	AIAK	
		11
	EDORTA ARANA	
	EUSKAL HERRIA TELEBERRI, TELENABARRA	
	ETA TELENORTE ALBISTEGIETAN	
		41
	CESAR MARTINEZ	
	MOBILIZAZIORAKO PRESTASUNA EUSKAL HERRIAN	
H	ISTORIA BIZIA	
		61
	IMANOL MURUA URIA	
	FEDERIKO KRUTWIGI ELKARRIZKETA	
E	GUNEN GURPILEAN	
		109
	ALBERTO BARANDIARAN	
	HARKAITZ CANO	
	IMANOL AGIRRE	
	KIKE AMONARRIZ	
I	IBURUAK	
		131
	UR APALATEGI	
	BARROKOAREN ETA KLASIKOTASUNAREN OREKA	

© JAKIN

JAKINEKO IDAZLANEZ INON
BALIATZERAKOAN AIPA BEDI,
MESEDEZ, ITURRIA

JAKIN

ALDIZKARI IREKIA DA ETA EZ
DATOR NAHITAEZ IDAZLEEN
IRITZIEKIN BAT

ZUZENDARIA

JOAN MARI TORREALDAI

ERREDAKZIO-BATZORDEA

PAULO AGIRREBALTZATEGI - JOXE AZURMENDI - JOSEBA INTXAUSTI

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1. C - 20009 Donostia - Tel. (943) 21 80 92 - Fax 21 82 07

1997ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	5.500 pzta.	—
Ale arrunta	925 pzta.	1.350 pzta.
KANPOAN		
Harpidetza	6.000 pzta. (246 FF)	—
Ale arrunta	1.000 pzta. (41 FF)	1.550 pzta. (64 FF)

SUMMARY

THE BASQUE COUNTRY IN TELEVISION NEWS BULLETINS

EDORTA ARANA

Professor Edorta Arana analyzes the territorial, social and political representation expressed by television news programmes in the Basque Country. The study focuses on those programmes in Spanish broadcast by Spanish regional television centres (Telenorte and Telenavarra) and by Basque Television (Teleberri). One of the main conclusions drawn is that the administrative confines of the autonomous regions dominate over the natural confines of the Basque Country.

A TENDENCY TOWARDS DIRECT ACTION IN THE BASQUE COUNTRY

CESAR MARTINEZ

Demonstrations, rallies and street confrontations have become somewhat commonplace in towns and cities in the Basque Country. According to data held by the Basque Government, 5,539 demonstrations took place in the three provinces of the Autonomous Basque Community in 1995 alone. Cesar Martinez analyzes the reasons behind this tendency towards direct action in the Basque Country.

INTERVIEW WITH FEDERIKO KRUTWIG

IMANOL MURUA URIA

The journalist Imanol Murua Uria interviews the writer Federiko Krutwig in the section *Living History*. Krutwig has been a member of Euskaltzaindia, the Basque language academy, since 1942. In the post-war years he was the prime mover in the renaissance and reshaping of the academy. In the 1960s, he played an important role in the revolutionary nationalist movement headed by ETA, above all due to the influence his book *Vasconia* had on that milieu. Nowadays he is the driving force behind the Hellenist association Jakintza Baitha.

A BALANCE BETWEEN THE BAROQUE AND CLASSICISM

UR APALATEGI

The young writer Ur Apalategi praises the novel *Bekatuaren itzala* (The Shadow of Sin) by Xabier Mendiguren. He states that Mendiguren has in this work achieved

a perfect balance between the Classicism of the subjects he embraces and the Baroque style he uses.

NEWS TODAY

VARIOUS AUTHORS

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we are closely following culture, entertainments, sociolinguistic and literary-re-

lated matters. This section draws on various specialists: Alberto Barandiaran, Imanol Agirre, Kike Amonarriz and Harkaitz Cano.

ZENBAKI HONETAN

Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 101. zenbakia da eta 1997ko laugarrena.

Gaiak sailean datoz zenbaki honetako lehenengo bi artikulak. Gazteleraz jasotzen ditugun telebista albistegietan Euskal Herriari zer tratamendu ematen dioten aztertu du lehenengo lanean Edorta Arana EHUko irakasleak. Ondorioetan dioenez, politika instituzionalizatuaren logika nagusitzen da albistegiotan eta, ondorioz, «Euskal Herriak ez du existentzia propiorik, ezta lurralderik eta are eta gutxiago izaera komun eta bateratzailerik».

Cesar Martinezek Euskal Herriko mobilizaziorako gaitasuna hartu du gaitzat. Urte bakarrean, 1995ean esate baterako, 5.539 manifestazio egin ziren Euskal Autonomi Elkartearen bakarrik, egunean hemezortzi. Mobilizaziorako joera horren zergatiak aztertu ditu artikuluaaren egileak.

Joan den urtean estreinatutako *Historia Bizia* sailaren bigarren atala dator ondoren. Federiko Krutwigi egin dio elkarrizketa luzea Imanol Murua Uriak: 1940ko hamarkadako Bilbo, Resurrección María Azkue buru zuen Euskaltzaindia, *Vasconia* liburua, 1960ko hamarkadako ETA, Hego Euskal Herrira itzultzea urte luzetako erbesteratzearen ondoren... Euskal Herriaren mende erdi honetako historian bere lekua du Federiko Krutwig bizkaitarrak.

Egunen Gurpilean sailean ohiko lau kolaboratzaileen lanak dituzu irakurgai: Alberto Barandiaranek Kulturaz, Harkaitz Canok Literaturaz, Imanol Agirrek Ikuskizunez eta Kike Amonnarrizek Soziolinguistikaz egin dituzte artikulak.

Liburuak sailean, azkenik, Xabier Mendiguren Elizegiren *Bekatuaren Itzala* eleberriri kritika egin dio Ur Apalategi idazle gazteak.

CESAR MARTINEZ
MOBILIZAZIOARAKO PRESTASUNA
EUSKAL HERRIAN

IMANOL MURUA URIA
FEDERIKO KRUTWIGI ELKARRIZKETA

ALBERTO BARANDIARAN
HARKAITZ CANO
IMANOL AGIRRE
KIKE AMONARRIZ
EGUNEN GURPILEAN

UR APALATEGI
BARROKOAREN ETA KLASIKOTASUNAREN OREKA

Z ENBAKI HONETAN
7

G AIAK
11
EDORTA ARANA
EUSKAL HERRIA TELEBERRI, TELENABARRA
ETA TELENORTE ALBISTEGIETAN

41
CESAR MARTINEZ
MOBILIZAZIOARAKO PRESTASUNA EUSKAL HERRIAN

H ISTORIA BIZIA
61
IMANOL MURUA URIA
FEDERIKO KRUTWIGI ELKARRIZKETA

UZTAILA-ABUZTUA 1997

E GUNEN GURPILEAN
109
ALBERTO BARANDIARAN
HARKAITZ CANO
IMANOL AGIRRE
KIKE AMONARRIZ

UZTAILA-ABUZTUA 1997

101 101

I IBURUAK
131
UR APALATEGI
BARROKOAREN ETA KLASIKOTASUNAREN OREKA

UZTAILA-ABUZTUA 1997

101

G AIAK

EDORTA ARANA
EUSKAL HERRIA TELEBERRI, TELENABARRA
ETA TELENORTE ALBISTEGIETAN

CESAR MARTINEZ
MOBILIZAZIOARAKO PRESTASUNA EUSKAL HERRIAN

EUSKAL HERRIA TELEBERRI, TELENAVARRA ETA TELENORTE ALBISTEGIETAN

EDORTA ARANA

Hego Euskal Herri osoan ikus daitezkeen telebista kateen artean bik dituzte propio honako eginiko albistegiak: Televisión Española (TVE) eta Euskal Telebista (ETB). TVEk bi saio pantailaratzen ditu: *Telenorte*, EAEn bakarrik ikusi daitekeena, eta *Telenavarra*, Nafarroarako emititzen dena.

Bestalde, ETBk *Gaur Egun* eskaintzen du lehen kanalean, eta bigarrenean, gaztelerazkoan, *Teleberri*.

Gazteleraz emititzen diren hiru albistegiak hartu, eta bertan eskaintzen den Euskal Herriaren errepresentazioa ikertu gura izan dugu. Izan ere, geure buruaz jakin, uste eta sentitzen dugun gehiena telebistaz jasotako informazioa izaten denez, interesgarria da aztertzea zeintzu diren igortzen zaizkigun mezuak.

Telebista albistegietan egiten diren Euskal Herriaren erre-
sentazioak nolakoak diren arakatu, informazio saioen egitura-
keta, formalki estandar eta neutroaren atzetik, besteak beste,
medioaren jarrera politiko, territorial eta soziala isurtzen dira.

Ondoko lerroetan, albistegietan aurkitzen diren elementu ko-
munen azalpena egin eta gero, *Teleberri*, *Telenavarra* eta *Tele-
norte* notizi saioetan agertzen diren desberdintasunetan zentra-
tuko gara. Bakoitza «gutaz» hitz egiterakoan zertaz ari den,
non kokatzen duen bere burua, zertzuk eta nortzuk aipatzen
dituen «interesgarritasunaren eta gaurkotasunaren» izenean,
nola irudikatzen duen euskal gizartearen antolaketa eta gisa-
koak aipatuko ditugu.

TELEBISTA ALBISTEGIEN GARRANTZIAZ

Maiz esan izan da hedabideek eragin sozial ikaragarria dute-
la gure pentsaera eta jokaeretan. Eragin hori aztertu dutenen
artean asko telebistan fijatu dira nagusiki. Izan ere, hedabide
horren kontsumo maila altua eta duen indarra kontuan hartu-
rik, ez da harrizkoa ikerlarientzat interesgarriena bera izatea.

Ikerlarien esanetan, telebistaren eraginik handiena gure
«ezagutzaren itxuratzean» dago (Wolf, 1994 eta Saperas, 1987).
Eragin kognitiboak deitu izan diren horien artean *errealitatea*
sortzeko duen ahalmena aipatu da (Berger eta Luckmann,
1968; Altheide, 1976; Schlesinger, 1978 eta Tuchman, 1978).

Telebistaren eragina ezagutzeko ez da nahikoa bere progra-
mazioaren edukiak aztertzea, baina «errealitatez» kontsidera-
tuko denaren lehengaietako bat zein den jakiteko balio digu
behintzat.

Esan ohi da, albistegietan emisoreak duen balio eskala eta
ikuspegia isurtzen direla (Glasgow Media Group, 1977, 1980 eta
1982, Prado, 1992). Agian horregatik telebistako programazio
parriletan, informazio saioei garrantzi berezia eman izan zaie.

Geurari helduz, Hego Euskal Herrirako propio emititzen di-
ren albistegiak ikertu ditugu (Arana, 1995), bertako telebista

albistegietan, irudiz zein hitzez adierazten direnak aztertuz. Helburu erraza bezain interesgarria izan dugu: Euskal Herriaz egiten diren errepresentazioak nola osatzen diren eta hiru kanalaren artean dauden desberdintasunak zertan oinarritzen diren aztertzea¹.

Albistegien arteko antzekotasun eta diferentziak jorratzeko orduan, Garcia Nebreda-k eta Perales-ek (1992) proposaturiko *ikerketak estratuak* hartu ditugu kontuan².

Teleberri, *Telenabarra* eta *Telenorte* albistegietan eraikitzen eta pantailaratzen den Euskal Herriaren errepresentazioa zelakoa den jakin asmoz, eduki azterketaren teknikak aplikatu ditugu, beti e reikuspegi koantitatibo eta koalitativoak konbinatuz³.

Maila koantitatiboan, informazio ikoniko zein ahozkoan adierazten dena aztertu dugu. Alegia, hitzezko informazioan ageri diren subjektu, egintza, destinatario eta gaiak jorratu ditugu, besteak beste. Informazio ikonikoan, ikusten denaren aktanteak zeintzuk diren aztertzen da eta beraiek burutzen dituzten egintzak, testuinguruak eta abarrak. Informazio sakon bezain oparo hau guztia estatistikoki landua izan da, aldagaien arteko gurutzaketak eginez.

Ikuspegi koalitibotik, berriz, zortzi parametro nagusi aztertu izan dira, Euskal Herriaren errepresentazioa egiterakoan interesgarriak kontsideratu izan direnak: nortasun indibidual zein kolektiboaren definizioa, lurraldetasunaren zedarriztake-ta, egituraketa sozialaren errepresentazioa, generoen karakterizazioa, kontsentsua eta gatazkaren arteko erlazioa, tradizioa eta modernitatea eta kanaleak bere buruaz egiten duen diskurtsoa, besteak beste.

EUSKAL HERRIA ALA EUSKAL HERRIAK?

Esan dugunez, hiru dira aztertu ditugun albistegiak, eta hiruretan egiten den Euskal Herriaren errepresentazioan elementu komunak asko izan arren, desberdintasunak ere ugari dira.

Teleberri-k, Telenabarra-k eta Telenorte-k dituzten elementu komunetan artean albistegietako gaiak eta pertsonaiak berdintsuak direla ikusten da. Gainera, formalki, informazio saioren egituraketan, ataletan eta tratamendu ikonikoan bezala, teknikoan ere parekotasunak ageri dira nagusiki.

Euskal Herriaz ari direla, hiru albistegietan, botere egituraren inguruan mugitzen diren pertsonaien nagusitasun erabatekoa eta politikagintzak duen lekutzarra ageri dira beti. Bi elementu hauetan oinarrituta eraikitzen den diskurtsoan (ikonikoan zein ahozkoan), Euskal Herriaren errepresentazioa egiten da, lurraldearen definizioa, erlazio sozial, politiko eta ekonomikoen joko arauak, hierarkizazio soziala, nortasun kolektiboa eta abarrak taxutuz.

Botere egituraren⁴ inguruan mugitzen diren pertsonaien neurrigabeko presentziak baldintzatu egiten du erabat albistegiaren edukia eta, nola ez, antolaketa sozialaren errepresentazioa. Alderdi politikoez, gizabanako espezialduetara eta instituzioez duten agerpen mailaz (subjektu, destinatario edo aktante modura) definitu egiten dute oso modu garbian funtzionalitate soziala. Beraiei dagokie agente eragile modura agertzea, positibizatuak kontsideratzen diren egintzak burutzea eta, oro har, sozial-politiko-ekonomikoki oinarritzotzat hartzen diren paperak errepresentatzea. Beraien esku uzten dira komunitate politiko-administratiboaren funtzionamenduaren ardura eta joko arauen definizioa.

Aginte egituraren barruan kokatuak izan diren pertsonaien lanak populazioa du helburu. Gizartea, jende multzo modura definitua, botere eremuetan mugitzen direnengandik datozen egintza eta diskurtsoen destinatario pasiboa da. Aginte egiturak bermatuko dizkio bizi kalitatea eta etorkizuneko ongizatea, beti ere normalitateari eusteko neurriak hartuz.

Aginte egituretan mugitzen diren pertsonaia horiek, bereziki instituzio politiko-administratibo eta alderdi politikoez, daukaten botere eremua eta, ondorioz, lurralde marka oso handia da.

Instituzioen presentziaz gain, beraien zereginetan, destinatarioen bidez eta geoesplizitazioak erabiliz politika administratiboaren esparrua proiektatzen da, beste guztien gainetik. Marka territorial hori naturalizatu egiten da euskal lurraldetasuna eta instituzio politiko-administratibo desberdinena nahastu eta trukagarri bilakatu arte. Azkenean, Euskal Herria bere osotasunean inolako existentzia informatiborik ez edukitzera heltzen da. Albistegietako mezuen arabera euskaldunen artean eman daitekeen erlazio modu bakarra instituzio politiko-administratiboetatik bideratutakoa da.

Egituraketa politiko-administratibo bateratzailerik gabeko kolektibitatea izanik euskaldunena, eta gainera informatiboki lurraldetasun bihurrikoa izanik, zaila du nortasun kolektibo oso definituaz agertzea albistegietan. Eguneroko notizietatik isurtzen den euskal izaeraren elementuak (hizkuntza, kultura, ohiturak, nortasuna...) oso gutxi dira. Eta, erreferentzialtasunak barnean bilatu beharrea kanpoan aurkitzeko joera dago. Informazioen testuingurua, politikoa, administratiboa baina baita soziala ere, Euskal Herritik kanpo bilatzeko joera dago, sarrien Estatu espainiarrean.

Esan dugu instituzio politiko-administratiboak eta alderdi politikoak direla informatiboetan gehien ageri diren pertsonaiak. Baina, gainera, politikagintzak gai modura duen pisua ezin da ahaztu. Politika alderdi politiko eta instituzio desberdinen zereginaz aritzen da. Berak du leku gehien eta bere bitartez garrantzi sozialaren patroia zabaltzen da. Aginte eremuko pertsonaien aktibitateak gizartearen zutabe bezala agertzen dira. Politika da normaltasuna, eta oinarrikoak diren aktibitateen etiketa orokorra. Bere bitartez adierazten da instituzioengandik datozela ziurtasuna eta estabilitatea, ongizatea eta bizi kalitatea bermatuko dela, hitz gutxitan esanda: egungo egitura sozialaren irmotasuna eta iraunkortasuna.

Diskurtso informatiboaren aspektu formalari kasu eginez, telebista albistegi guztietan informazio ikoniko eta ahozkoare n arteko txertaketa modu beretsuan egiten dela ikusten da. Albistegiek antzerako egituraketa eta tratamendu teknikoa izaten dute, eta kazetariei dagokie guztietan diskurtsoaren batera-

tze lana. Kazetariak, beraien lanari ematen zaion legitimazio generikoaz gain, diskurtsiboa erabiltzen dute. Lehenik eta behin, oso handia dute agerpen kopurua baina, gainera, beti zerbitzu publikoan eta *aktualitatearen* agindupean diharduten ideia zabaltzen dute. Azkenean, ikus-entzulegoarekiko konplizitate diskurtsiboa probokatuz, instituzio politiko-instituzionalen eta herritarren arteko lotura egiten dute. Modu honetara, gainera, sintonia berean jartzen dira telebista kanalaren emisio esparrua, eremu informatiboa, politikoa eta soziala.

Euskal Herrirako emititzen diren albistegien elementu oinarrikoenetan (gaiak eta pertsonaiak) eta azalekoenetan (diskurtso ikoniko eta ahozkoari ematen zaion formatoak) antzekotasunak nagusi direla ikusi dugunez, aipa ditzagun orain kanalaren arteko desberdintasunak. Izan ere, antzekotasunen ondotik, telebista kanal bakoitzak bere modura eraikitzen baitu Euskal Herriaren irudia, testuingurua eta bere erara azaltzen du sistema axiologiko propioa. Orain beraz, desberdintasun hauetan zentratuko gara, Euskal Herriaz egiten diren errepresentazioetan zelako berezitasunak dituzten *Teleberri*-k, *Telenabarra*-k eta *Telenorte*-k.

TELEBERRI: «LA SOCIEDAD VASCA (...) ABIERTA, MODERNA Y URBANA»

Euskal Telebistaren bigarren kanalak eguerdiko pantailarazten duen *Teleberri* albistegian⁵ egiten den Euskal Herriaren errepresentazioan, politikoki eta administratiboki egituratua eta sozialki koherentea den kolektibitatea ageri da. Errepresentazio horretan, erakunde politiko-administratiboek, kopuruz eta berezkoa duten lurraldetasunaren markaz, erakusten dute argi zein den erreferentziala kontsideratzen den herrialdea: Euskal Autonomi Erkidegoa, eta bigarren maila batean Euskal Herri penintsularra. Euskal herritarren ikus-entzunezko errepresentazioa egiterakoan, elementu bateratzaileak eta izaera kolektiboa aipatzen dira, normaltasunean bizi den giza taldea erakutsiz. Telebidezko diskurtsoaren osakera egiterakoan, ka-

zetariei dagokie erakunde politiko-administratiboen eta herritarren arteko lotura lan bateratzailea egitea.

EGITURAKETA POLITIKOAREN GARRANTZIA

Teleberri-k⁶ eskaintzen duen Euskal Herriaren errepresentazio informatiboan, handia da alderdi politiko eta instituzio politiko-administratiboaren presentzia. Erakunde politiko-administratibo horiek antolaketa sozialaren giltzarri gisa agertzen dira. Beraiei buruzko notizien bidez gainera adierazten da informatiboki ETB-2 non kokatzen den, nongoak eta nortzuk dituen interlokutore eta zeintzuk eta zertaz diren deskribatzen diren egintza moetak, besteak beste. Erakunde horien presentzia neurrigabeak, hein handi batean, telebista kanalaren ikuspegi taxutzen du.

ETB-2ren albistegietan, artikulazio sozial sendoa duen kolektibitatea erakusten da. Bestalde, hitzez aurkezten diren pertsonaietatik nagusi dira alderdi politikoak eta instituzio politiko-administratiboetakoak. Zehatzagoak izateko, alderdi politikoetako ordezkariak (% 27,7) —gehienak Hego Euskal Herrikoak gainera— eta Euskal Autonomia Erkidegoko instituzio politiko-administratiboetakoak (% 16,2) dira.

1. taula: ETB-2ren ahozko informazioaren subjektuen tipologia sozio-politiko

<i>Alderdi politikoak eta sindikatuak</i>	% 29,8
<i>Gizabanako espezialduak</i> (Enpresariak, kirolariak, adituak, kazetariak...)	% 28,7
<i>Instituzio politiko-administratiboak</i>	% 20,6
- EAEkoak (Jaurlaritza, diputazioak...)	% 16,2
- NFKkoak (Gobernua, Legebiltzarra, udalak...)	% 1,9
- Espainiakoak	% 2,5
<i>Gizartea</i> (Biztanleria oro har, talde ez-antolatuak, langileria...)	% 16,8
<i>Bestelakoak</i>	% 4,1

Kopuruz handia izanik ere, instituzio eta alderdi politikoen presentzia are eta markatuagoa da erakunde horiek albistegietan aurkituko duten tratamendu koalitatiboa. *Teleberri*-n bi

zutabetan oinarritzen da instituzio politiko-administratiboei ematen zaien legitimazio diskurtsiboa: gehiengoaren eta demokraziaren babesleak izatea batetik eta herritarren zerbitzuan harturiko konpromezua edukitzea, bestetik.

Argudio horiek instituzioen eguneroko lan dinamika eta ekitaldien jarraipenean ezezik, «demokrazioaren arauetan» mugitzen direnak goraipatuz eta «besteak» arbuiatuz erabiltzen da, oposizioz. Ikus ondoko bi aipuetan ekitaldi politiko berean pantailaratutako kontraktotasun diskurtsiboaren adibideak:

En la sesión de hoy las cámaras y juntas han (...) dejado claro que estas instituciones son el máximo exponente de la voluntad popular y gozan de libertad democrática para tomar acuerdos y ejecutarlos.

...metodos antidemocráticos con que la organización terrorista ETA y quienes la apoyan pretenden coaccionar la voluntad popular. (81. IUK)

Instituzioen zeregina, gizarte osoaren ongizatearen bermatzaile eta dinamizatzaile izatea da, informazioaren arabera. Gainera beraiei dagokie, bestelako erakunde politiko, sozial zein ekonomikoak zuzpertzeta eta dinamizatzea.

Recuperar la ría de Bilbao, crear un plan audaz en política de vivienda, luchar contra el narcotráfico, el paro, las bolsas de pobreza y superar el abandono de los barrios bilbaínos. (109. IUK)

La empresa Mercedes Benz trabaja sobre un proyecto de inversión para la fábrica de Vitoria que cuenta con el apoyo del Departamento de Industria del Gobierno Vasco. La participación del Departamento de Industria es (...) el propiciar un adecuado marco especial de apoyo en todos los distintos campos... (2. IUK)

Instituzio politiko-administratiboek horrenbesteko lekua daukatenez, gizarte soila bigarren planoan agertzen da, beti ere instituzio horien destinatario gisa. Instituzio politiko-administratiboen zereginaren jasotzailea da gizartea, berari zuzenduak dira bere ekinak eta kezakak. Subjektuen artean halako presentzia edukita, erraz ondoriozta daitekeenez, tematikoki ere leku handia du kanal honen albistegietan.

**2. taula: ETB-2ren ahozko informazioaren (I.U.^a)
esparru tematikoak**

<i>Politika</i>		% 33,3
- HEHko alderdi politikoa	% 14	
- EAeko instituzio orokorrak	% 8,3	
- Ekintza biolentoak	% 1,7	
- ETaren errebindikazioak	% 1,3	
- Aktibitate politikoak	% 1,1	
- .../...		
- Bestelakoak	% 5,7	
<i>Gizartea eta teknologia</i>		% 31,1
<i>Ekonomia</i>		% 16,6
<i>Kirolak</i>		% 13,9
<i>Kultura</i>		% 4,2
<i>Eguraldia eta trafikoa</i>		% 0,8
<i>Bestelakoak</i>		% 0,1

Politikagintzak duen pisutzarra erakusten duen beste elementu bat ere bada, «ikutu politikoa» izendatu duguna. Alegia, bestelako esparru tematikoan sailkatutako albisteak izan arren, politikarnelementuren bat edukitzea. Esate baterako, ekonomiar buruzko albisteetan politika munduko pertsonaiaren bat agertzen denean, «ikutua» dagoela kontsideratzen dugu. ETBn, % 38,4 da ikutu politikoa erakusten duten argumentu informatiboen kopurua.

Politikagintzak, instituzio eta alderdi politikoen presentziaz egituraketa soziala markatu duen bezala, tematikoki eta bere inguruan artikulatuko dituen pertsonaien bidez, moldatu egingen du albistegiaren edukia eta, baita ere, bertatik proiektatzen diren hainbat oinarritzko elementu. Horien artean lurraldetasuna da garrantzitsuenetarikoa Euskal Herriaren errepresentazio informatiboa aztertzerakoan.

LURRALDETSUN POLITIKO-INSTITUZIONALA ETA BESTEA

Teleberri-n aipatzen diren instituzioek, eta neurri txikiagoan bestelako agente politikoek, albistegiari txertatzen dioten lurraldearen adiera EAeko da. Hego Euskal Herriak autonomi estatutuen arabera dituen bi antolaketa politiko-administrati-

boek ETB-2n proiektzio eta legitimazio ikus-entzunezkoa lortzen badute ere, EAE da, dudarik gabe, erreferentzia nagusia.

Oro har, eta koantitatiboki askozaz ere handiagoa izan arren EAEren marka geografikoa duten instituzio eta agenteen presentzia, bestelako gertakizun, esparru tematiko zein subjektuen presentziaz zirriborratzen diren eremu politiko-sozial zabala-goak ere badira.

Ikus dezagun ondoren, ETB-2ren albistegietan aipatuak izaten diren pertsonaiak, deskribatzen diren notiziak, albisteak azaltzeko erabiltzen diren erreferentziak eta, azkenik, horiek guztiak gorpuzteko azaleratzen diren esplizitazioak zeintzuk eta zelakoak diren.

Informazio berbalean agertzen diren subjektuen jatorriari dagokionez, % 51,6 EAEkoa da⁹, eta % 4a besterik ez NFKkoa. Lehenen artean daude, nola ez, EAEko instituzio politiko-administratiboetako ordezkariak.

Beraien zeregina Hego Euskal Herri osora zabaltzen duten % 26,6ko horien baitan aurki daitezke hainbat alderdi politiko eta erakunde sozial, kultural zein deportibo.

Teleberri albistegira heltzen diren subjektuen artean Euskal Herri osoko ñabardura geopolitikoa dutenen presentzia hutsaren hurrengoa da: (% 0,1).

Albistegietan gertakizunak deskribatzen direnean, notizia non gertatu den aztertu dugu. Modu horretan jakin daiteke kanala non kokatzen den eta norainoko proiektzio informatiboa duen.

Alderdi politikoen ekitaldiak, legebiltzarraren bilerak edota kirol probak direlarik ere, neurri handi batean *Teleberri* EAera mugatzen da. ETB-2n notiziatzen diren gertakizunak % 33,3an EAEkoak dira, bere osotasunean zein lurralde historikoetan gertaturikoak direlarik. Nafarroan kokaturikoena aldiz % 3,9a da. Gertakizunen kokaleku gisa Hego Euskal Herri osoak hartzen dituenen kopurua % 26,5 da. Tematikoki azken hauen artean alderdi politikoen zereginak, kirolak, mugimendu sozialen ekitaldiak edota kulturaz lotu daitezkeenak agertzen dira.

ETB-2ren albistegietan proiektatzen den lurraldearen hainbat elementu koantitatibo aztertu ondoren, eskaintzen duten informazioaren itxuraketa geopolitikoa jorratuko dugu, ikuspegi koalitatibotik. Hau da, *Teleberri*-k informatiboki non kokatzen duen bere burua, zeintzuk izango diren eskaintako esplizitazio geopolitikoak eta nongoak dituen elementu erreferentzialak.

«Hauek dira aktualitateak ekarri dizkigunak» dioenean, Estatuko zein nazioarteko berrietara ere irekita egoteak, kanalaren ikuspegi propio eta osoa daukala erakusten du ETB-2k. Edoze-lan ere, lehen esan bezala, Euskal Telebistaren bigarren kanalak bere albistegietan EAE du abiapuntua. Deskribatzen diren notizien gaiak, pertsonaiak eta kontatzen diren gertakizunak bertakoak dira gehienetan. Baina, EAEko territorialtasuna nagusi bada ere, Hego Euskal Herri osokoaren erreferentzia ez da ukatua izaten. Bi esparru, bi barruti, lehena esangura administratiboagoa duena eta bigarrena politikoagoa ez dira kontrajarri gisa agertzen, «vasco» kolektibitate trans-autonomikoa irudikatzen delako. Bi lurralde autonomikoak ondo definitu eta kontraesankor ager ez daitezten, ETBren informatiboetan eskrupulo handiz erabiltzen dira esamolde autonomistak: «*las comunidades autónoma vasca y navarra*», «*las dos comunidades*», «*el presidente navarro*» eta «*el lehendakari José Antonio Ardanza*», besteak beste.

Aldi berean, esplizitazio geokomunitario asko modu polisemiko bezain nahasgarrian erabiltzen dira: «*Pais Vasco*» Hego Euskal Herria zein EAERI buruz bakarrik ari denean, «*vascos*» lau probintzietako biztanleei buruz ari delarik, etab. Bi joera hauen arabera, instituzio politiko-administratiboen eraketa autonomikoa isladatzen da, bidenabar Euskal Herriaren existentzia soziologikoki eta politikoki zirriborratuz: «*vasco*» trans-autonomikoa proposatuz.

...salvo algunas nieblas, nuestros cielos estaban prácticamente despejados. (4. IUK)

En el derby vasco entre Osasuna y Athletic se impusieron, con todo merecimiento los navarros. (84. IUK)

Euskal lurraldearen proiektzio desberdinak, bestalde, agerian gelditzen dira eguraldiari buruzko informazioetan. Euskal Herri osoari buruz ari omen den sail informatibo horretan zazpi probintziak agerian dituen infografikoa erabiltzen da, baina gero EAEn zentratzen da ETB-2ko albistegia¹⁰. Aipaturiko informazioak ondo erakusten du zazpi probintzietako maparen erabilerara sinboliko hutsa dela, zeren eta, informatiboki notizia zabaldu behar denean Euskal Autonomi Erkidegora mugatzen baita.

Estatu espainiarra bera, informazio askoren iturburu dena, bestalde, Euskal Herriarekin zerikusia dutenetan metamorfosi semantiko baten bidez agertzen da. Esate baterako, «España» hitza ez da erabiltzen, gertakizunaren izen edo marka ez den kasuetan baino.

Estos atletas a los que vamos a ver seguidamente, participan en el II. Campeonato de España de Boccia para disminuidos físicos que se celebra desde hoy hasta el domingo.

(...)a partir de hoy y hasta el domingo tomarán parte en la competición los 50 participantes de todo el Estado que se han clasificado para esta final... (14. IUK)

Baina ez da izenaldaketa hutsa. Izan ere, Estatu espainiarraren erreferentzialtasunak desagertzeko joera izaten baitu *Teleberrin*. Horretarako erreferentzia eta konparazioak Estatutik kanpokoak bilatzen dira.

Las bolsas de París y Frankfurt han subido hoy un 1,5 % y el índice Financial Times del mercado de valores londinense ha ganado 19 puntos. La Bolsa de Bilbao ha registrado una subida de 3,37 puntos al cierre de la sesión matinal. (51. IUK)

Lo que les vamos a contar ahora habla de cómo somos los vascos, cada vez más parecidos al resto de los europeos. (9. IUK)

HERRITARREN FUNTZIO SOZIALA

Albistegietan aipatuak izaten diren pertsonaien tipologia sozio-politikoak (ikus 1. taula) aipatzerakoan esan dugun legez, politikagintzara dedikatzen direnen presentzia oso handia da.

Instituzioak eta alderdi politikoen parte hartze ikaragarriari gizabanako espezialduak¹¹ gehitu ezker, sozialki aktiboak izateko legitimatuak izan direnen zerrenda itxia osatzen da. Agerpen maila horren bidez gainera gizartearen botere egituraketa ilustratu eta gorpuzten da. Instituzioak, gehiengoaren errepresentazioaz jantzirik, biztanleriaren alde eta bere zerbitzuan lanean ari direla aipatu egiten da. Instituzioek bateratu egiten dute populazioa, hiritargoa osotu eta dinamizatu. Instituzioen zereginen artean ongizatea bermatzea eta, historian legitimatuz, etorkizunari begira jartzea aipatzen dira.

Sozio-politikoki egituraturiko tipologia horietatik kanpo ageri da gizarte soila. Soziologikoki antolaketa maila bazuaz aurkeztzen da gizarte albistegietan.

Gainera horrela mailakaturiko kolektibitatean, herritarrak agente papera baino gehiagotan destinatario izateko joeraz agertuko dira *Teleberri*-n. Tipologia sozio-politiko honek subjektuen artean % 16,8ko lekua du, aldiz destinatarioen artean % 26,2koa. Instituzio politikoengandik jasotako mezu eta egintzak dira gizarte destinatario modura sarriago definitzen dutenak.

IZAERA KOMUNA AZPIMARRATUZ

Albistegietan, Hego Euskal Herriko instituzionalizazio eredu bikoitza isladatzen bada ere, kolektibitatearen nortasun soziologikoa marrazterakoan, horren guztiaren gainetik bezala aurkeztzen da. Euskalduntasuna definitzerakoan herri bereko partaide izatearnerudia proiektatzen da ETBn, normalitate soziala, homogenotasuna eta bateratzen dituzten osagarriak aipatuz.

Según un estudio elaborado en las Comunidades vasca y navarra, nuestra sociedad es cada vez más moderna, más abierta y más urbana. Por cierto, que a pesar de lo que dicen los chistes de guipuzcoanos y bilbaínos, según este estudio, no hay grandes diferencias entre navarros, alaveses, vizcaínos y guipuzcoanos. (9. IUK)

Kanpoko erreferentziak ere erabili izan arren, gutasuna definitzerakoan barrura begiratzeko joera nabarmentzen da, marko orokor gisa.

Euskalduntasunaren elementu definitzaileen artean, euskara eta euskal kulturaren zeharreko aipamen sinbolikoren bat egiten bada ere, modernitatea eta «aurrera begira» egotearen ideia barreiatzen da nagusiki. Horretarako, klase ertaina, herritar estandarren modeloa zabaltzen da albistegietan: gizonetzkoa, zailtzarrik gabe, hirietan bizi dena eta instituzioetan bere beharren berma aurkitzen duena.

Gainera, gutasunaren eraikuntza lanetan, aipatzen ari garen telebista kanalaren existentzia beraren garrantzia ezin da ahaztu. Estrukturalki, Hego Euskal Herri osora informatibo propioak eskaintzen dituen kate bakarra izateaz gain, hitzez zein ikonikoki diskurtso enbolbentea du Euskal Telebistak.

ETB-2ren albistegietan kazetariak presentzia oso markatua dute, beraiei dagokielarik ikus-entzulearekin identifikazio moduak landuta gero, nortasun kolektiboaren oinarriak jarri eta beraien publizazioa bultzatzea. Nortasun kolektibo eta bateratzailea dago presente ETBren diskurtso informatiboan. Kazetaria, lehen aipatu dugun klase ertain, bateratu eta integratuaren irudiaz identifikatzen da, igorle eta hartzailearen arteko bidea borobilduz.

TELENABARRA: «LA INSTITUCIONALIZACION... DE UNA PEQUEÑA COMUNIDAD AUTONOMA»

Televisión Españolak Nafarroako Foru Komunitaterako emititzen duen *Telenabarra*¹² albistegiak aginte egituraren barruan gorengo postuak (instituzioak, alderdi politikoak eta gizabanako espezialduak) dituztenen zentralitatea erakusten du. Gainera, aipaturiko nagusitasun hori erradiala dela esan dezakegu. Esparru tematiko gehienetan presente dago, harreman sozial guztiak artikulatzen ditu eta berezkoa duen lurraldetasunaren marka proiektatzen du. Aginte egituraren inguruan antolatutako komunitate bezala ageri da Nafarroa TVENAn. Instituzioek taxutuko dute bakoitzaren rol soziala, hierarkia eta funtzioak definituz, modu horretara koherentzia eta, instituzioen itxuran, izaera kolektiboa eraikiz.

AGINTE EGITURAREN PISU TEMATIKO-ARGUMENTALA

TVENari aplikaturiko eduki azterketaren bide desberdinek (ahozko eta ikonikoak; koantitatibo eta koalitativoak) botere antolaketaren presentzia azpimarratua erakusten digute. Hitzez zein irudiz, agintearen inguruan aritzen diren pertsonaiak eta tematikoki duten agerpen mailaz Euskal Herriaren errepresentazio informatiboa baldintzaturik dago.

Oro har, esan daiteke Nafarroa antolaketa sozio-politiko sendoz hornitua ageri dela albistegietan. «Aktualitateari» buruz aritzen direnean aipatuak izaten diren agenteen pertsonalizazio maila eta tipologia ikusita, ondo egituraturiko herrialdea sumatzen da.

Esate baterako, subjektuen artean % 54,9ra heltzen da talde formal eta instituzioetako kopurua.

Ahozko informazioaren subjektuen % 84,3 eta ikonikoaren aktanteen % 79,9¹³ tipologia sozio-politiko hirukoitz honetan kokatzen dira. Albistegietan, rol eragileenetan egoteak eskaintzen duen «agerpen sozialaz» gain, legitimazio diskurtsiboa eta ikonikoa ere ildo beretik doaz: aginte egiturak, demokratikoki herria ordezkatu, honen interesak defenditu, eta egungo ongizatearen gizartea bermatzen ditu. Zeregin horretan instituzio eta erakunde politiko eta administratiboak bezala enpresari eta teknikariak aritzen dira, sintonia berean daudelarik komunikabideak ere.

5. taula: TVENaren ahozko informazioaren subjektuen tipologia sozio-politiko

<i>Gizabanako espezialduak</i>		% 32,8
<i>Alderdi politikoak eta sindikatuak</i>		% 30,1
<i>Instituzio politiko-administratiboak</i>		% 21,4
- NFKkoak (Lehendakaritza, udalak...)	% 14,9	
- EAEkoak (Jaurларitza, Legebiltzarra...)	% 2,8	
- Espainiakoak	% 3,7	
<i>Gizartea</i> (Biztanleria oro har, talde ez-antolatuak, langileria...)		% 12,2
<i>Bestelakoak</i>		% 3,5

Instituzio politiko-administratiboaren, alegia, administrazio zentral zein autonomikoaren agerpen informatiboa, handia da *Telenabarra*-n. Berari dagokio bi aginte esparru erreferentzialak markatzea: Nafarroako Foru Komunitatearena eta Estatu espainiarrarena. Bere esku uzten da gizartea eta politika gaietan aritzea, eta destinatario gisa, bere buruaz gain, gizarte soila definitzea. Positibotasunaren ikutua bete-betean sumatzen zaio.

Hoy ha quedado disuelto oficialmente el Parlamento. Los portavoces destacan el diálogo, la cordialidad y el esfuerzo en materia de infraestructura como características de la segunda legislatura tras la aprobación del mejoramiento. (124. IUK)

Alderdi politikoaren presentzia ikaragarria da *Telenabarra*-n, hitzezko informazioaren subjektuetatik % 30,1 alderdi politiko edo sindikatuetakoko ordezkariak direlarik. Alderdien zeregin tematikoa politika eta gizarteaz positiboki aritzea den bezala, sindikatuena negatibotasunaren geruzaz estalirik ageri da. Maltza sozio-politiko honetan konfliktibitateak ezagutzen du, aipatu dugun sindikatuen eraginez gehienbat, bestelakoetan lortuko ez duen maila.

Aginte egituraren presentzia informatiboa areagotuz, gizabanako espezialduen agerpena subjektu (% 32,8) eta destinatarioen (% 24,8) artean oso handia da *Telenabarra*-n. Sozio-politikoki, agintearen inguruan edota nolabaiteko preponderantzia erakusten duten hauen artean kirolariak, enpresariak, komunikabideetako profesionalak edota adituak aurki daitezke. Aginte egituraren barruan kokatu ditugun beste tipologia sozio-politikoekin gertatzen den bezala, hauen agerpen diskurtsiboan talde formal eta gizabanakoaren (gizonezkoena ia eskusiboki) pertsonalizazio maila ezagutzen dute. Hauen zereginetan konponente kontsentsuala askoz ere indartsuago da. Gizabanako espezialdu hauen esparru tematikoak kirola eta gizartea dira nagusiki, apalago datozelarik politika eta ekonomia. Gizabanako espezialduen funtzionalitate soziala, destinatario gisa nor duten ikusiz konproba daitekeena, endogamikoa da nagusiki, nahiz eta bigarren plano batean gizartea bera egon.

Una sociedad avanzada, abierta y democrática exige también transparencia en sus relaciones comerciales y nosotros (FENSA) queremos, día a día, difundir información y formación a nuestros clientes. (7. IUK)

Instituzionalizaturiko aginte forma hauek, gainera, egunero-ko bizimodua ziurtatzeaz gain, iraganean erroturik etorkizunari begira daude. Historia periodizatu eta orainaldia arrazoitu egingen dute.

...don Juan Carlos recibió la primera medalla de oro de la cámara, acuñada de acuerdo con un troquel de las cortes del Viejo Reino (...).

Son imágenes para la historia, las elecciones del diez de junio de 1987 alumbraron la segunda legislatura, tras el mejoramiento y tercera desde la instauración de la democracia. (124. IUK)

*Telenabarra*n proiektatzen den instituzionalizazio politiko-administratiboa, Estatu espainiarraren autonomien eraketaz koherentea izateaz gain, argumentalki haren sostengarri gisa azaltzen da. Instituzionalizazio honek dituen marka territorialak dira TVENAn erabili eta proiektatzen direnak.

Hacemos el balance de cuatro años intensos de arduo trabajo en una institución que representa a todos los habitantes de la Comunidad Foral, el Parlamento de Navarra.

(...) la institucionalización de la democracia navarra en el marco constitucional de España es el espejo transparente de la opinión pública y el instrumento que protege el autogobierno de una pequeña comunidad autónoma. (124. IUK)

NAFAR LURRALDE TASUNA ERREFERENTE NAGUSIA

Instituzio politiko-administratiboak notizia sortzaile oparoak direnez berezkoa duten influentzia gune administratiboaz markatzen dute albistegi osoa. Modu honetara, *Telenabarra*-ko notizi saioetan Nafarroa da, zalantzarik gabe, definitzen den esparru territorial eta, ondorioz, sozial eta kolektiboa. Nafartasunaren definizioan TVENA bezalako tresna informatiboak bere garrantzia du.

Honetaz baliatuz, medio honen zeregin profesionalean, hau da, asteguneroko albistegietan, markatzen dira NFKaren barruan azpimarratu gura diren subjektu sozialak. Hauen artean, esan bezala, instituzio politiko-administratiboek betetzen dute parterik handiena. Instituzio autonomikoek Estatu mailakoekin duten erlazioan definitzen dira hierarkia eta joko arauak. Konstituzioa eta Amejoramentu Foralaren legeak markatzen dute lege markoa, eta hauen baitan mugitzen dira nafar instituzioak eta, modu berean, hiritargoa. Estatu zentrala eta NFK dira zirriborratzen diren instituzio eragile bakarrak, Euskal Herriaren izaera eta presentzia politiko-sozialak inolako pisurik ez duelarik.

TVENAREN albistegietan, ageri diren subjektu eta destinatarioen jatorri geopolitikoan nafartasunak berebiziko garrantzia du. Subjektu eta destinatario hauen bidez, informatiboak zer eta nortzuek ari den garbi azaltzen du.

Subjektu gisa ageri direnetatik % 62,8 NFK-koa da. Ondoren datoz jatorri geopolitiko Estatu espainiarrekoa dutenak: % 15,7. Hego Euskal Herrikoak bezala identifikatu daitezkeen kopurua ez da % 9,8tik pasatzen. Informazioan argudiatzen denaren destinatarioen artean ere % 55,3a Nafarroarekin erlazionatzen da.

Nafarzentrikotasuna hain markatua duen albistegian, deskribatzen diren egintzen kopuru handi bat NFKan gertatu (% 51,9) da. Beraz, *Telenabarra*-k teknikoki bere emisio esparrua Nafarroara mugatzeak paraleloki dakar ikuspegi sozial eta politikotik ere NFK-ko territorialitatea erabiltzea eta proiektatzea. Lurraldetasun autonomikoaz gain, eta eremu globalagoa marraztuz, Estatu espainiarretik etorritako subjektu eta destinatarioen presentzia ere hor dago. Egintzen nondik norakoa eskaintzerakoan ere, Hego Euskal Herriaren marko orokorra baino, Estatu espainiarrarena dago askozaz ere presentetago. Lan honetan, konparazio eta erreferentzialtasun espainiarra oso agerian dago maila instituzional zein sozialean.

La industria navarra especializada en la metalurgia, y también la del País Vasco, Rioja y Aragón, por su proximidad, pueden beneficiarse... (75. IUK)

La religiosa navarra Juana Elizondo Leiza ha sido nombrada, en Roma, Superiora General de la Congregación Hijas de la Caridad. Esta orden, que celebra estos días su asamblea general, atiende más de tres mil centros en todo el mundo (...). En España fueron conocidas por las Casas de la Caridad, antecedentes de los centros sanitarios. (147. IUK)

Telebista kanalak erabiltzen dituen ahozko geo-esplizitazioetan NFKra mugatzen dira, ikutu autonomista-administratibo oso presente dagoelarik.

Navarra es una de las autonomías con precios en el mercado superiores a la media nacional. (78. IUK)

INSTITUZIONALIZAZIOA HERRI NORTASUNAREN OINARRIAN

Instituzioak ez dira antolamendu politikoaren emaitza huts bezala agertzen informatiboetan, baizik eta egituraketa sozialaren gailur bezala.

Telenabarra-n, NFK-ko erakunde politiko-administratiboak nortasun kolektiboaren «ispilu» eta izaera kolektiboaren elementu zentral eta proiektibo modura aipatzen zaizkigu. Nafartasunaz ez da hitz egiten baina, implizitoki, instituzio eta lurralde autonomikoan kokatzen dela adierazten da. Herritarrak, ahozko diskurtsoaren destinatarioak eta instituzioen lana eta hizketarako arrazoa baino ez dira, dirudienez.

Aginte egiturak duen presentzia azpimarratuak, bigarren mailan kokatzen du gizarte soila, jasole eta destinatario papelean. Diskurtsiboki egiten denez, herritargoak arrazoitzen du instituzio, enpresari eta indar politikoaren zeregina, beraien lana justifikatuz. *Telenabarra*-n hitzez zein irudiz herritar soil eta oro har biztanlegoari eskaintzen zaion agerpen maila (ahozko subjektuen artean % 12,2 eta aktanteen artean % 17,6) ahula da. Aktibitate sozialaren partaide baino areago gizartea agintean daudenen egintzen jasole da: hitzezko informazioan gizarteak destinatario papera (% 21,6) eta ikonikoan ko-aktante papera (% 15,1) betetzen ditu maizenik.

Gizarteak, gizabanakoz osatua, ez du bere definizioan elementu bateratzaile gehiegirik erakusten, aipatu ditugun instituzio eta territorioaz gain. Hala ere, ongizate eta bizi kalitateari dedikaturiko gaietatik deduzitu daitekeenez, «guztien interesa» presente dago.

Beraz, *Telenabarra*-n esaten denaren arabera NFK Estatu espainiarreko egituraketa politiko-administratiboan ongi engranaturiko komunitate autonomoa da. Bertan, instituzioek eta bestelako agente sozial batzuek egiten duten lanari esker, normalitatea nagusitzen da.

Egituraketa politiko eta administratibo horretan topa dezake herritarrak izaera kolektiboaren elementurik sendoena. Gainera, aginte egitura horrek eskaintzen dio egungo bizi kalitate maila eta etorkizunerako berma.

TELENORTE: «¿COMO SOMOS...? UNOS CAFE Y OTROS LECHE»

*Telenorte*¹⁴ izenaz ezagutzen den Televisión Españolaren albistegian, mamia eta forma bateratzen duen elementu zentrala dago: bere diskurtsoan bakarria dela esparru teknikoa, informatiboa, instituzionala eta soziala. Ardatz honen inguruan erakitzen den diskurtso informatiboan instituzioek erabateko pisua dute, herritarren funtzionalitatea zirriboratu eta antolaketara sozialari zentzua ematen baitiote. Estatu espainiarreko eraketa politiko-administratiboan txertatua, Euskal Herria istilu giroan bizi den jende multzo heterogeneo gisa ageri da.

Telenorte-ren emisio esparru teknikoari dagokionez, EA Eren lurraldearekin bat dator. Baina gainera, informatiboki kontuan hartzen duen eremua ez da muga horietatik kanpoko inoiz izaten. Estatuko zein Nazioarteko berririk ez da aipatzen eta Baskongadetan gertaturikoetan zentratzen da soilik. Informatiboki definitzen den gunehori, nola ez, EA Eko instituzio autonomikoen aginte eremuarena da. Instituzioen zereginean markatzen duten lurraldea, informatiboki ere jorratua dena, da sozialki aintzakotzat hartzen dena. Erreferentzia gisa erabiltzen den kolektibitatea EA Eren populazioa izaten da beti.

Lau eremu (tekniko, informatibo, instituzional eta sozial) horien batuketak pisu ikaragarria du TVEBIren diskurtsoan eta, beraz, bertan eskaintzen den Euskal Herriaren errepresentazioan.

POLITIKAGINTZA INSTITUZIONALAREN GARRANTZIA

Telenorte-n hitez zabalitzen den informazioan politikagintzak duen lekua oso handia da. Ez bakarrik tematikoki hamarretik lautan esparru tematiko horri buruzkoa delako, baizik eta berorren bitartez azaltzen direlako agente sozialak, joko arauak eta bestelako osagarri informatiboak.

3. taula: TVEBIren ahozko informazioaren (I.U.) esparru tematikoak

<i>Politika</i>		% 40,6
- HEHko alderdi politikoa	% 14,2	
- EAEko instituzio orokorrak	% 12,8	
- Ekintza biolentoak	% 3,8	
- Aktibitate politikoa	% 1,9	
- Instituzio lokalak	% 1,6	
- Aktibitate poliziala	% 0,9	
- HEHko instituzio probintzialak	% 0,5	
- Estatuko instituzioak	% 0,5	
- .../...		
<i>Gizartea eta teknologia</i>		% 31,1
<i>Ekonomia</i>		% 16,8
<i>Kultura</i>		% 6
<i>Eguraldia eta trafikoa</i>		% 2,9
<i>Kirolak</i>		% 2,6

Politikagintzak, gainera, bestelako esparru tematikoak dituzten notizietan ere zabalitzen du bere eragina. Alegia, beste edo zelako gaiez ari diren notizien % 52,8k politikarekin zerikusia duen elementuren bat edukitzen du bere baitan. «Ikutu politikoa» deitu dugun honek erakusten du norainoko eragina duten *Telenorte*-n alderdi politiko eta instituzio politiko-administratiboek.

Ahozko informazioaren subjektu eta destinatarioen artean ere politikagintzakoak dira leku gehien eskuratzen dutenak.

Hau da, *Telenorte*-n, Euskal Herriaren errepresentazioa egiterakoan agertzeko adinako legitimazioa edukiko duten pertsonaien erdia (% 50,8) politika mundukoa da. Beraiei dagokie, albisteetan aipatzen direnak pertsonalizatzea eta eskaintzen zaien agerpen sozialaz gain legitimitate aktantziala eskuratzeari. Oro har, 4. taulan ikus dezakegunez, botere-egituraren inguruan mugitzen diren subjektuen kopurua % 70,6ra heltzen da. Aginte egituraren barruan, alderdi politiko eta instituzioez gain, gizabanako espezialduen (erakunde sozial, kultural zein deportiboetako ordezkariak eta kazetariak) kopurua kontuan hartu beharra dago. Hauekin guztiekin osatzen da funtzionalitate sozial nagusia —eta koalitatiboki azpimarratua— duten subjektuen multzoa.

Gizarteak, herritarrak batera zein banaka harturik eskuratzeko duen presentzia informatiboari buruz arituko gara aurrezagoko azpiataltxo batean. Oraingo honetan, politikak eta bere inguruko subjektuek albistegiei ematen dien marka zelakoa den ikusiko dugu.

4. taula: TVEBiren ahozko informazioaren subjektuen tipologia sozio-politiko

<i>Alderdi politikoak eta sindikatuak</i>	% 27,8
<i>Gizartea</i> (Biztanleria oro har, talde ez-antolatuak, langileria...)	% 25,4
<i>Instituzio politiko-administratiboak</i>	% 23
- EAEkoak (Jaurjaritza, diputazioak...)	% 16,2
- NFKkoak (Gobernua, Legebiltzarra, udalak...)	% 1,9
- Espainiakoak	% 2,5
<i>Gizabanako espezialduak</i>	% 19,8
<i>Bestelakoak</i>	% 3,6

Botere egituraren ardatz diren instituzio politiko-administratiboaren zeregin soziala zirriborrotzen denean gehiengoaren aldeko lana eta demokraziaren legitimitateaz aritzea azpimarratzen da. Albistegietan esaten zaigunez, instituzio politiko-administratibo horiei dagokie ongizate maila mantentzea eta demokraziaren joko arauak zeintzuk diren eta nola aplikatzen diren erakustea.

...las instituciones elegidas por el pueblo somos capaces de enfrentarnos con amenazas y chantajes de ETA...

A pesar de todo, las fuerzas políticas son conscientes de que el proyecto tiene que seguir adelante para que el terror no se imponga a las decisiones tomadas por instituciones democráticas. (136. IUK)

Instituzionalizazioa egituraketa sozialaren gorenko mailatzat aurkezten zaigu, beti ere garapen sozial eta politikoaren agente eta fruitu gisa. Horregatik, botere egituraren inguruan mugitzen diren pertsonaiak, kopuruz nagusi izateaz gain, positibizazioz jantzirik ageri dira beraien zereginen.

El Departamento de Promoción y Desarrollo de la Diputación Foral de Bizkaia duplicará este año el presupuesto dedicado a planes de formación...

...de los cursos impulsados por la Diputación se espera que se beneficien unas dos mil personas. Con ellas se pretende, por una parte, dar una formación de calidad a desempleados... (37. IUK)

Diskurtsiboki, instituzio autonomikoen lan dinamika eta zeregina zentralak dira *Telenorte*-n baina hala ere, aipatu beharra dago, eraketa autonomikoaz gain Estatu zentralarena ere presente dagoela albistegi honetan. Gobernu espainiarraren delegatuaren eta bestelako instituzioen presentziak markatzen du nola kokatzen duen TVEBik instituzionalizazio autonomikoa Estatuaren esparru orokorrean.

Aldi berean, «instituzioa» eta «herriaren» artean ematen den sinonimizazioaz, Euskal Herriak, bere osotasunean artikulazio instituzionalik ez daukanez, ez du izaera kolektiborik erakutsiko *Telenorte*-ren informazio saioretan. Izan ere, instituzio autonomikoak bertako biztanleriaren ordezkari modura aurkezten direnez, Nafarroa eta EAEn arteko elementu komunak maila instituzionalekoak dira soilik. Ez da euskaldunen arteko erlazio eta izaera kolektiboaren elementurik pantailaratuko.

El proyecto oficial del trazado de la autovía de Leizarán ha recibido el apoyo de los parlamentos de las dos comunidades implicadas en la obra: Euskadi y Navarra. En sesión conjunta las cámaras que

representan la voluntad del pueblo vasco y del pueblo navarro han expresado su adhesión a la postura de la Diputación de Guipuzcoa. (85. IUK)

Gorago esan dugunez, instituzio politiko-administratiboei buruzko informazioak berezkoa duen lurraldetasunaren marka eransten dio albistegiari eta bertan agertuko den guztiari.

INSTITUZIONALIZATURIKO LURRALDEA

Albistegien edukia aztertzerakoan, lau elementu identifikatu ditugu lurraldetasunaren definitzaile gisa: informazioan ageri diren subjektu eta destinatarioen jatorri geopolitikoak; deskribatzen diren egintzak non gertatuak diren; diskurtsoan nolako esplizitazio geopolitikoak dauden; eta, azkenik, oso adierazgarria den bostgarrena, diskurtso informatiboan erabiltzen diren konparazio eta erreferentzialtasunak zeintzuk diren.

Hauek guztiak miatu eta gero, segidan zehaztuko dugunez, zalantzarik ez dago, EAErena dela *Telenorte*-n proiektatzen den joko esparrua, harreman sozial, politiko zein instituzionalerako lurraldea.

Lehenik eta behin, esan beharra dago, TVEBIn hain presente dauden instituzio politiko-administratiboen marka territoriala zabaldu egiten dela albistegiaren bazter guztietara. Beraz, notizi saio horretan eskaintzen den Euskal Herriaren errepresentazioan, EAEko marka instituzionala dago guztiaren gainetik.

Informazioaren pertsonaiek albistegiari «ematen» dioten lurraldetasun markari erreparatuz, TVEBIn ageri diren subjektuetatik % 52,8ak Euskal Autonomi Erkidegora mugatzen du bere aktibitatea (instituzio autonomikoak, probintzialak...). Gainerakoan artean, % 26,1ak Hego Euskal Herria aurkitzen du harremanetarako eskenategi gisa. Baina, lehen esan dugun modura, politikagintza hain markatua duen albistegian, EAEkoaz gain Estatu espainiarreko errepresentzia ezin da ahaztu. Esandakoaren erakusgarri, ahozko informazioaren subjektuetatik % 10,6ak Estatu espainiarreko jatorria du.

Destinatarioen artean gora egiten du Hego Euskal Herrikoen kopuruak. Hain zuzen ere, sarritan, informazioaren jasotzaileek, EAEkoa baino zabalagoa dutelako bere jatorria.

Lurraldetasunaren marka duten elementuen presentzia aztertuz, bigarrena egintzen kokalekuaz loturikoa dugu. *Telenorte*-n deskribatzen diren egintzak non gertatu diren az gain TVEBk osatzen duen erreferentzialtasun inplizitua zein den landuko dugu.

Notizia kontsideratzen diren egintzen artean nagusi dira EAE bere osotasunean edo hura osatzen duten hiru lurraldeak kokagune modura dutenak (% 38). Hauei, hiriburuetako % 21,1 gehitu ezker, EAE zentratzen diren egintzen % 60,1 ateratzen da. Aldiz, Euskal Herri penintsularrera zabaltzen diren akzioen % 18,6 besterik ez da ageri *Telenorte*-n.

Lehenago ere esan dugunez, egintzaren kokalekuaz albiste-giaren abiapuntu informatiboa zein den jakin dezakegu. Baina, notiziak non gertatu diren jakiteaz gain, interesgarria da ikertzea nolako esplizitazio geopolitikoak erabiltzen dituen *Telenorte*-k. Puntu honetan, TVEBren diskurtso informatiboa kohaerentea da hasieran esan dugunarekin: bateratu egiten ditu esparru instituzionala, soziala eta informatiboa. Beraz, erabiliko dituen esplizitazioak bat etorriko dira egungo eraketa politiko-administratiboarekin. *Telenorte*-k Euskal Autonomi Erkidegoa du abiapuntu eta erreferentzi gune eta «Euskal Herria», «País Vasco» eta «Euskal Autonomi Erkidegoa» sinonimotzat kontsideratzen hasten da.

Euskal Autonomi Erkidegokoa baino esparru orokorragoa erabili behar izaten duenean ez du Euskal Herri penintsularra joko, baizik eta Estatu osora. Izan ere, bere diskurtsoan horrela adierazten da, Hego Euskal Herriak, osakera instituzionalik ez duenez, ez duela erreferentzialtasun sozial ezta politikorik ere izango.

...encuesta sociocultural que (...) se ha dado a conocer hoy en Bilbao. Para su elaboración se consultó el pasado mes de junio a mil seiscientos ciudadanos de la Comunidad Autónoma Vasca y Navarra... (18. IUK)

«España» eta «nazioa» izango dira *Telenorten* gehien aipatu-ko diren konparazio eta erreferentziarako elementu gisa. Estatu espainiarra, eta kasuren batean idealizaturiko Europa, dira marko orokor gisa funtzionatzen dutenak.

Las dos organizaciones sindicales (UGT eta CCOO) han convocado para mañana a las doce del mediodía a todos los trabajadores a nivel nacional. (93. IUK)

...el nivel de defraudación en Guipuzcoa es notablemente inferior al de la media española. (140. IUK)

GIZABANAKOEN PILAKETA HUTSA DEN HERRIALDEA

TVEBiren albistegietan ikus daitekeenez, pertsonalizazio-ma-ila eta tipologia sozio-politikoagatik, Euskal Herria indibidualitatez osaturiko jende multzoa da. Ahozko informazioaren subjektu eta destinatarioen tipologia soziologikoari begiratuz, as-ko dira talde informal eta gizabanakoen artean (% 55,3 eta % 63) sailkatu ditzakegunak. Artikulazio sozial gehiegirik ez da sumatzen albistegi honetan eskaintzen den erre presentazio inform a-tiboan.

Baina, horrezaz gain, elkarren arteko elementu sozial, kultu-ral, historiko zein politikoen presentzia ez da ageri *Telenorte*-n.

¿Cómo somos según ese informe? Pues a la vista de algunos da-tos, unos café y otros leche. Por ejemplo, la mitad de los encues-tados se sienten satisfechos con (...) la otra mitad insatisfechos. El 50% cree que (...) y el resto las consideran (...). Son el mismo porcentaje quienes opinan que (...) que quienes piensan que (...).

Pero quién diría que sólo hay dos mitades de un todo. El estudio de IKEI analiza otros muchos aspectos, en los que la opinión, co-mo al final de las corridas, está más repartida. (18. IUK)

Banaketa soziologikoaren adierazgarri litzateke gizarteare n baitan agertzen den desartikulazio eta gatazka sozialaren atee-tan jartzen duen desoreka. Iritzi kontrajarriak eta helburu desberdinak aipatzen dira kolektibitatearen barneko desa-dostasuna eta istilua arrazoitzeko. Egoera arazotsu honen

adierazgarriak instituzio politiko-administratiboen artean gertatzen diren enfrontamenduak, alderdien barnean zein artean agertzen diren kezkak, eta hiritarren arteko akordio falta dira. Baina, egoera honetan, instituzio politiko-administratiboei dagokie oreka eta kontsentsuaren aldeko pausoak ematea.

Juan Manuel Eguiagaray ha mostrado hoy su confianza en que se puedan seguir manteniendo unas relaciones fluidas entre la administración vasca y la del Estado. A su vez, el presidente del Partido Popular, Jaime Mayor Oreja, ha hecho un llamamiento a Ardanza y al PSE para que sean prudentes y eviten que se polarice la sociedad vasca (...).

Tenemos que hacer todos la apuesta por un periodo también de entendimiento institucional entre el Gobierno vasco y el Gobierno central (...) fruto del acuerdo serán las transferencias. (56. IUK)

Instituzio politiko-administratiboei eta alderdi politikoei zuzentzen zaien zeregin horren emaitza litzateke ongizate soziala bermatzea, bake soziala lortzea eta EAEko biztanleria, bere desadostasunean, orekatzea.

Gizartea jende soilaren metaketaz irudikatzen da TVEBIn, instituzioengandik bidalitakoa jasotzera, haren mezu eta egin-tzen destinatarioa. Herritarrak oso gutxitan ageri dira subjektu sozial modura.

Ongizatea eta hobekuntza azpimarratzen direnean, eta etorkizunari begira jartzen denean proiektatzen diren agente sozialen artean, aipaturiko instituzioez gain, enpresari eta teknikoak ageri dira.

Instituzioak, guztion alde ari direlako «helburuaz» jantzi-rik, demokraziaren eta gehiengoaren defentsan arazoitzen dira. Kontrara, biolentziaren eta gutxiengoaren marka dutenen estigmatizazio soziala nabaria da TVEBIn. Biolentzia politikoa eta sozialak lortzen duen pisu informatiboa, lehen aipatu dugun desartikulazio sozialari eta konfliktibitatea gehitu ezker osa dezakegu Euskal Herri arazotsuaren irudia zabaltzen dela *Telenorte*-ren albistegien bidez.

Instituzio politiko-administratiboak dira egoera korapilotsuaren aurrean normalitatea erakusten duten ia bakarrak. TVEBIn diskurtso informatiboan ikusi ahal izan dugunez, banakakoez osaturiko herrialdean, instituzioek (komunitate autonomokoek baina baita Estatukoek ere) ematen diote nolabaiteko batasuna eta beharrezkoa duen antolaketa politiko-soziala.

HAINBAT ONDORIO

Euskal Herrirako propio emititzen diren albistegiak aztertu eta gero, agerian gelditu da oinarritzko elementuetan (gai eta pertsonaietan) eta hauen aurkezpen ikus-entzunezkoan (tratamendu tekniko-espresiboan) antzekotasunak nagusitzen direla. Alderdi horretatik, *Teleberr*i, *Telenavarra* eta *Telenorte*-negiten duten Euskal Herriaren errepresentazioetan, beraz, ez dago alde handiegirik.

Beste estratu batean, non gaiak, pertsonaiak, egintzak eta destinatarioak testuinguratuak izaten diren, ageri dira kanale bakoitzaren ezberdintasunak. Diskurtso informatiboaren estratu honetan, telebista kanaleak propioa duen testuinguru territoriala, politiko-administratiboa, ideologikoa, komertziala edo dena delakoa erakusten du. Hemen ageri dira notizia saioak beretzat hartu dituen sistema axiologiko eta interpretatiboak. Estratu honetan, notiziaren zergatia eta ondorioak eskeintzeaz gain, ulertua izateko elementuak erakutsiko dituzte. Hemen agertzen dira medioaren lerrotze territoriala, erreferentzialtasun sozio-politikoa, inbrikazio ideologikoa eta abarrak. (*Arana, 1996*)

Estratu honetan, hiru kanal horietako emisioetan Euskal Herri desberdinez ari direla dirudi. Are eta gehiago, agerpen mediatikorik ez duenaren existentzia zalantzazkoa delarik, Euskal Herriak bere osotasunean existentziarik ez edukitzea ondorioztatu daiteke.

Gainera, albistegietan egiten den Euskal Herriaren eta euskal gizartearen errepresentazioaren arabera, aniztasunik gabea da, sozialki egituratu barik dagoena eta instituzio politiko-ad-

ministratiboen bizkarrezurrari esker bakarrik zutunik mantentzen dena.

Albistegietan ez dute gizartearen baitako oparotasun sozial, politiko eta kulturalaren berri ematen, beti ere politikagintza ofizialaren menpeko errepresentazioa egiten delako. Politika instituzionalizatu horren zeregin endogamikoak, bestalde, fagotizatu egiten ditu bestelako esparru tematikoak, sozialki eskluyente gisa ageri zaigu izaera kolektiboaren elementu banatzaile paperean.

Teleberri, *Telenavarra* eta *Telenorte*-n erabiltzen diren geoplizitazioen bidez esparru autonomikoak eta nazionala sinonimotzat hartzen dira oso sarritan. Metonimia geo-politiko honen bidez, antolaketa autonomiko-administratiboaren baldintzak barneratu egiten ditu kazetarien diskurtsoak. Politika instituzionalizatuaren logikan sarturik, albistegietan Euskal Herriak ez du existentzia propiorik, ezta lurralderik eta are eta gutxiago izaera komun eta bateratzailerik.

1. «Gizarte eta Nazio errepresentazioa telebista albistegietan. Euskal Herria Teleberri, Telenavarra eta Telenorte albistegietan» doktorego tesian oinarritzen da artikulua. Aipaturiko ikerketa lan hori aurrera ateratzeko Maria Alvarez irakasleak eskaintako laguntza aitortu beharra dut publikoki.

2. Estratu hauetatik sakonenean, albistegi desberdinek dituzten elementu komunak ikus daitezke: esparru tematikoak eta deskribatzen diren notizien agenteak.

Bigarrenak, ertainekoak, albistegi bakoitzaren sistema axiologikoa uzten du agerian. Zeintzuk diren gairik aipatuena eta pertsonaiarik oparoenak jakin ondoren, oraingoan beraien arteko erlazioak, garatzen dituzten egintzak, notizien kausa-ondorio eta arrazoiak, albistearen barruko elementuen hierarkiazioa eta abarrak agertuko dira. Maila honetan kokatzen dira albistegien arteko desberdintasunak eta, gure kasuan, Euskal Herriaz egiten dituzten errepresentazioen arteko aldea.

Hirugarrenean, azaleko estratuan, notizien tratamendu ikoniko-hitzezkoan zentratu gara. Hemen ere, osakera formala aztertu izan denez, kanalen arteko antzekotasunak suma daitezke ezer baino lehenago.

3. Ikerketan erabili den metodologia koantitatiboan Vidal Beneyto eta, *Telediarios y Producción de la Realidad* (faksimila), UIMP eta RTVE, 1985 txostenaren egokipena egin da. Lagina, 1991.eko aste komposatu batek osatzen du, urtarrila eta maiatza bitartekoa, hilean aste bat zorizko modu batez aukeratua. Azterketak lau maila ditu: notizia oro har (IUK), ahoko informazioa (IU), informazio ikonikoa (SEGI) eta aktanteena (AKT eta KOAKT). Laginaren baliogarritasuna agerian utzi zuen pretest bat egin zen, alde aurretik, urte bereko apirilean.

4. «Botere egitura» edo «aginte egiturako» pertsonaiak aipatzen ditugunean instituzio, alderdi politiko zein bestelako azpimarraketa sozio-politikoa dituztenei buruz ari gara.

5. Euskal Herriaren errepresentazio informatiboa zelakoa den aztertu gura izan dugulako, Estatuko zein Nazioarteko notiziak alboratu ditugu. Hala ere, aipatu beharra dago *Teleberri*-k, beste bi kanaletako albistegiek ez bezala, informatiboki osotasun geografikoa eta tematikoa erakusten duela.

6. Idatzi hau irakurterrezagoa egitearren sinonimo gisa hartu dira «Euskal Telebista», «ETB-2» eta «Teleberri» hitzak, alegia: Euskal Telebistaren bigarren kanalak 14.30etan, ordu erdiz, eta gaztelaz, pantailaratzen duen albistegia.

7. Hasiera batean, IUK siglez Informazioaren Unitateen Katea izendatu genuen. IUK, labur esanda, tema beraren inguruan antolatzen diren informazio desberdinak dira. IUKan batu egiten dira ahozko zein irudizko informazio desberdinak, hizkera arruntean «albisteak» deitzen direnak osatuz.

8. IU ahozko informazioaren unitatea da. Hitzez esaten denaren informazio unitate minimoa. IU bakoitzak subjektua eta egintza dauka derrigorrez eta gainera, sarritan, destinatarioa eta gaia ere izaten ditu.

9. Subjetuen tipologia geopolitikoa definitzerakoan, bakoitzaren zereginaren eremu politiko-administratiboa hartu delagu kontuan. Esate baterako, J. A. Ardanza EAJko partaide gisa ageri denean Hego Euskal Herrikoa dela esango dugu, baina Jaurlaritzako lehendakari gisa aipatua izaten denean, EAERA mugatuko dugu.

10. Duela gutxi arte eguraldiari buruzko informazio albistegiaren barruan kokatzen zen. Orduan, gainera, Eusko Jaurlaritzak babesturiko informazio saila zela adierazten zuen gardenki bat erabiltzen zen. Gaur egun, albistegia amaitu eta berehalaxe doan tarte informatiboan hitz egiten da eguraldiaz. Bertso gaurkotu honetan gainera, lehen Espainia eta Frantzia jartzen zuen tokian orain probintzia desberdinen mugak agertzen dira. Lehen Euskal Herriaren lurraldeak marra batez ageri ziren bitartean orain kolore tonuz banatuta ageri dira EAE eta NKf eta iparraldea.

11. Gizabanako espezialduen multzoan, nolabaiteko kalifikazio profesional zein politiko-soziala duten pertsonaiak kokatu ditugu. Aginte egituraren azpimarraketa lanetan asko aritzen diren hauen artean nagusi dira erakunde profesional, kultural, sozial zein kiroletakoak baina baita kazetariak ere.

12. Hemen ere, «TVENA» eta «Telenabarra» esangura beraz hartuko ditugu, alegia: Televisión Española-lak Iruñean duen emisio zentroaren emisioa. Lanegunero, 14.00etan, gazteleraz (eta notizia handienen laburpena euskaraz) eta orduerdiz, luzatzen da albistegi hau.

13. Ahozko informazioan agertzen diren pertsonaieetatik, egile modura identifikatu ditugunak subjektuak deitu ditugu, deskribatzen denaren jasoleak, aldiz, destinatarioak. Informazio ikonikoaren egileei «ak-tantea» izena ematen diegu.

14. «Telenorte», «TVEBI» eta «TVE» esangura bereko joko ditugu ditugu hemen: Televisión Española-k Bilbon duen delegazioak, lanegunero, 14.00etan, emititzen duen albistegia. Albistegia gaztelera hutsean pantailaratzten da, nahiz eta azken denboraldian notizia nagusien laburpena euskaraz ere eskaini.

Bibliografia

- ALTHEIDE, D. *Creating reality*. Sage. Beverly Hills 1976.
- ARANA, E. *Gizarte eta Nazio errepresentazioa telebista-albistegietan. Euskal Herria Teleberri, Telenabarra eta Telenorte albistegietan*. EHUko Argitarapen Zerbitzua. Leioa 1995.
- ARANA, E. «Telebista-albistegiak: diversitas inter pares». *Uztaro* 19, 41-54. 1996.
- BERGER, P. eta LUCKMANN, T. *La construcción social de la realidad*. Amorrortu. Buenos Aires. 1. ed. gazt. 1968 (azkena 1984).
- GARCIA, B. eta PERALES, A. «Los informativos de televisión: un modelo más allá de las diferencias». *REIS* 57, 137-147, 1992.
- GLASGOW MEDIA GROUP. *Bad news*. Routledge eta Kegan Paul. Londres 1980.
- GLASGOW MEDIA GROUP. *More bad news*. Routledge eta Kegan Paul. Londres 1980.
- GLASGOW MEDIA GROUP. *Really bad news*. Writers and Readers Publishing Cooperative Society. Londres 1982.
- PRADO, E. «Tendencias internacionales de programación televisiva». *Telos* 31, 1992: 66-71.
- SAPERAS, E. *Los efectos cognitivos de la comunicación de masas*. Ariel Comunicación. Bartzelona 1987.
- SCHLESINGER, P. *Putting «Reality» together: BBC News*. Constable. Londres 1978.
- TUCHMAN, G. *Making news: A study in the construction of reality*. Free Press, New York 1978.
- VIDAL BENEYTO, J. (Znd.) eta all. *Telediaris y Producción de la Realidad* (faksimila). UIMP eta RTVE. 1985.
- WOLF, M. *La investigación de la comunicación de masas. Críticas y perspectivas*. Paidós. Bartzelona 1987.

MOBILIZAZIORAKO PRESTASUNA EUSKAL HERRIAN

CESAR MARTINEZ

Azkeneko urteetan, bereziki hamarkada honen hasieratik, Euskal Herriko hiri eta herri gehienetan kontzentrazioak, manifestazioak eta kale istiluak gertaera arruntak dira¹. Honekin batera, ohikoa da ere protestak eta gora-beherak egotea unibertsitate jardueran, ekitaldi politiko ofizialetan zein herrietako festetan. Gertaera hauen oinarrian dauden arazo eta liskarrei erreparatzen badiegu, besteak beste, honako aferak aurkituko ditugu: intsumisioa eta militarismoaren kontrako ekitaldiak, erakundeen azpiegitura egitasmoen kontrako protesta ekologistak (Leizaran, Itoiz, errausteko labeak, abiadura handiko trenak, zabor toxikoen kokapena, etab.), ETA-

ren bahiketen eta hilketen amaiera eskatzeko egiten diren kontzentrazioak eta ekitaldi sinbolikoak, presoen sakabanaketa salatzen duten agerraldiak, sabotajeak eta enfrentamenduak gazte abertzale eta poliziaren artean. Honi guztiari erantsi behar dizkiogu aldiro-aldiro egiten diren makromanifestazioak aldarrikapen ezberdinekin: autodeterminazioa eta independentzia, bakea eta ETaren bortizkeriaren amaiera, euskal presoen hurbilketa, elkarrizketa eta bake prozesua, etab.

Eusko Jaurlaritzak zabalduko datuen arabera, 1995eko lehenengo hamar hilabeteetan 5.539 manifestazio egin ziren Erkidego Autonomikoaren hiru lurraldeetan, egunean 18 manifestazio. Agerraldi eta protesta ugaritasun honek prozesu kultural eta politiko ezberdinak adierazten baditu ere, lan honen aztergaia beraiek isladatzen duten mobilizaziorako ahalmena izango da. Hots, euskal gizarteak duen mobilizaziorako joera eta prestasuna aztertuko dugu.

Protesta eta manifestaldiak ekintza kolektiboaren ondorio dira, ekintza mota honen agiriko adierazpena, baina azalekoan ez badugu geratu nahi mobilizazio horien atzean dauden eragileak identifikatu behar ditugu. Bizitasun mobilizatzaile horren mekanismoak konprenitzeko, aintzat hartu behar ditugu fenomenoaren sakoneko dimentsioak, Gizarte Mugimenduen eta ekintza kolektiboaren literatura espezializatuan aztertzen diren hiru alderdi nagusienak:

- Egiturazko testuinguru soziopolitikoak, hau da, azkeneko hamarkadetan zein azkeneko urteetan euskal gizartean egon diren baldintza soziopolitiko orokorrak.

- Harreman sareak edo, elkarrekintza eta komunikazio esparru sozial ezberdinak, gizarte baten harreman giro bakoitzean berregiten baita protestei ematen zaien esanahia eta ekintzarako behar den konpromezu partehartzailea.

- Esparru sozial edo harreman giro mobilizatzaile hauetan zabaltzen diren irakurketa, jarrera eta neurrik nagusienak.

Beraz, euskal gizartean dagoen mobilizaziorako ahalmena konprenitzeko, gogoan eduki beharreko hiru elementuen azterke-

ta proposatzen dizuegu: 1) testuinguru soziopolitikoaren ezaugarriak, 2) interakzio giro ezberdinak, 3) giro horietan etengabe berregiten diren errealitatearen irakurketak eta ekintza bideak.

Askotan, komunikabide eta arlo politikoan lehen aipaturiko protesta gertaerak aztertzen dituztenean, ekintza mota hauek esplikatzeko aspaldidanik bazterturik dauden ikuspuntuak agertzen dira. Bi dira nagusitzen diren azterketak: lehenengoan, mobilizazio eta protesta kolektiboak burugabeko portaera indibidualak dira (gizabanakoen jokaera patologikoak eta irrazionalak); portaera horien eragilea mobilizatuak jaso duten engainu ideologikoa da². Bigarrenean, mobilizazioak gizarte sistemaren egiturazko gatazken adierazpenak dira. Hots, konpondu barik luzatzen diren auziek (politikoak, ekonomikoak, kulturalak, etikoak) erantzun kolektiboa sortarazten dute; sakoneko auzi horiek dira, beraz, eragileak. Aipatu bezala, bi diskurtso hauek dira egun mobilizazioen diagnostikoetan nagusitzen direnak. Normalean, lehenengoa —mobilizatuen engainu ideologikoa— egokia iruditzen zaigu geure ildo politikoan kokatzen ez diren mobilizazioak azaltzeko. Bigarrenari —gizarte sistemaren sakoneko arazo baten ezinegona azaltzeagatik mobilizatuen kemena goraipatzen duena— interpretazio zuzena dela deritzogu mobilizatzen diren sektoreekiko hurbiltasun ideologikoa daukagunean —osoa edo partziala—.

Sinpletasun hori gainditu nahian, autore espezializatuek ekintza kolektiboaren eta mobilizazioaren azterketan azkeneko urteetan egon den hutsunea azpimarratu dute. Hain zuzen ere, gizabanako eta gizarte sistemaren artean kokatzen diren gizabanakoen arteko harremanen azterketa, hau da, harreman giro ezberdinetan sortzen den elkarrekintza edo hartuemana. Egun, ezinbestekotzat jotzen da batera kontsideratzea faktore estrukturalak (gizarte sistemaren egiturazko aspektu politikoak, ekonomikoak zein kulturalak) eta elementu sinbolikoak (gizabanakook interakzioan sortzen ditugun baloreak, ideiak, portaera arauak eta kode kulturalak). Hau da, makromailan aztertzen ditugun ezaugarri estrukturalak, aktoreek interakzio giro zehatzetan sortzen dituzten balore, ideia eta erreferentzia

interpretatzaileekin lotzea (Melucci 1984; Klandermans 1986; Tarrow 1988; Snow and Benford 1986; McAdam 1988).

Azken batean ekintza kolektiboak eta mobilizazioak konprenitu gura baditugu aztertu beharra daukagu, batetik, gure gizarte sistemaren egiturazko gatazkak, eta bestetik, herrikideek gatazka horiez egiten dituzten irakurketa diferenteak, bataren zein bestearen determinismoa ukatu barik.

Ikuspuntu honetatik, mobilizazio prozesu batean gertatzen dena zera da: jende multzo esanguratsu batek inguruan dituen egoerak eta baldintzak mobilizatzeko modukoak direla pentsatzen duela. Horixe beraz aztertu beharreko fenomeno bikoitza: gatazkak eta baldintza estrukturalak, eta mobilizatuen aldetik jasotzen dituzten irakurketak. Kontzentrazioetan, manifestazio ezberdinetan, protesta ekologistetan eta enfrentamendu bortizetan ikusten ditugun lagunak harreman giro zehatzetan mugitzen diren pertsonak dira. Giro edo esparru sozial horietan pentsamendu eta ekintza tradizio ezberdinak beregiten dira eguneroko interakzioan. Erreferente interpretatzaile horiek abiapuntu eta oinarria dira mobilizaziora eramaten dituzten irakurketak sortzeko.

Eskema interpretatzaileekin batera, komunikazio giro edo esparru sozial mobilizatzaile bakoitzak baliabide materialak eta gizabanakoen arteko lotura afektiboak ere hornitzen ditu, materialak zein afektiboak ezinbesteko baliabideak baitira talde identitate eta ekintza politikorako gaitasun eraginkorra sentiarazteko³. Aktoreak erraz barneratzen ditu ekintzara eramaten dituzten orientabideak eta motibazioak, komunikazio eta harreman giro hauetan integrazio maila altua daukanean —hartuemanak maiztasun eta sendotasun handia daukalako, edota aktorea giro bakar batean murgilduta dagoelako—.

Horixe da, beraz, Euskal Herrian dagoen mobilizaziorako ahalmena aztertzeko proposatzen dugun ikuspuntua. Azterketa bideratzeko erabili ditugun zenbait galdera honako hauek dira: Azkeneko hamarkadetako baldintza sozio-historikoek erraztu al dute Euskal Herrian gizarte esparru mobilizatzaileen osaketa? Zeintzuk dira egun euskal gizartearen gatazka arda-

tzak eta testuinguru politikoaren ezaugarriak? Egiturazko testuinguru horrek mobilizatzeko aukera berezirik eragiten al du? Zeintzuk dira, gure gizartean, mobilizazioa bultzatzen duten gizarte esparru nagusienak?

Lehenengo atalean Euskal Herriko egungo gizarte egitura itxuratzen duen prozesu historikoa deskribatuko dugu, era labur eta mugatuan. Ondorengoan, testuinguru politikoaren ezaugarriak eta eskaintzen dituen mobilizaziorako aukerak aztertuko ditugu. Azkenik, ekintza kolektiboan dauden gizarte esparrurik aktiboena identifikatuko ditugu, euren ezaugarriak komentatuz.

GIZARTE EGITURAREN MODERNIZAZIOA⁴

Euskal gizartean, bizimodu tradizionalaren amaiera eta gizartearen modernizazio prozesua bi fasetan gauzatu zen: 1) Aurreko mendearen amaieran bizitasun handiko industrializazioa hasi zen; horrek zenbait gizarte aldaketa ekarriko ditu: urbanizazioa, hazkunde demografikoa, barneko eta kanpoko mugimendu migratzaileak, etab. 2) Mende honetako 60ko hamarkadan, industrializazioaren hedapen berri batean, aldaketa sozio-ekonomikoak sakondu egin ziren. Hazkunde demografikoak eta urbanizazioak gizarte eredu industrializatua itxuratzten dute. Aldaketek ez dute galarazten, ordea, euskal gizartearen bizitza sozialean ezaugarri tradizionala dena, harreman sozialen ugartasuna eta sendotasuna.

Arlo politikoan, XX. mendearen hasieran hiru dira indar politiko nagusiak: abertzaleak, sozialistak eta estatuko eskuinta. 1930.etik aurrera nazionalismoak indarra hartzen du, lurralde historiko batetik bestera desoreka nabarmenak badaude ere (nazionalismoaren hedapena baxuagoa da Araba eta Nafarroan, beste arrazoen artean, herrialde hauen industrializazio eskasagatik), nazionalismoa aukera politiko nagusia bihurtuko da. Nazionalismoaren gorakada gizartean gertatzen ari diren zenbait aldaketekin lotu behar dugu: kanpoko langileen etorrerak azalarazi zuen bertako eta kanpoko populazioa-

ren arteko ezberdintasun kulturala, bizimodu tradizionalaren galera, eta balore sistemaren haustura. Dena den, nazionalismoaren hedapenik zabalena frankismoaren garaian jazo zen (60ko eta 70eko hamarkadetan), barneko zein kanpoko elementu batzuk zirela medio, besteak beste: partaidetza politikorako aukera falta, euskal identitatearen eta bere sinboloen ukapena (hizkuntza, kultura, ikurrina...), nazioarteko testuingurua (Hegoamerikako, Afrikako eta Asiako herrien deskolonizazioa, 68ko mugimendu kontrakulturala), eta azkenik ETaren jaiotza. Nabarmentzekoa da urte horietan eman zen ETarekiko sinpatia eta identifikazioa; gazte askoren gizarteratze politikoan erreferente garrantzitsuak izan zen.

Horrela, 60ko eta 70eko hamarkadetan, euskal gizartearen harreman sareek —bizitza soziala egituratzen zutenak— politizazio prozesu sakona bizi izan zuten. Familiak, langileak, koardilek, elizbarrutiko taldeak, eta oro har aisialdi eta kultur taldeak (mendi taldeak, dantza taldeak, etab.) bere egiten dituzte, alde batetik, nazionalismoaren ukaturiko kode kulturalak, eta bestetik, nazioarteko testuinguruak ekartzen dituen erreferente politiko berriak (autoritarismoaren kontrako jarrerak, mugimendu kontrakulturalak, kolonialismoaren zeuden herrien borroka iraultzaileak —Kuba, Aljeria, Vietnam—).

Frankismoaren beherakadak eta trantsizioak aukera berriak zabaltzen ditu protesta eta partaidetza politikorako; ezkutu zegoen bizitasun politikoa kalera atera zen. Era honetan, euskal gizartearen harreman sareek ekintza kolektiborako beharrezkoak diren baliabide interpretatzaileak, afektiboak eta antolamenduzkoak garatzen dituzte. Tarte historiko zehatz honetan, beraz, batera eta elkarloturik izan ziren mobilizaziorako nagusiak diren hiru faktore: 1) bizitza soziala egituratzen duten taldeak eta harreman sare informalak egotea, 2) testuinguru lokalak zein internazionalak mobilizaziorako aukerak eskaintzea, eta 3) eguneroko interakzioan egiten den errealtatearen definizioan, egoera soziopolitikoaren irakurketa kritikoa zabaltzea.

Egun euskal gizartean dauden harreman sare eta giro mobilizatzaileak identifikatu eta itxuratu aurretik, azter ditzagun

gaurko eszenatoki politikoak dituen ezaugarriak eta hauek zabaltzen dituzten mobilizazio aukerak.

TESTUINGURU POLITIKOA: GATAZKA ARDATZAK ETA AUKERAK

Gizarte Mugimenduen azterketan tresna analitiko ezaguna da *political oportunitiy structure* (POS), *aukera politikoaren egitura* (APE), edo testuinguru politikoak gizarte mugimenduen mobilizaziorako eskaintzen dituen aukeren azterketa. Ikuspuntu teoriko-analitiko honek hainbat aspektu eta aldagai hartzen ditu geure kasuan eta Estatuko zein Euskadiko eta Nafarroako Erkidegoen egiturazko esparrua aztertzeari begira, aspekturik orokorrenak hartuko ditugu soilik:

1) Mobilizatuentzat sistema politikoak daukan eskuragarritasun formala. Hau da, egitura politikoaren zabaltasun edo itxitasun maila.

2) Administrazioek mobilizatuen aurrean azaldutako jarra informalak eta hauenganako erantzun edo estrategiak.

3) Aktore politikoaren arteko botere banaketa: alderdi politikoak, eliteen arteko ika-mikak, adostasunen egonkortasuna, etab.

Lehenengo puntuari dagokionez, APEn teorikoen ustez, mobilizatuentzat sistema politiko baten eskuragarritasuna ondorengo aldagai hauen menpe egongo da: a) Zentralizazio maila. b) Administrazio ezberdinen arteko koherentzia edo bateratasuna. c) Botere eragile, legegile eta judizialaren arteko banaketa maila. d) Demokrazia zuzenaren prozedurek (erreferendum, herri ekimen...) daukaten instituzionalizazio maila. Aurrerago ikusiko dugu aldagai hauen portaera Espainiako sistema politikoan.

Bigarren puntuari dagokionez, administrazioak mobilizatuen aurrean emandako erantzunei dagokiona, Hanspeter Kriesi-k⁵ estatu bakoitzean dagoen tradizio kulturalaren garrantzia azpimarratzen du; adibide moduan Kriesik Europako hegoaldeko estatuek (Grezia, Espainia, Portugal) ezkerreko ko-

munistak baztertzeko duten tradizio historikoa, eta honek egitura instituzionalean uzten duen arrasto edo inertzia kulturala aipatzen ditu. Era berean, egitura instituzional baten kultura politikoa aztertzeko orduan gogoan eduki beharreko beste elementu bat ondokoa da: autoritarismoak denbora luzez jardun duen estatuetan indartsuagoa dela agintarien joera errepresibo.

Aldagai eta elementu hauek guztiak kontsideratuz esanenezake estatu espainiarraren sistema politikoan batera ematen direla ezaugarri kontraesankor batzuk. Alde batetik, sistema irekia edo eragingarria da bi aspektutan: deszentralizazio administratiboa altua da, eta administrazio ezberdinen arteko koordinazioa edo bateratasuna ez da erabatekoa. Beste aldetik, sistema itxia da gainontzeko aspektuei dagokionez: botere legegile edo judizialaren gainetik botere eragilea nabarmentzen da, demokrazia zuzenaren prozedurei dagokionez ez dago tradizio handirik, eta autoritarismoaren historia hurbilak kultura errepresiboaren joera erakusten du.

Mobilizatuek aukera bultzatzaileak zein erantzun baztertzailak aurkitzen dituzte; egitura administratibo batean halako nahasketa kontraesankorra ematen denean, zeintzuk dira ondorioak mobilizaziorako ahalmenari begira? Europako estatuetan Kriesik egindako azterketei erreparatzen badiegu⁶, honako hau ikus dezakegu: sistema politiko hauek sarrera mugatua eskaintzen diete mobilizatuari, atak irekitzen zaizkie maila bateraino (adibidez: intsumisioa eta hainbat udaletxeren aldetik jaso duen kolaborazioa; Itoiz eta epaileen geldiaraztea; presoen hurbilketa eta Eusko Legebiltzarraren ebazpena), gorago ordea, aldarrikapenak neurri batean edo bestean gauzatzeko orduan, mobilizatuak atak itxita aurkitzen dituzte. Ondorioa zera da, mobilizatuaren aldetik frustrazioa: gogortzea eta erradikalizatzea. Administrazioaren aldetik, gogorrigo ixtea eta errepresioa.

Errepresioa elementu garrantzitsua da mobilizaziorako ahalmenaren azterketan; errepresio gogorrek areagotu baitezake ekintza kolektiboa. Lehenengo eta behin mugimenduaren identitate kolektiboa indartzen duelako, mugimendua eta

mugimenduaren erantzunak gogortzen ditu. Bigarrenez, errepresioa berez, ezinbesteko elementu bihur daiteke mobilizatuak eskaerei eutsi ahal izateko. Hirugarrenez, errepresioak, komunikabideen oihartzunarekin, laguntzaile eta babesle ugari sortaraz dezake (Koopmans, 1990. Kriesi, 1992; 129). Gure artean, begi-bistakoa da efektu horien eragina inguruan dugun bizitasun mobilizatzailean.

Testuinguru politikoaren hirugarren aspektuari dagokionez, aktore politikoaren arteko botere banaketari dagokiona alegia, partidu politikoaren eta elitearen arteko gatazkak eta adostasunak aipatuko ditugu.

Zatiketa eta proportziorik gabeko aniztasuna dira ezaugarri nagusiak Euskal Herriko alderdi politikoaren sistemari⁷. Alderdien ugartasuna egiturazko gatazka ardatz baten adierazle izaten da, geure kasuan autodeterminazioa edo subiranotasunaren ardatza da aniztasun eta zatiketa horren eragilea. Euskal gizartekideen artean ez dago aho bateko adostasunik identitate kolektiboa definitzeko orduan (euskaldunak, bascoak, bascoak eta espainolak baita ere...), ondorioz legítimo den komunitate nazionala ere definitzeko ez dago aho bateko adostasunik. Oinarritzko ezadostasun hauen adierazpen politikoa, autodeterminazio maila ezberdinak proposatzen dituzten proiektu politikoak egotean datza (erregionalismotik independentismora).

Kontuan hartzekoa da ere haustura politikoak eragiten dituen beste gatazka ardatz bat: bortizkeriarena. Komunitate nazionalaren definizioan dagoen adostasun faltak estatu espainiarreko legitimazioaren arazoa sortarazten du; honekin lotuta, estatuak ezartzen duen biolentziaren monopolioa ez da aho batez onartzen. Dena den, egiturazko testuinguru politikoa dena izanda, estatuen kontrako borroka armatuak ez du herriekideen artean gehiengoaren sustengua, bai ordea sektore batena. Berriz ere topo egiten dugu, sektore soziopolitiko guztien aho bateko adostasunik lortzen ez duen beste oinarritzko elementu batekin: biolentziaren monopolioa edota biolentziaren erabilpena.

Azken urteetan, gatazka ardatz horren arabera gauzatu dira alderdien arteko itunak; azpimarratzekoa da, ordea, Ajouria Ene-

ko Mahaiaren inguruan lortu den biolentziaren kontrako adostasunak aldiro erakusten duela ahulezia eta ezegonkortasuna.

Itunek eta elkarrekin joateak zailtasun handiak dituzte Euskal Herriko bizitza politikoan. Eszenatoki ezegonkorra dugu bi gatazka ardatz nagusi gurutzatzen direlako: autodeterminazioa eta bortizkeria. Lehenengoak euskal alderdi eta sindikatu abertzaleek bere duten esparru bat mugatzen du (ELA-LAB hitzarmena kasu), bigarrena abertzale zein ez-abertzale diren alderdiek okupatzen dute (Ajuria Eneko Mahaia kasu). Esparru batean zein bestean bi ardatz horien gurutzaketak zailtasunak eta ezinegonak sortarazten ditu. Esparru abertzalean ematen diren hitzarmenak desestabilizatzeko bortizkeriaren argudioa erabiltzen da⁸; bortizkeriaren kontrako itunetan, ordea, autodeterminazioa da arazo iturri⁹.

Autodeterminazioaren eta biolentziaren inguruko gatazken agerpena etengabekoa da; dena den, ELA eta LAB eszenatoki politikoan aspaldidanik ikusten ez genuen sendotasuna eta egonkortasuna ari dira erakusten euren hitzarmenean.

Esparru bakoitzean aktore politikoez duten jokabidean sartu barik, gure azterketarako funtsezkoa dena azpimarratu beharra daukagu: egiturazko bi gatazka ardatz edo oinarritzko ezadostasun horiek direla medio, euskal gizartearen egitura politikoaren ezaugarri nagusiak ezegonkortasuna eta liskarra ditugu; adostasunei eta itunei eusteko dagoen zailtasun edo ezintasun nabarmena. Akuilu ederra dugu hau, euskal gizartearen mobilizaziorako ahalmena ia etenik gabe eragiten duena. Eszenatoki politiko korapilatsu honek aukerak zabaltzen ditu gizartearen sektore ezberdinen mobilizaziorako.

Ikus dezagun zeintzuk diren mobilizatutako sektore horiek, harreman eta komunikazio giro ezberdin legez definitu ditugunak. Aurreko ataletan azpimarratu dugunez, giro hauetan murgilduta dauden lagunak mobilizatzen dira, batetik, egiturazko testuinguru politikoak bultzatzen dituelako, eta bestetik, eguneroko interakzioan sortutako erreferente interpretatzaile zehatzak erabiliz, ez-legezko eta mobilizatzeko moduko aferak definitzen dituztelako.

GIZARTE ESPARRU MOBILIZATZAILEAK

Mobilizazio deialdiak egiten eta protesta ekitaldiak bultzatzen aktiboenak direlakoan, hiru esparru sozial ezberdin azpimarratuko ditugu: 1) Ezker abertzalearen inguruko taldeak. 2) «Gizarte mugimendu berriak» edo egungo gizarte ordena eta kode kultural nagusiak ikuspuntu humanista batetik kritikatzeko dituztenak: antimilitaristak, ekologistak, feministak, internazionalistak, okupak, etab. 3) Elizaren inguruko talde, komunitate eta kolektiboak.

Tipologia guztiakin gertatzen den legez, hau ere mugatua da oso, talde eta ekimen ugari ezin baititugu behar bezala kokatu hiru esparru hauetan¹⁰. Bestalde, askotan esparruen arteko mugak ez dira existitzen, eta posible da, adibidez, hiru esparruetan aritzea edo hirurekin identifikatzea. Horrexegatik tipologiari ematen diogun erabilpena ez da gauza diferenteak banatzearena, errealitate konplexua ordenatzeko eta deskribatzeko tresna izatearena baizik.

Lehenengo sektore edo gizarte esparruari dagokionez, ezker abertzale edo ENAM deiturikoak, kultura politiko zehatza berregiten du; frankismoren azkeneko urteetan sendotzen den esparru politiko honek ez du jarraitu gainontzeko indar politikoe-tan hain nabaria den profesionalizazio eta modernizazio prozesua (burokratizazioa, instituzionalizazioa eta hedapen elektoral-lortzearen eduki ideologikoaren galera). Ezker abertzalean ez da jazo bizitza sozialaren despolitizazioa, horrexegatik, barne antolaketak eta itzelezko mobilizazio gaitasunak aparteko ekintza politikoa itxuratzen du.

Independentziaren edota iraultzaren erreferentziak erabiliz, egiturazko aldaketa politikoa aldarrikatzen du. Gizarte sektore honek jasaten duen bazterketa eta estigmatizazioak —instituzioen kontrako jokabideen legitimazioagatik, eta bereziki ETAREN bortizkeria zuritzeagatik— endogamia eta elkar urruntzea sortarazi du. Nabaria da euskal gizartean dagoen haus-tura arriskua; gizarte esparru ezberdinak elkarri bizkarra emanda, eta bakoitza bere munduan murgildurik egonda, gero eta zailagoa baita gainontzeko harreman girotan berregiten

diren errealitatearen definizioez jabetzea. Egoera honetan, elkarrengandik urruntzeak eta komunikazio ezak zailago egiten du norberaren planteamendu eta jokaeraren berrikusketa etiko eta politikoa. Sektore guztietan nagusitzen dena, etengabeko enfrontamenduaren bidetik edozein ekintzaren justifikazio defentsiboa da.

Bigarren giro mobilizatzaileak, Gizarte Mugimendu Berriak, giza baloreak azpimarratuz eta mundu mailako proiektzioa indartuz, gizarte aldatetara bideratzen den konpromezua bultzatzen du. Mugimendu eta kolektibo hauetan dagoen aniztasunak deskribapen homogeenak zailtzen baditu ere, esan genezake euren joera transformatzaileak botere politikoen bidez lortutako balizko gizarte aldateta baino, balore, bizimodu eta kode kulturalen aldateta hobesten duela.

Autore askok azpimarratu dutenez, mugimendu hauek «ezker berri baten idealak» konpartitzen dituzte; funtsean, indarrean dagoen eredu sozio-ekonomikoaren eta bere funtzionamendu politiko burokratizatuaren kritika humanista. Lan esparrua ez da berez politikoa, esparru soziokulturala baizik; konbentzionalak ez diren estrategien eta jokaeren bidez elkarbitza eta portaera ekonomiko eta politiko ezberdinen posibilitatea erakusten ahalegintzen dira.

Kultura politiko honen sorrera, Afrikako, Hegoamerikako eta Asiako mugimendu iraultzaileak ahaztu barik, 50eko eta 60ko hamarkadetan Europako eta EEBBetako mugimendu kontra-kulturaletan bilatu behar dugu. Batzuen ustez, 60ko hamarkadaren beroaldi soziopolitikoaren protesta eta utopia mugimendu baten hasiera izan zen, egun era antolatuago batez eta esparru zehatzetan garatzen ari den mugimendua (ekologistak, feministak, antimilitaristak, nazioarteko elkartasun mugimenduak...).

Aipatu dugun hirugarren giro mobilizatzailea elizarena da: aisialdi eta gazte taldeak, komunitateak, elkarte asistentzialak... Aniztasuna nagusi berriro ere esparru honetan, oinarri etikotik erlijiosoak bultzatzen baititu jokabide konformista eta atzerakoiak, zein gizarte aldatzearen aldeko konpromezu sakonak. Azpimarratzekoa da, batetik, talde hauek haur hezkuntzaren

arloan burutzen duten lana giza baloreak zabaltzeari begira, eta beste aldetik, pobrezia eta marjinazioarekiko daukaten sentiberatasuna dela eta, ezohiko hurbiltasuna daukatela kolektiborik marjinatuenekin eta ezbidezko egoerarik gordinenekin.

Beste aldetik, ETaren bortizkeriak sortarazten duen ezinegonak hauetako hainbat talde etiko-erlijioso eta, eurekin batera, orain arte mobilizatu gabe zegoen jende ugari mobilizatu du. Bakearen eta bortizkeriaren amaieraren alde garatzen ari den mobilizazio garrantzitsu hau jazotzen ari da testuinguru zehatz batean: independentziaren aldeko borroka eta honek sortarazten duen gatazka politikoa, isolamenduaren, inkomunikazioaren, militarizazioaren eta krudeltasunaren bidetik ari da eramaten, antza denez, enfrentamenduaren muturretan dauden sektore soziopolitikoaren oniritziz. Testuinguru honek etengabe areagotzen du herrikide askoren haserrea eta tentsioa; erantzun aktiboa ematearen beharra sortarazten du.

Bakearen aldeko mobilizazioa, bortizkeriaren erabilpenak darraren atzerapauso etikoa adierazten duen mobilizazio jendetsu hau, baldintzatua dago oso jaso duen babes instituzionalagatik. Gainontzeko gizarte mugimenduen historiari erreparatzen badiogu, babes hau gauza berria eta ezohikoa da. Bakearen aldeko mobilizazioa, taldeek eta partaideek nahita edo nahi gabe, indarrean dagoen instituzio publikoen ekintza politikoarekin hartueman funtzionala eta osagarria izango duen neurrian, urrundu egiten da Gizarte Mugimendu Berriek garatzen duten ildo ideologiko eta estrategikotik.

Amaitzeko, azpimarratzeko moduko kontrako joera bat ere aipatu behar dugu eliza inguruko esparru honetan. Konprometuzaren eduki humanistak hurbildu ditu inguru honetako zenbait talde eta gizarte mugimendu alternatibo, hala nola: pobreziaaren aurkako plataformak, arrazakeriaren kontrako taldeak, intsumisia, 0,7ren aldeko kanpaina, etab.

Atal honetan, hiru esparru sozial horiei erreparatuz, azpimarratu nahi izan dugu subjektuen jokaera aktiboa mobilizazio eta ekintza kolektiboen garapenean. Egiturazko testuinguru aproposa egotea ez da nahikoa mobilizazioa sortarazteko, bal-

dintza horien irakurketa kritikoak eta estrategia mobilizatzaileak pertsonen esku daude, harreman komunikatibo eta elkarrekintza kolektiboaren esku. Horrexegatik, funtsezkoa ikusi dugu hartueman eta komunikazio giro horietara hurbiltzea —azaletik izan bada ere—, esparru horietan berregiten baitira mobilizazioaren atzean dauden errealitatearen irakurketak, estrategiak eta partaidetzarako konpromezuak.

ONDORIOAK

Artikuluaren hasieran adierazitakora bueltatuz, egun Euskal Herrian hain ugariak diren manifestaldiak, kontzentrazioak eta istiluak, sinplekeria handiz ari direla aztertzen azpimarratu nahi dugu. Iritzi emaileak protesta egileekin bat egiten ez badu, engainu ideologikoak eragindako jokabide itsua ikusten du. Mobilizatuarekin nolabaiteko hurbiltasun ideologikoa izatekotan, ordea, protestari eta mobilizazioari erantzun logikoa deritzo, neurriko erantzuna konponbiderik gabe luzatzen den sakoneko arazo bati. Interakzioan jasotako engainuaren eraginez mobilizatuaren burugabeko portaera azpimarratzen dute lehenengo diskurtsoan, egiturazko arazoak eta horien adierazpena bigarreanean.

Lan honetan batera aztertu ditugu egiturazko aspektuak (azken hamarkadetako baldintza soziopolitikoak eta sortarazi dituzten gatazkak, mobilizaziorako aukerak), eta interakzio giroak (bakoitzean berregiten baitira errealitatearen irakurketak, estrategiak eta ekintzarako orientabideak).

Egiturazko aspektuei dagokionez, Euskal Herriko testuinguru historiko-politiko hurbila azpimarratu dugu. Batez ere, 60ko eta 70eko hamarkadetan jazo zen hiru faktoreren konfluentzia:

1) Testuinguru lokalean, errepresio politikoa eta euskal identitatearen sinboloen ukapena. Nazioarteko testuinguruan, mendebaldeko protesta kontrakulturalak eta Amerikako zein Afrikako deskolonizazio iraultzaileak (Kuba, Aljeria...).

2) Herrigintzaren eta harreman sozialen sendotasuna eta ugaritasuna, talde informalek bizia ematen baitiote egunero-koan ofizialki ukatua zegoenari.

3) Hartueman sare horietan (familia, koadrilak, lankideak, talde kulturalak, aisialdi taldeak...) indarrean zegoen ordenaren kontrako ikuspegi kritikoa hedatzea. Zabalagoa den politizazio prozesu baten hasiera da, garaiko erreferente politikoak eta ekintza bideak indar handiz mamiarazten dituen euskal gizartean.

Elementu hauen elkarloturak eta aldiberekotasunak mobilizaziorako prestasun berezia sortarazi zuten Euskal Herrian. Gizartearen giro eta esparru askotan gai eta kezka politikoak pil-pilean zeuden; horren ondorioz, erraza zen edonorentzat hauetako giro batean murgiltzea eta indarrean zeuden gogo eta orientabide politikoak barneratzea. Diktaduraren beherakadak eta trantsizioaren hasierak indar eta gogo horren adierazpen publikoa ahalbidetu zuten; talde, elkarte eta erakunde sare dinamiko batek partaidetza eta mobilizazio kultura sendoa hedatu zuen.

Trantsizio ostean eratzen den sistema politikoak zenbait mobilizazio aukera eskainiko ditu. Aukera Politikoen Egitura (APE) eredu teoriko-analitikoari jarraituz, sistema politiko horren izaera itxia ikusi dugu; zenbait ezaugarritan mobilizatuaren adierazpidea eta aurrerabidea errazten badu ere —egitura deszentralizatu edo partidu politikoen ugaritasuna kasu—, hor dirau, beste aldetik, autoritarismoaren iragan hurbilak erakunde publikoetan utzi duen aztarna kulturala: mobilizatuenganako joera baztertzaila eta errepresiboa. Kriesiren eskutik ikusi dugunez, Europaren hegoaldeko estatuetan muturreko ezkeraren bazterketa urte askotako joera kulturala da. Euskal Herrian ondorio okerragoak ditu joera honek bi gatazka ardatz ari baitira eszenatoki politikoak etengabe zatitzen, subirotasunarena eta bortizkeriarena. Bi gai horien inguruko aho bateko adostasun faltak eta honek dakarren ezegonkortasunak, gizartearen sektore ezberdinen mobilizazioa eragiten dute.

Azkenik, mobilizazioen eta protesta ekitaldien arloan esparru sozialik aktiboenak deskribatu ditugu, hauetan berregiten baitira erreferente kultural eta politiko mobilizatzaileak. «ENAM», «Gizarte Mugimendu Berriak» edota «Eliza inguruko taldeak», ikuspegi soziologikotik, interakzio eta komunikazio esparruak dira. Esparru hauetako lagunak mobilizatzen dira, alde batetik, egiturazko testuinguru soziopolitikoaren zenbait ezaugarriak eta gatazkak eraginda, eta bestetik, testuinguru hori irakurtzeko erabiltzen dituzten erreferente kulturalak eta politikoak eraginda.

Autodeterminazioak, biolentzia gaitzesteak, presoen legezko eskubideek, antimilitarismoak, ingurugiroak edota herri pobretuen egoerak, jendea mugiarazten dute. Mobilizazioa dago gai hauen inguruan konpondu gabeko egiturazko aspektuak daudelako, eta baita ere gizarte esparru batzuek egunero harremanetan (balore, ideia eta erreferente ezberdinak erabiliz) errealitate horien inguruko estrategia eta irakurketa kritikoak egiten dituztelako.

Mobilizazioek, enfrontamenduek eta protesta ekitaldiek, gizarte baten jarduera nagusiak oztopatzen dituztenean, eta herrikideen arteko elkarbizitza hondatzeko arriskuan jartzen dutenean, zenbait gauza birplanteatu beharra dago; bai egiturazko gatazka historikoei dagokionez, zein gatazka horien inguruan egiten ari diren estrategia eta irakurketa ezberdinei dagokionez. Sektore soziopolitiko ezberdinen estrategian isolamendua, inkomunikazioa eta militarizazioa nagusitu beharrean, sektore bakoitzaren estrategia egileen ardura da, ikuspuntuak hurbilduz, gizarte esparru guztiak integratzeko moduko adostasun minimoak lortzea.

1. Artikulu hau 1996ko urriaren 2tik 5era Gasteizen egin zen Europako Gizarte Mugimenduen Biltzarraren aurkeztutako lanaren laburpena da.
2. Funtzionalismo erradikalarentzat, gizarte batean dauden gatazkek ez dituzte egiturazko arazoak isladatzen, zenbait gizabanakoren desbideraketa patologikoa baizik. Erabat funtzionala den gizarte egiturarekin gizaseme horiek daukaten adaptazio falta da gatazkek adierazten duena. «El conflicto social en la teoría sociológica». Juan del Pino Artacho. *El Conflicto Social*. 1988 (169-170 or.). UNED, Malagako Unibertsitateko Soziologia saila.
3. Mc Adam-ek, beste autore batzuen esanak lagunduta, talde edo komunitate batekin lotura afektibo gogorrak ez dauzkanak, egoera edo errealitate jakin bat aldatzeko sentitzen duen gaitasun falta deskribatzen digu. Honekin lotuta, joera arrunta da isolaturik eta organizatu gabe dauden pertsonengan, arazo sozialei azalpena ematean arrazoi soziopolitikoetara jo beharrean, arrazoi eta erru pertsonalak bilatzea; beste ikuspuntu, informazio eta hausnarketa kolektiboaren ezak zailago egiten baitu, berez zailagoak diren egiturazko azalpen sistematikoak ikustea. «Micromobilization contexts and recruitment to activism» (137. or.). B. Klandermans, H. Kriesi, S. Tarrow (bateratzaileak). *From structure to action: Comparing Social Movements Research Across Cultures*. Greenwich: Jai press (125-154 or.).
4. Ander Gurrutxaga, Alfonso Pérez-Agote eta Alfonso Uncetak Euskadiko modernizazio prozesuak gizarte egituraren eragin dituen aldaketak jaso dituzte bi liburukitan: *Estructura y procesos sociales en el País Vasco*. UPV/EHU. Bilbo, 1990.
5. Kriesi, H. «El contexto político de los Nuevos Movimientos Sociales en Europa Occidental». *Las transformaciones de lo político*. J. Benedicto eta F. Reinares (editoreak). Alianza Editorial, Madril 1992 (121. or.).
6. Kriesik egoera antzekoa deskribatzen du Alemanian. Bere ustez mobilizatuak aldarrikapena aurrera eramateko zenbait administrazio, aktore politiko eta elite intelektualen babesa edo kolaborazioa daukatenean, erraztasun hauek aldarrikapenak gauzatzeko orduan alferrik suertatuz gero (sarbidea itxita geratuz gero) ondorioa erradikalizazioa eta errepresioa da (Ibid. 127. or.).
7. Hego Euskal Herrian, lurralde hedapen mailari begira, bederatzi alderdi politiko zerrenda ditzakegu: abertzaleak (PNV, HB, EA), estatalistak (PSE-EE, PP, IU-EB), regionalistak (UA, UPN, CDN).
8. Etengabe ari gara ikusten ELA-LAB hitzarmenaren kontrako erasoak, beti arma bera erabiliaz: LABekin ibiltzeak omen dakarren kontraesana eta zalantzagarritasuna biolentziaren inguruan.
9. Azkeneko hilabeteetan, Ajouria Eneko Mahaia aro berri batean sartzeko asmotan, EAJ eta EA autodeterminazioa mintzagai izatearen alde azaldu dira. IU-Ezker Batuak begionez ikusten du, baina PSE-EE eta, batez ere, PP kontra daude.
10. Auzo elkarteek edo euskara eta euskal kulturaren arloan mugitzen diren hainbat talde eta herri ekimenek, beste era batera bideratzen dute euren lana eta, proportzionalki, mobilizazio eta protesta ekitaldi gutxiago bultzatzen dituzte.

Bibliografía

- BENEDICTO, Jorge; MORAN, María Luz (eds. 1995). *Sociedad y política*. Alianza Editorial. Madrid.
- BOURDIEU, Pierre (1988). *Cosas Dichas*. Gedisa. Buenos Aires.
- CASQUETTE, Jesus (1996). «The sociopolitical context of mobilization: the case of the antimilitary movement in the Basque Country». *Mobilization*, 1 (2) iraila.
- EYERMAN, R; JAMISON, A (1991). *Social Movements, a cognitive approach*. Polity Press. Cambridge.
- GINER, Salvador (1992). «Una incierta victoria: la inteligencia sociológica». *Escritos de teoría sociológica*. Centro de Investigaciones Sociológicas. Madrid.
- GURRUTXAGA, A; PEREZ-AGOTE, A; UNCETA, A (1990). *Estructura y procesos sociales en el País Vasco*. UPV/EHU. Bilbo.
- HUNT, Scott; SNOW, David; BENFORD, Robert (1994). «Marcos de acción colectiva y campos de identidades en la construcción social de los movimientos». JOHNSTON, H; LARAÑA, E; GUSFIELD, J. *Los nuevos Movimientos Sociales; de la ideología a la identidad*. Centro de Investigaciones Sociológicas. Madrid.
- KLANDERMANS, Bert; KRIESI, Hanspeter; TARROW, Sidney (comps.1988). *From structure to action: Comparing Social Movements Research Across Cultures*, 1. Greenwich: Jai press.
- KLANDERMANS, Bert; OEGEMA, Dirk (1987). «Potentials, networks, motivations, and barriers: steps towards participation in social movements». *American Sociological Review*, 52. zkia.
- KRIESI, Hanspeter (1992). «El contexto político de los Nuevos Movimientos Sociales en Europa Occidental». *Las transformaciones de lo político*. J. Benedicto; F. Reinares (ed.). Alianza Editorial. Madrid. Mc ADAM, Doug; Mc CARTHY, John; ZALD, Mayer (Eds. 1996). *Comparative perspectives on social movements; political opportunities, mobilizing structures, and cultural framings*. Cambridge University Press.
- Mc ADAM, Doug (1988). «Micromobilization contexts and recruitment to activism». *International Social Movements research: From structure to action: Comparing Social Movements Research Across Cultures*, 1. 125-154. or.
- Mc ADAM, Doug (1993). «Specifying the relationship between social ties and activism». *AJS*, 99.3. 640-667. or.
- Mc ADAM, Doug (1994). «Cultura y Movimientos Sociales». JOHNSTON, H; LARAÑA, E; GUSFIELD, J. *Los nuevos Movimientos Sociales; de la ideología a la identidad*. Centro de Investigaciones Sociológicas. Madrid.
- MELUCCI, Alberto (1994). «Asumir un compromiso: identidad y movilización en los movimientos sociales». *Zona Abierta*, 69. 153-177. or.
- MELUCCI, Alberto (1992). «Frontier land: collective action between actors and systems». *Studying Collective Action*. DIANI, M; EYERMAN (ed.). Londres, Sage.
- OFFE, Claus (1988). *Partidos políticos y Nuevos Movimientos Sociales*. Editorial Sistema. Madrid.
- PEREZ-AGOTE, Alfonso (1987). *El nacionalismo vasco a la salida del franquismo*. Centro de Investigaciones Sociológicas. Madrid.
- REINARES, Fernando. «Doce notas sobre el problema de la acción colectiva». *Teoría y sociedad: homenaje a Luis Rodríguez Zúñiga*. CIS. Madrid.
- RIECHMAN, Jorge; FERNANDEZ BUEY, Fernando (1994). *Redes que dan libertad*. Paidós. Barcelona.
- SNOW, David; BENFORD, Robert (1988). «Ideology, frame resonance, and participant mobilization». *International Social Movements research: From structure to action: Comparing Social Movements Research Across Cultures*, 1. 197-217 or.
- TEJERINA, Benjamín; FERNANDEZ, José Manuel; AIERDI, Xabier (1995). *Sociedad Civil, protesta y Movimientos Sociales en el País Vasco*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua. Gasteiz.
- URTEAGA, Eguzki (1995). «Mobilizazioaren teoria soziologiko berri baten zirriborroa». *Uztaro*, 15. 109-140. or.
- ZUBIAGA, Mario (1992). «Euskal Nazional Mugimenduaren Aukera Politikorako Egitura». *Inguruak*, 7.



ISTORIA BIZIA

IMANOL MURUA URIA
FEDERIKO KRUTWIGI ELKARRIZKETA



IBURUAK

UR APALATEGI
BARROKOAREN ETA KLASIKOTASUNAREN OREKA

FEDERIKO KRUTWIGI ELKARRIZKETA

IMANOL MURUA URIA

Federiko Krutwig Sagredo Getxon (Bizkaia) sortu zen 1921. urteko maiatzaren 15ean. Aita alemana eta ama jatorri italiarrekoa, gaztelera izan zuen ama hizkuntza, baina oso gazterik ikasi zituen frantsesa eta alemana, oinarrizko ikasketak eskola frantsesean aurrena eta alemanean gero egin baitzitu Bilbon. 15 urterekin, gerra zibila piztu zela eta, Lisboara jo zuten Krutwigtarrek. Portugesa ongi ikasteko baliatu zuen Federikok bi urteko egonaldia. Bilbora itzuli zenerako grekoa eta euskara ikasiak zituen, bere kasara.

Garai hartan erdi hilik zegoen Euskaltzaindiara hurbildu zen Krutwig, eta Resurrección Azkue ezagutu zuen, akademiak Bilboko Erribera kalean zuen egoitzan. Euskaltzainburuaren lankide ezezik adiskide on ere egin zen Krutwig gaztea eta, 1942an, 21 urte baino ez zituela, euskaltzain izendatu zuten. Urgazle Euskaltzaindiko akten arabera, euskaltzain oso Krutwigek berak uste duenez.

Urte gutxitan, Azkue zaharraren babesarekin, Euskaltzaindiko ekintzaile nagusi bilakatu zen Krutwig. Berari eskatu zitzaion Euskaltzaindiaren berrikuntzarako plangintza lantzea, eta berak egindako proposamena onartu zen osorik 1949an: Iparraldeko eta erbesteko euskaltzainak Akademian berriro onartzea eta aurrerantzean hamabi euskaltzain barik hemezortzi izatea erabaki zen.

1952an, Luis Villasante euskaltzain izendatu berriaren sarrera hitzaldiari egindako erantzunean Elizari kritika gogorra egin ziolako, erbestera jo behar izan zuen. Parisen lau urte egin zituen eta Alemanian sei. 1962an Euskal Herrira itzuli zen, Miarritzera, eta hurrengo urtean Vasconia liburua argitaratu zuen, Fernando Sarrailh de Ihartza ezizenarekin.

ETA jaio berriarentzat erreferentzia garrantzitsua izan zen Krutwigen liburua, Krutwig bera artean ETako kide ez zen arren: abertzaletasun jeltzalea errefusatu eta ezkerreko abertzaletasun iraultzailerako oinarri teorikoak ezarri zituen Vasconia-k. ETarentzat zenbat txosten egin zituen gerora, eta erakunde armatuaren V. Asanblean, 1967ean, zuzendaritzako kide izendatu zuten.

Brusselan bizi zen orduan, baina urte berean Italiara joatearekin batera, borroka politikotik urruntzen hasi zen. Erroman, Aljerren, Aostan, Lovainan eta Brusselan egin zituen hurrengo urtean, 1978an Hego Euskal Herrira itzuli ahal izan zuen arte.

Zarautzen hartu zuen bizilekua eta bertan sortu zuen, beste bost kiderekin batera, Jakintza Baitha elkarte helenista 1986an. Azken urteotan greko klasikoa izan da Federiko Krutwigen lanaren ardatza. Bilbon bizi da egun.

Getxon jaioa zara eta Bilbon hazia, baina familiaren jatorria urrunagokoa duzu.

Getxon gutxi bizi izan naiz. Hiru edo lau urterekin etorri nintzen Bilbora eta gehienez Bilbo izan da nire bizilekua.

Aita alemana nuen, baina erdia baizik ez, aitaren ama, alemana izanik ere, etorkiz frantsesa baitzen. Amona prusiarra zen, alemana baino gehiago. Gure arbasoak frantses erreboluzioaren garaian Frantziatik Alemaniarat pasatu ziren eta Federiko Handiaren zerbitzuan egon ziren. Nire arbaso bat Prusiaren zerbitzuan jeneral izan zen eta Napoleonen aurka borrokatu zuen.

Amaren arbasoak, berriz, italiarrak ziren, Veneziakoak. Sagredo izen oso ezagutua da Venezian. Sagredo izeneko palazio bat dago gaur egun ere. Krutwig ez da izen ezagutua Alemanian: Kolonian familia bat dago abizen horrekin, eta besterik ez.

Zenbat zineten familian?

Aita, ama, hiru arreba eta ni. Nire amaren semea izan naiz ni. Aita enpresa gizona zen eta berak nahi zuena ez nintzen bilakatu. Ez dut uste asko maite ninduenik. Nire arrebak gehiago maite zituen.

Non egin zenituen lehenengo ikasketak?

Lau urte eta erdi nituela eskola frantses batera joan nintzen, sei urte eta erdiko arrebarekin. Ez zuen bakarrik joan nahi eta biok joan ginen urte berean Bilboko eskola frantses horretara. Espainolez eta frantsesez ikasten genuen.

Eskola frantsesaren ondoren kolegio alemanera joan nintzen. Elitekoa zen. Alemaniako diruz ordaintzen zen normalki. Irakasgai guztiak gainditu behar ziren, bestela utzi egin behar zenuen eskola. Ikasturtearen errepikapenik ez zegoen.

Gerora maisuek ikerketa bat egin zuten hogeitau urte horietan pasatu ziren ikasle guztiek zer lan egin zuten neurtuz. Eta uste dut handik pasa ziren guztietatik nota hoberenak nik ukan nituela.

Eskolan alemana ikasi nuen, han alemanez mintzo ginen eta. Alemanez ongi mintzo nintzen eta orain ere ongi mintzo naiz. Baina ez zen nire hizkuntza. Ni ez nintzen oso alemana sentitzen. Gu etxean espainolez mintzo ginen; alemanez batere ez.

«BIZKAIERAZ HASI NINTZEN IZKIRIATZEN»

Kolegio alemanean 1930eko hamarkadan egon zinen, Alemanian nazismoa indarra hartzen ari zen garaian. Zuen ikasketxean eraginik bazuen horrek?

Gerra zibilagatik Lisboan bizi izan ginelarik ere kolegio alemanean egon nintzen, eta han oso alemanak ziren, Espainian baino gehiago. Uste dut hortik etorri zela nik nire burua aleman ez sentitzea.

Ez zuten horretan enfasia egiten, baina batzuk naziak ziren; bilerak eta egiten zituzten. Ni ez nintzen sartu haien politikan, nazismoaren politika ez nuen maitatzen. Alemanentzat ni traidore edo pertsona galdua nintzen. Orain batzuetan egiten dute hemen ikasle zaharren bilkura eta ni ez naiz joaten.

Alemania ez dut gorrotatzen, zeren kulturaz alemana bainaiz, baina sentimenduz ez naiz nehoiz ere izan alemana.

Frantsesaren eta alemanaren ondoren hasi zinen euskara ikasten. Noiz?

Zortzi urterekin, neskame batekin. Nire aita eskuindarra zen. Ama ez zen anti-euskalduna, baina aitak pentsatzen zuen euskara baliorik gabekoa zela. Gogoratzen naiz batzuetan joaten nintzela ohe azpira liburuekin, aitak jakin ez zezan euskara ikasten ari nintzela. Aitak pentsatzen zuen lagunartean gehiago ibili behar nukeela, ikasten denbora gehiegi egiten nuela, eta batzuetan liburuak kentzen zizkidan.

Euskaraz ikasteko zer liburu erabiltzen zenituen?

Bizkaieraz hasi nintzen izkiriartzen. Euskeltzale Bazkuneko liburuekin eta Zamarriparen bi libururekin: *Gramática del Euskara Vizcaino* eta *Manual del Vascófilo*. Oso liburu onak.

Euskeltzale Bazkunako liburuak euskara sabindarrean idatziak ziren, ezta?

Eta batzuetan halako hizkuntzaz egin nituen itzulpenak, baina berehala ikusi nuen hori amets bat besterik ez zela, eta hasi nintzen egiazko bizkaieraz eta lapurteraz idazten.

Grekoa noiz eta nola ikasi zenuen?

Eskola batzuetan eta nire kontura ikasi nuen. Hamazazpi urte nituenerako behintzat banekien grekoz mintzatzen.

Filosofia liburuak ere oso gazte zinela hasi zinen irakurtzen. Nondik zetorkizun ikasteko grina hori?

Gazte nintzela irakurri nituen Descartes metodoa, Kanten kritikak... Adiskide batek eta nik kalkulatu genuen ikasteko zenbat denbora genuen: zenbat urte bizi gaitzekeen, hainbeste urte hainbeste egun zirela... eta horren batura ez zen oso handia. Gizonaren bizia oso laburra zela ikusi genuen eta, zerbait ikasi nahi bagenuen, ongi aprobe txatu behar genituela egunak.

Orduan ikasteko plan gogorra ezarri genuen, guk geure buruari inposatua, inork kanpotik ezer esan gabe. Autodidakta moduan. «Ikasi behar dugu, hemen zerbait jakin nahi badugu», esaten genion geure buruari. Bostetan jaikitzen nintzen eta ez dakit zenbat orduz ikasten aritzen nintzen: lehenengo hau, gero hura... ordu bakoitzean zer ikasi behar nuen antolatua nuen.

Zer garaitan aritu zinen horrela?

Espainiako gerra baino lehen. Lau edo bost urtetan egin nuen horrelako erregimena.

Lisboara joan zineten gerra piztu zenean. Zergatik Lisboara?

Nire aitak lan egiteko aukera hobea zuen. Bi urte egon nintzen Lisboan, eta portugesa ongi ikasi nuen. Portugesa ama hizkuntza bezala da niretzat: ni arrebeekin portugesez mintzo nintzen; amarekin espainolez baina arrebeekin portugesez.

Gaztelera, euskara, frantsesa, alemana, grekoa, portugesa... Zenbat hizkuntza dazkizu?

Espainolez, portugesez, italieraz, alemanez, ingelesez, greko klasikoan, euskaraz eta frantsesez ongi mintzo naiz. Netherlanderaz ongixe mintzo naiz. Latinez eta pertseraz jakin nuen baina gauza batzuk ahanzi ditut. Eta Asiako beste hizkuntza batzuk ere ikasi nituen, baina kulturaz europarra, grekoa beraz, nintzela ohartu nintzenean, gauza guztiak jakin ez ditzakegunez, utzi egin nituen Ekialdeko hizkuntzak

Greko klasikoa bai, baina modernoa menderatzen duzu?

Irakurtzen badakit, baina saiatzen naiz batez ere greko zahararekin zeren European interesatzen zaigun hizkuntza greko zaharra da, eta ez greko modernoa. Greko modernoa, guretzat, bulgariara edo turkiera bezala da; hizkuntza sinpatikoa da, baina ez da gure kultur hizkuntza.

Lisboara joan zinenerako idazten hasia zinen?

Gerra hasi baino lehen itzulpen batzuk egin nituen. Batez ere Alemaniako literaturako lan batzuk itzuli nituen: Goetheren gauza batzuk... Bizkaieraz idatzi nituen hasierako lan haiek. Orain galduta daude. Ez daude argitaratuta.

Bilbora itzuli zinenean Unibertsitatara joan zinen, ezta?

Merkataritza irakasle ikasten hasi nintzen aurrena, eta gero Deustuko Unibertsitatean egon nintzen urte bi, zuzenbidea ikasten. Baina gero mobilizatu egin ninduten eta ikasketak eten egin nituen. Hemen kostaldean, Bilbon eta Busturialdean, Espainiako soldadu bezala mobilizatua egon nintzen. Zerbitzu militarra oso luzea zen orduan. Lau urte-edo egon nintzen guztira.

Gerraondoko giro frankista horren erdian, nola hasi zitzaizun euskal kontzientzia pizten?

Alemanengandik ondo ezagutzen nuen nazionalitateen arazoa. Beti interesa ukan nuen. Europa guztian nazionalitateen teoria zein zen jakin nuen, eta Euskal Herrian horrelakorik ez zela izan ohartu nintzen. Arana Goirirena ez zen nazionalitateen teoria bat: oso kultura gutiko gizona zen.

Nondik nora eskuratu zenituen Sabino Aranaren obrak?

Nire aitaren txoferra Los Bocheros kantariaren taldekoa zen. Abertzalea zen eta haren bidez hartu nuen *Ami vasco* liburua, eta irakurri nuen. Tontokeria bat zela ikusi nuen.

«BENETAKO ADISKIDE IZAN NUEN AZKUE»

Aitaren bitartez hurbildu zinen Euskaltzaindira.

Nekizkien hizkuntzen diplomak eskatzen ari nintzen, soldadutza etxetik hurbil egitea erraztuko zidatelako. Eta euskarazkoa aitaren bitartez eskatu nion Oleaga euskaltzainari. Nazario Oleaga karlista zen, aitaren laguna. Euskaraz idatziak nituen lanak erakutsi nizkion eta, horiek ikusita, Azkuerengana eramanez ninduen. Orduan ezagutu nuen Resurrección María Azkue, Erribera kaleko 6. zenbakian, Euskaltzaindiaren egoitzan.

Erakutsi nizkion nire lanak, eta harrituta geratu zen. Handik aurrera sarri joan nintzen Azkuerengana. Orduan Azkueren «vasco-español-francés» hiztegia «español-vasco» izatera aldatzen ari ziren Azkue eta Oleaga, eta horretan laguntzen hasi nintzen.

Harreman ona izan zuen Azkuerekin.

Pertsona gutxi izan dute nigan Azkuek eduki zuen garrantzia. Ezagutu nuenean hirurogeita hamar urtetik gora zituen eta, berrogeita hamar urteko aldea genuenez nire aitona izan zitekeen arren, lagun bat izan zen niretzat. Ez zen Akademia-kide bakarrik izan, benetako adiskidea baizik. Iritzi ezberdinak eduki genitzakeen, baina besteak zer esaten zuen adi entzuten genuen. Azkuerekin mintza zitekeen.

Gero zahartu egin zen. Ezagutu nuenean, hasieran, gizon sa-soitsua zen. Berak esaten zuenez, ez zen gizon zahar bat, mutil urtetsu bat baizik.

Bestalde, hasieratik harritu ninduen hain lan handi eta garrantzitsuak egin zituen gizon horrek batzuetan oinarri zientifikorik gabeko iritziak defenditzen zituela ikustea. Gogoan dut Julio Urkijok behin erran zidana: «*Cómo puede ser que un*

hombre que tanto y tan provechoso trabajo ha efectuado, como es Don Resu, en cambio tenga tan poca idea científica?».

Nolako Euskaltzaindiarekin egin zenuen topo?

Azkuerekin Oleaga, Urkijo, Irigarai... zebiltzan. Batzuk kanpoan zeuden, gerraren ondorioz. Jose Maria Areilzak, Mutrikuko konteak, Azkueri esan zionean Akademia berrantolatu behar zela, erbestean zeudenak Akademiatik kanpo uzteko agindu zion. Espainiako Akademian espulatsu egin zituzten erbestean zeudenak eta, Euskaltzaindia Espainiako legeen pean zegoenez gero, hemen ere espulatsu egin behar ziren, eta haien lekuan Erregimenari edo Espainiari atxikitako ordezkioak izendatu. Euskaldun-frantsesak, berriz, bileretara ez deitzeko agindu zion. Eta ez ziren deitzen.

Gero, Euskaltzaindia nola berrantolatu pentsatzen hasi nintzenean, Azkueri eskatu nion erakusteko Areilzaren agindua. Baina agindu idatzirik ez zegoen, hitzez errandakoa baino ez zen.

Euskaltzaindiaren orduko aktetan agertzen denez, Bizkai-ko Diputazioko Kultura Batzordeak eskatu zion Azkueri Euskaltzaindia berrantolatzeko eta hirugarren baldintza bat ere jarri zuten: Diputazioak ordezkari bat izatea Akademiari. Horregatik sartu zen Euskaltzaindian Juan Irigoien.

Azkuek kontatuta dakit Areilzak eskatu ziola. Baina Erregimenaren gizonak ziren batzuk zein besteak, faxistak eta oso eskuindarrak. Hala ere, ez nuke errango Areilza izpirituz faxista zenik. Oso eskuindarra zen, dudarik gabe, baina nire aburuz askoz ere faxistago zen zentzu honetan Calle Iturrino.

Egiazko *fantoche* bat zen Calle Iturrino. Diputazioko Kultura Batzordeko presidentea zela uste dut. Diputazioko enplegatua zelako uste zuen eskubidea zuela Akademia kontrolatzeko. Euskaraz ez zekien. Ez zekien ezer! *Fantoche* bat!

Juan Irigoienekin bitartez saiatzen zen kontrolatzen?

Juan Irigoienek bazekien bere deuseza eta, gizon apala zenez, ez zen sartzen. Baina besteak deus ere ez zekien eta nolabait bere gabeziak Diputazioko kide izatearekin betetzen zituen.

Irigoienek euskal pilotari buruzko liburu bat izkiriatu zuen. Bazekien euskaraz mintzatzen baina ez zekien euskarari buruz. Ez zuen estudiatu ezer. Baina bera konturatzen zen: ez zen *fantoche* bat. Normalean ez zen etortzen Euskaltzaindiaren bileretara. Horregatik, ni berrikuntza prestatzen hasi nintzenean, Euskaltzaindiak deliberatu zuen Akademiatik kanpo uztea. Berak ere ez zuen ikusten bere burua Akademian: gizon zentzuduna zen.

EUSKALTZAINDIAREN BILERAK GAZTELERAZ

Gerraosteko aurreneko bilkura 1941eko apirilaren 28an egin zuen Euskaltzaindiak. Hauxe dio, besteak beste, bilerako aktak: «Erabagiten dabe, bein-beineko ta oraingoz, Euskaltzaindia jaun oneikaz eraturia izan dedila: lengoak, Azkue, Urkijo eta Intzagarai jaunak; barriak Gerra, Zamarripa, Irigoyen eta Oleaga jaunak». Gehienak ezagutu zenituen hurrengo urtean Euskaltzaindira hurbildu zinenen.

Julio Urkijo gizon jantzia zen, Azkue baino jantziagoa. Bere zorrotasunari eta prestakuntza intelektualari esker, *RIEV* aldizkarian lan onak baino ez ziren publikatu eta zabor sasi-zientifiko guztiak baztertzen jakin zuen. Urkijok ez zekien euskaraz mintzatzen, baina gizon jakintsua zen eta bazekien non zeuden bere mentsak eta bere alde indartsuak. Gainera, bere aldizkariaren bitartez euskararen prestigioa goratu zuen.

Nazario Oleaga, idazkaria, oso euskaltzalea zen. Garai hartan euskaltzaleak karlistak ziren. Karlistak euskaraz mintzo ziren eta abertzaleak, berriz, erdaraz. Oleaga bere negozioari buruz bere semeekin beti euskaraz mintzo zen, eta emazteak ez zekien euskaraz. Euskaldunberria zen Oleaga. Zeanurin ikasi zuen bertan epaile zenean.

Pablo Zamarripa ere ezagutu nuen. Karlista zen, Lezama Leguizamonen mendekoa ez baina bezeroa zen —bezero hitza

erromatarren erabiltzen zuten zentzuan—. Gauza guztien gai-
netik karlista, baina oso apala eta oso ona. Zamarripa beti
izan zen folklorista. Hala ere bizkaierazko gramatika bat izki-
riatu zuen, oso ona. Asuan bizi izan zen baina Laredokoa zen,
Laredon sortua.

**Joan Karlos Gerra hil ondoren Inazio Maria Etxaidek har-
tu zuen haren aulkia, 1942ko martxoaren 26ko batzarrean.**

Etxaide oso ongi ezagutu nuen. Politikaz karlista edo inte-
grista zen. Oso euskaltzalea. Badakizu epoka batean euskaraz
mintzatzen ziren pertsonak ez ziren jeltkideak, karlistak baizik.
Familia batean euskaraz mintzo baziren, seguru karlistak zi-
rela.

Gipuzkoako telefono sareko presidentea izan zen, eta horri
buruz liburu bat idatzi zuen: telefoniaren sorrera Gipuzkoan,
edo horrelako zerbait. Jakintsua zen, baina Euskal Herrian
askorekin gertatzen den bezala, ez zuen imajinaziorik. Zentzu
honetan ez nuke errango intelijentea zenik.

Etxaidek teoria bat aurkeztu zuen ergatiboari buruz, eta
Bizkaian, Nafarroan eta Lapurdin egiten den diferentzia ez
zuen aintzat hartzen. Bizkaian «emoten deuat» eta «emoten joat»
erraten da baina Gipuzkoan bi formak nahasten dira: «ematen
diat». Etxaide giputza zen eta diferentzia hori zegoenik ez zekien.
Teoria hori ez zela egiazkoa erran nion.

Haren semea, Jon, zerbitzu militarra egiten ari zen. Or-
duan, berak, jakintzazko gizon prestua baitzen, bere semeari
Bizkaiko bertze soldaduei galdegitea eskatu zion. Ikusi zuen eta:
«En efecto, tiene usted razón», erran zidan.

**Euskaltzaindiko bilerak gazteleraz egiten ziren orduan. Noiz
arte?**

Nik proposatu arte. Urkijo hil zenean proposatu nuen. Ur-
kijok ez zekien euskaraz mintzatzen eta bizi zelarik ez nuen pro-
posatu.

1942tik euskaltzain zarela irakurri izan dizut, baina Akademiaren aktetan dio urte horretan urgazle izendatu zintuztela, eta 1947an euskaltzain oso.

Ez dakit. Diploma hortxe daukazu, ikus dezakezu, Azkue-ren eta Oleagaren sinaduraz: «1942ko urrilaren 29an». 21 urte-ekin, beraz. Urgazle edo euskaltzain oso? Ez dakit. Orduan ez zen horrelako sarrera hitzaldirik egiten, eta nik ere ez nuen egin. Egun batean diploma bat eman zidaten eta diploma bat baizik ez dut ukan, ez bi. Hor dudan hori da.

**Diploman ez du zehazten euskaltzain urgazle edo oso izen-
datu zintuzten, baina aktan hauxe dio: «Federico Krutwig Sa-
gredo euskaltzain urgazle'tzat artzea erabagi da».**

Aktan edo akta berreginean? Orduan idatzitako akta da edo bitartean norbaitek datuak sartu ditu? Beldur naiz geroa-go norbaitek eskua sartu, aktak berrosatu eta, zentzu onean beharbada, historia berregin duen. Bigarren aldi batean izen-
datu baninduten euskaltzain, ez dakit non eta noiz izan zen.

**Euskaltzain oso edo urgazle, errealitatea da 1942tik au-
rrera Euskaltzaindikoko bileretan parte hartu zenuela. Batza-
rretara joanez batzuetan, zure lanak bertara igorritz bestetan.
Akten arabera 1943ko otsailaren 26an izan zinen lehenengoz
Akademiaren batzarrean, eta lan bat irakurri zenuen: «Retro-
ceso del vascuence y remedios».**

Ez dut gogoan baina izan liteke. Problema horretaz beti ar-
duratu izan nintzen. Garai hartan lan oso handi-handi bat
publikatu nuen, aditzaren forma guztiekin: hitanoa, hitatoa, Ipa-
rraldeko zutanoa, xuka... Nik prestatu-rikoko testu batean aditz
forma hauek guztiak agertzen ziren. Orduko konpletoena zen.
Egia erran, urte batzuetan soil-soilik nik prestatu nituen lanen
bidez mintzatu ginen Euskaltzaindian.

«URKIJO ERE LAPURTERA KLASIKOAREN ALDEKOA ZEN»

**1944ko lehenengo bileran «Unificación de los dialectos vas-
cos» lana aurkeztu zenuen. Hara zer dioen orduko aktak: «Ur-**

kijo euskaltzainak dino astiroago irakurri nai leukela lan ori ta olan ebatsi da».

Lapurterazalea baitzen Urkijo. Euskaraz ez zekien baina besteak baino jakintsuagoa zen. Bazekien hizkuntzaren batasuna beti tradizioaren bidez egiten dela. Eta praktika literarioaren bidez sortzen da tradizioa, eta ez zerutik datozen aginduen bitartez, orain batua egiten den bezala.

Literatur hizkuntzaren batasuna proposatzen zuen lehenengo lana izan al zen zure «Unificación de los dialectos vascos» hura?

Ez, Akademia fundatu zutenean, Urkijok eta Iparraldeko batek, ez dakit Broussain ez ote zen, izkiriatu zuten idazki bat erraten tradizioa lapurterak zuela. Lapurtera idatzia bizkaiera baino bi mende zaharragoa da eta bizkaiera 50 urte gipuzkera baino zaharragoa. Nire lana zentzu horretan zihoan.

Nik hasieran bizkaiera sabindarrean idatzi nuen, Oleagak egiten zuen moduan, biok hizkuntza pixka bat puristan. Baina berehala ohartu nintzen oker ari nintzela, eta lapurterako tradizioa ikertzen hasi nintzen: Axularren maila herrikoiko hizkuntza batetik, eta Leizarragaren maila goragoko hizkuntza bestetik.

Gai honi buruz askotan hitz egin nuen bai Azkuerekin eta bai Urkijorekin. Badakizu Azkue gipuzkera osatuaren aldekoa zela baina, Azkuek berak aitortu zidan, ez zuen argudio arrazionalik bere jarrera defenditzeko. Erdian zegoenez egokia iruditzen zitzaiolako, eta tradizioz eta sinpatiaz aukeratu zuen gipuzkera, beste euskalkiekin pixka bat aberastuz.

Azkuek ongi ezagutzen zuen lapurtera klasikoaren aldeko nire eta Urkijoren jarrera, eta behin baino gehiagotan animatu gintuen gurearekin segitzeko: «Ea irabazten duzuen», erraten zidan. Beretzat garrantzitsuena euskara salbatzea zen.

Leizarragaren *Testamentu Berria* izan duzu idazkerarako eredu. Zergatik?

Batez ere Axularren *Gero* dut eredu. Eta lehenagokoa zelako, Leizarragaren *Testamentu Berria*. Hizkuntza guztietan kreatzen dira hizkuntz mailak. Bata da Bibliako maila, bestea eguneroko maila. Horrelako mailak beste dialektoetan ez daude, lapurtera klasikoan baino ez daude.

Orain denok demokratak gara eta guztiok eredu berdinean mintzatu behar dugu elkarrekin. Hizkuntza kulto batean ez da hori gertatzen: honekin hitz hauek erabiltzen dituzu eta harekin beste hauek. Lapurtera klasikoak baditu hizkuntz mailak beste euskalkiek ez dituztenak.

Karlistak edota integristak nagusi ziren orduko Euskaltzaindian. Zer moduz konpontzen zinen eurekin?

Niretzat adiskidetasuna politikaren gainetik dago, harreman pertsonalak politikaren gainetik. Eta, niretzat, Azkue, Oleaga, Urkijo, Etxaide... familiakoak bezala ziren. Oso harreman onak. Aingeru Irigarai ez nuen horrenbeste ikusten, baina oso harreman onak nituen honekin ere.

Bilkurak otoitz batekin hasi eta beste batekin amaitzen zenuzuten. Denak fededunak eta zu, berriz, paganoa.

Garai hartan beharbada gaur egunean baino toleranteagoak ziren arazo horretan. Gainera, nik ez nituen proklamatzeko egunero erlijioaren kontrako aburuak.

Anekdotak bat topatu dit 1944ko martxoaren 31ko aktan. Azkue, Oleaga, Urkijo eta laurok zinetan bilduta, eta «ertzain bi agertzen dira, Euskaltzaindiaren zertzeladak jakin gurean. Egin dabezan itaunari egoki erantzunik, eskaturiko agerbideak emon jakoz». Caro Baroja bisitan agertu zitzaizuen egun hartan, polizien bisitaren ondoren. Gogoratzen?

Bi polizia etorri zirela gomutatzen naiz, baina ahantzia dut Caro Baroja bisitan etorri zitzaigula. Zentsuraren bulegoan bilerarako deialdiaren gutun bat ikusiko zuten, eta uste izango zuten: «*Aquí tenemos una reunión clandestina*», eta agertu ziren poliziak gure bilkura batera. Baina ikusi zutenean nortzuk ginen, Azkue eta, zeri buruz mintzo ginen, eta Areilzaren

eta Diputazioaren baimenez ari ginela... Ohartu ziren haien akats bat izan zela.

GOBERNADOREAREN ADISKIDEA EUSKALTZAIN

1949ko ekainaren 25ean, Seminario de Rojas euskaltzain izendatu zenuten batzarrean, Euskaltzaindia berritzeko txostena egiteko agindu zizun Akademiak.

Seminario de Rojas ezkutu bat izan zen berrikuntza egiteko, ahalmena eta babesa eman baitzigun. Seminario de Rojas faxista zen, Riestra gobernadorearen adiskidea. *El Correo Español* egunkariko zuzendaria edo erredaktore burua zen. Euskaraz bazekien, ez oso ondo, baina beharrezkoa zen bera sartzea, gobernadorearen babesa izateko. Bestela ezinezkoa izango zen Euskaltzaindiaren berregituraketa. Horrela, behin euskaltzain izendatuta, ematen nituen pauso guztien berri ematen nion Seminariori.

Seminario de Rojas euskaltzain izendatzeko jai handia egin genuen Bizkaiko Diputazioan. Inportantea izan zen batzarra: gobernadore zibilak, gobernadore militarrek eta hauek guztiek bi orduz euskara entzun zuten. Gobernadorea euskararen etsaia zen, baina horrelako festa batean ordu bi egonaz geroz, hark ez zuen moralki aurrerantzean euskaldunen kontra joaterik. Lehen aldia zen horrelako zerbait gertatzen zela. Ordura arte hizkuntza madarikatua zen, eta bilkura honen bidez mada-rikazio hori kendu zen.

Une honetan Juan Irigoienek euskaltzain izateari utzi eta Diputazioaren ordezkari Seminario de Rojas izatea erabaki zen.

Baina handik gutxira kendu egin zen Diputazioak ofizialki sudurra sartzeko zuen eskubidea. Ordezkaritza pertsonala izan zuen gero Seminario de Rojasek.

1949ko ekainean hartu zenuen ofizialki Euskaltzaindiaren berrikuntzarako txostena egiteko lana. Baina lehendik hasia zinen, ezta?

Lehenagotik ere hitz egin nuen gai honi buruz Azkuerekin eta, azkenean, Euskaltzaindiaren bilera batean proposamen bat lantzeko eskatu zitzaidan. Eta horretarako, ahal nuenekin harremanetan jartzeko, kanpoan zeuden akademiko ohiekin nahiz euskaltzain euskaldun-frantsesekin.

Norekin ipini zinen harremanetan?

Isidoro Fagoaga tenorearekin aurrena; Donibane Lohizunetik *Gernika* aldizkari humanista publikatzen hasia zen ordu-rako. Euskaltzale asko ezagutzen zituen eta Lafitterekin, Jean Elissalderekin eta abarrekin harremanetan jarri ninduen. Helbideak eman zizkidan. Izkiriatu nion Sebero Altuberi, izkiriatu nion Piarre Lhanderi... Ematen ari nintzen pausoen berri ematen nien beste euskaltzainei, eta pozik zeuden nire lanarekin. Aingeru Irigarai zen beldurtiena. Erraten zuen kontuz ibili behar zela, pixkanaka joan behar genuela, nola deituko genituen frantsesak...

Zein ziren berrikuntzarako zure proposamenaren ardatzak?

Batetik, euskaldun-frantsesak deitzea berriro eta Erregimenaren aginduz Euskaltzainditik bidalitako erbesteratuek aulkia berreskuratzea. Hori debekatzen zuen agindu idatzirik ez zegoelako erabaki nuen horrela jokatzeko. Bestetik, 12 euskaltzain izatetik 18 izatera pasatzea, euskaltzain berri Saint Pierre, Lafitte, Lafon, Dassance eta Lekuona izendatzea, euskalkietako ordezkaritzen gutxieneko bat zehaztea (bi bizkaitar, bi gipuzkoar, bi lapurtar, nafar bat, baxenafar bat eta zuberotar bat) eta gainerakoak euren merituengatik hautatzea.

Txostena aurkeztu nuen bilerara aspaldian agertu gabeko batzuk etorri ziren: Pierre Lhande, Jean Elissalde eta Bonifacio Etxegarai —erbestetik itzuli berria—, adibidez. Lafitte ere han zen, urgazle zen orduan. Eta txosteneko proposamen guztiak onartu ziren.

12tik 18ra esan duzu. Baina ordurako 13 euskaltzain zinetela irakurri dut.

Ez da zuzena. Gerraren ondoren eta nik txostena egin aurretik, erbesteratuek (Altube, Inza eta abar) Euskaltzainditik kan-

po zeuden. Garai hartako Euskaltzaindian ez genekien horietako batzuk non zeuden ezta bizirik ote zeuden ere. Orduan Euskaltzaindian sartu ginenok —Etxaide, Irigarai, Seminario de Rojas eta neuk— libre geratutako aulkiak hartu genituen. Beraz, ez zen ordurarte inoiz hamabi euskaltzain baino gehiago izan. Gainera, ez zegoen esaterik nork hartu zuen noren lekua. Berrikuntzarako nire txostenaren ondoren berreskuratutuzten euren aulkiak erbesteratuek.

ZAITEGI ETA ORIXE HASERRE

Izendapen berrietan Iparraldekoak ziren ia guztiak. Zergatik?

Ez ziren euskalkiko ordezkari gisa hautatu, euren merituenatik baizik. Prestigioko jendea ekarri behar zela pentsatu nuen, ondo izkiriartzen zuen jendea. Adibidez, hor Dassance Eskualtzaleen Biltzarreko presidentearekin tronpatu nintzen, ez baitzuen ongi izkiriartzen. Baina Saint Pierrek ondo izkiriartzen zuen euskaraz, eta Lafonek, Lafittek eta Lekuona zaharrak ere bai. Gainera, Iparraldekoak garbizalekeriaren bizioetatik libre zeuden.

Bestalde, Lafon hautatua izan zedin argudio bereziak erabili behar izan nituen, gaskoina baitzen. Gainera, komunista zen joera politikoz, baina hori isildu egin nuen noski. Bestela beldurtuko ziren euskaltzain zaharrak.

Iparraldekoiei berriro atea zabaltzeagatik eta erbestean zeudenak lekua berreskuratzeagatik ez zenuten arazo politikorik izan?

Ni eskuindar baten semea nintzen. Agintariek errango zuten: «*A ese le importa la lingüística. Ese, como es hijo de Krutwig, no puede ser separatista*». Gainera, Seminario de Rojasi urrats guztien berri ematen nion, eta denarekin konforme zegoen.

Berrikuntzaren kontrako iritzirik agertu zen, dena den. Hara zer zioen, esate baterako, *Euzko Gogoa* aldizkariak 1951ko editorial batean: «Iru edo lau adiskide vascuencistak elkar arturik egiazko Euskalerrinari, gure idazleri eta jakintsueri jaramonik egin gabe, jauntxoaren menpean Euskaltzaindia era-

berritu nai izan dute. Etzitzaien aski iruditzen aldegiñeri eta illeri ordezkoak ipintzea...». Atzerriko idazleen artean beste Euskaltzaindi bat sortzea proposatzen zuen editorialak bukaeran.

Euzko Gogoa Jokin Zaitegiren aldizkaria zen. Oso oso euskaltzalea zen. Ez zen gure aburukoa, garbizalea zen, baina euskaltzalea. Badakizu hemen bi garbizalekeria egon direla: bata, Arana Goiriren garbizalekeria, eta bestea, Azkuerena. Zaitegi garbizalea zen Azkueren bidetik.

Ni ez nintzen etsai, antagonista baizik. Beste aburu batzuk nituen, baina ni ez nengoen Zaitegiren kontra, berak defenditzen zituen ideia batzuen kontra baizik.

Orixek ere gogor kritikatu zuen zure jokaera aldizkari berean. Hauxe zioen, besteak beste: «Zertarako autarazi zenituen Prantzi aldeko euskaldunak irutatik bat baitziran 36garrenean, aien Euskalerrria irutatik bat izan gabe, eta zergatik ez zenuen autarazi bizkaitar bat bera ere?».

Ez dakit zergatik zioen hori. Bizkaitik bazeuden bi.

Orixe *jebozalea* zen. Harentzat euskara *jeboen* mintzoa zen. Nik horregatik erran nuen *Euskaldunak* obra jebismoaren apologia zela. Harentzat euskaldunak herrietan, mendietan, baserrietan bizi ziren, hura zen bere Euskal Herria.

Gernika aldizkarian gutun bat izkiriatu nuen erranez euskara atera behar zela jebismo egoera horretatik, mintzaira kultura bilakatu behar zela. Erran nuen Euskal Herrian aristokrata ziren guztiak euskaldundu beharko genituzkeela; goiko klase sozialaren pertsona bat euskalduntzea askoz ere inportanteagoa zela hamar *jeb*o euskalduntzea baino. Eta hori Orixearentzat izan zen laido bat bezala. Nirekin haserretu zen.

Nik ez nuen zuzenean ezagutu, baina bi aldiz izan nuen gutun harremana berarekin; *Gernika* aldizkariako zuzendariak, Isidoro Fagoagak, lortu zuen hori. Fagoagak nahi zuen bere kolaboratzaileak adiskideak izatea, eta horregatik lortu zuen Orixe niri izkiriitzea. Baina harremanak ez zuen askorik iraun.

Bertzalde, Azkuek ez zuen Orixeri buruzko iritzi onik. Hamaika aldiz hitz egin zidan Orixeri buruz mespretxuz.

Euskaltzaindian zenbiltzan bitartean hasi zinen artikuluak eta poemak idazten *Gernika* aldizkarian eta *Euzko Gogoa*-n batik bat.

Zaitegirekin harreman onak nituen. Polemika izan nuen berarekin baina oso adiskideak ginen.

Orixek, adibidez, euskara baserritarrekin mintzatzeko besterik ez zuen erabiltzen, baina Zaitegi erabat kontrakoa zen: euskararen literatur prestigioa goratu nahi zuen eta horretarako Platon euskarara itzultzen hasi zen. Itzulpen hauen arazoa zen Azkueren arauari jarraituz nahi zituela egin, hau da, hizkuntza herrikoiean nahi zuen gai filosofikoei buruz mintzo, eta hori ezinezkoa da.

Gernika-ko zuzendaria Isidoro Fagoaga zen, Berako tenore ezaguna. Liberala zen, eta liberalismoaren eta humanismoaren izpirituekin ahalegindu zen *Gernika* errebista aurrera ateratzen. Bere poltsikotik ordaintzen zuen eta Donibane Lohizunen argitaratu. Artikulu batzuk idatzi nituen nik eta kolaboratzaile batzuk ere lortu nizkion.

«NEGURITARRAK EUSKARA IKASTERA ZETOZEN GUREGANA»

Nuevo Ateneo izeneko erakundea sortu zenuten Bilbon garai hartan. Nortzuk biltzen zineten Ateneoan?

Kulturarekin interesa zuten hiru taldetako kideen artean sortu genuen: gerra aurretik Alea kultur taldearen inguruan bildutako jendea zegoen batetik, Blas de Otero haien artean, Mikel pintore taldekoak, Uranga, Ajuria eta beste, eta aristokrazia espainolistako Antonio Mentxaka, Adolfo Careaga eta neguritar batzuk. Mentxaka eta Careaga liberalak ziren; eskuindarrak bai baina frankistak ez. Orduan europarzaletasuna hasi ginen bultzatzen.

Ateneo Berriaren sorreran parte zuzena izan ez bazuten ere, euskal gaietan interesa zuten zenbait ibiltzen zen Ateneoan:

Bernardo Garro, Miguel Arruza eta abar. Geroago Lino Akeso-
lo eta Imanol Berriatua erlijiosoak etorri ziren, eta Aita Villa-
sante ere bai noizbait.

Espainolista eskuindarrekin, Adolfo Careaga ezagunarekin adibidez, ondo konpontzen zinen?

Oso ondo. Antifrankistak ziren; espainolistak baina libera-
lak. Eta europarzialeak, ni bezala. Erbesteratua nengoela eta ja-
danik *Vasconia* idatzia nuela, Miarritzen topatu nuen Adolfo.
Irakurria zuen *Vasconia* eta bazirudien ez zegoela nirekin hase-
re liburuagatik. Areago, han zegoen bere lagun bati liburua ira-
kurtzeko gomendatu zion. Handik urte askotara, erbestetik
itzuli nintzenean, Adolfo Careaga izan zen lehenengo bisitatu
ninduen.

Mikeldi pintore taldearen inguruan ere ibili zinen. Pintatu ere egiten zenuen, beraz.

Batzuetan. Gero erbestera joan nintzenean, nire arrebek
hartu zituzten nire margoak eta galdu egin dira guztiak. Den-
bora pasa margotzen nuen, baina ezagutzen nituen teknikak
eta. Nik izkiriatu nuen lehen gauza euskal pinturari buruzko
kritika bat izan zen, Liverpooleko Unibertsitatearentzat.

Julio Urkijo Institutuaren sorreran ere hartu zenuen parte.

Ateneoaren barruan fundatu genuen. Sekzio ezberdinak zi-
tuen. Artearen Zientziaren sekzioaren lehendakari, adibidez,
Blas de Otero jarri genuen. Filologia sekzioan sekzio euskaldun
bat osatzeko ideia aurkeztu nien, eta hala egin genuen, Euskal-
tzaindiaren babesean nolabait. Esan genuen: «Hemen jakint-
zari buruz espainolez mintzatzen da. Egin dezagun beste gau-
za bat: euskaraz mintzo gaitezen jakintzari buruz». Ordurarte
laborategiko hizkuntza izan zen euskara, ikerketen objektu bai-
zik ez, baina guk gai zientifikoetarako lan hizkuntza bilakatu
nahi genuen. Gure arteko eztabaidak ere euskaraz egitea de-
liberatu genuen.

Horrela, gainera, purismoa erabilgarria ez dela frogatuko
genuen. Zuk euskara erabiltzen baduzu, nahitaez ezin duzu pu-

rista izan. Purismoa, praktikan, ezina da. Orduan, zientziaren disziplina ezberdinak euskaraz lantzeko bildu ginen.

Euskara hizkuntza ofizialtzat hartu genuen. Eta hau lehen aldiz gertatu zen Euskal Herrian. Garrok erran zidan: «Orainarte nehoiz Euskal Herrian ez da izan horrelako sozietate bat zeinaren hizkuntza ofiziala euskara den». Gainera, nola Ateneoaren zati bat euskarazkoa zen, zuzendaritza orokorra bilinguala izan zen. Eta han zeuden faxistek, eskuindarrek eta guztiek onartu zuten hori.

Gure asmoen berri EAJko edo Euskal Gobernamentuko erresistentziako jendeari azaldu genion eta behin Euskaltzaindiko egoitzara etorri ziren bizpahiru ordezkari. Arruzak eta biok euskaraz azaldu genien zer egin genuen eta zer helburu genituen. Ez dakit azaldu geniena ulertu zuten, baina guri gazteleraz erantzun ziguten.

Zuen Institutuaz aparte bazen beste gune euskaltzalerik Bilbon edo inguruan? Arruzak, adibidez, ez zuen euskara irakasteko eskola bat?

Ez dut uste beste gunerik zegoenik. Eta Arruza gurekin hasi zen. Julio Urkijo Institutuaren bidez euskarazko klaseak ere antolatu genituen, eta han aritzen ziren Arruza eta beste batzuk. Garrok ere ematen zituen eskolak. Erribera karrikan genuen euskal akademiaren egoitza eta hara etortzen ziren euskara ikasi nahi zutenak. Neguritarrak ere, espainolzale aberatsen semeak, euskara ikastera etortzen ziren guregana. Julio Urkijo erakundeko asko espainolzale ziren, baina ez ziren euskararen etsai. Nehor ez zegoen gure kultur planteamenduen aurka.

Azkue hil zenean berari buruz konferentzia batzuk antolatu genituen Ateneo Berrian, euskaraz, eta neguritarrak etorri ziren. Berehala, biharamunean Bermeon bazekiten guregana Euskal Herriko jende dotorea etorri zela euskaraz entzutera, eta ez hemengo *jebo* gizarajoak: neguritarrek gure hizkuntza onartu zuten; prestigio sozialaren garaipena.

Beti eman diozu garrantzia hizkuntzaren prestigio sozialari.

Gizon guztiok ez gara berdinak ez intelektualki eta ez sozialki. Hizkuntzak prestigio handiagoa du garaileek mintzatzen badute. Ingelesa joan den mendean oso hizkuntza zatarra zen; baina orain, gerran garailearen hizkuntza izan baitzen, hizkuntza polita da amerikarren bitartez. Gauza bera sozietate guztietan: Euskal Herrian, hiri batean mintzatzen den hizkuntza politagoa da baserritarren artean mintzo den hizkuntza baino. Eta hiritarren artean, aristokraten hizkuntza politagoa da besteen hizkuntza baino.

«NAZIEK MAITE ZITUZTEN ORDUKO EUSKAL ABERTZALEAK»

Zuen planteamendu euskaltzaleak onarpena zuen, beraz, garaileen artean ere, giro espainolzalean alegia.

Gure izpiritua nazionalista zen, baina nazionalismo hori kulturala zen, Europan hitz hau erabiltzen den zentzuan. Europan nazionalismoa betidanik kultur problema bat izan da. Gure planteamenduaren arabera, euskaldungoaren lehen faktore nazionala euskara zen, eta bigarren faktorea kultura. Eta goi kulturako euskaldunentzat grekoa da kultura, Europa osoan bezala. Eta bertze faktoreak historia eta arraza dira. Arruza eta Garro nirekin akort zeuden.

Gure nazionalismoak ez zuen zerikusirik Arana Goirirenarekin. Arana Goirik nazio-estatalismoa sortu nahi zuen: euskal arraza baten estatu bat. Lau deitura euskaldun zituztenen estatua. Hori ez da egiazko nazionalismoa. Tontokeria bat da, ez da jakintzazko planteamendua. Aranak ez zekien euskaraz mintzatzen eta harentzat arraza inportanteagoa zen. Horregatik aleman naziek maite zituzten orduko euskal abertzaleak.

Zergatik diozu hori?

Erbesteratu ondoren Parisen bizi nintzela, Alemaniara joan nintzen bisitaldi batean. Jagi-jagiko Lezo Urreiztietak erran zidan Alemaniara banindoan, pertsona jakin bat bisitatzeko. Joan nintzaion. Walther Nährich zen. Badakizu nor zen Walther Nährich? Alemanen okupazioaren denboran Britainiatik frente Atlantiko guztian Gestapoko buruzagi goren! Euskal-

dunak maite zituen! Euskaltzalea! Bere arrazakideak ginen nolabait.

Erran zidan: «Euskal Herrian espainol gorrien artean gu bezalako naziak daudela ikusi dugu». Francok estradizioak eskatu zituen baina haren protekzioarekin, aleman naziek ez zioten euskaldun bat Francori eman. Hori baino gehiago: naziek hemengo mugan euskaraz zekiten mugazain batzuk ezarri zituzten. Euskaldunen eta nazien arteko harremanak oso estuak izan dira.

Euskaldunak diozunean nori buruz ari zara?

Abertzaleak, EAJkoak. Aranismoa teoria arrazista zelako gertatzen zen hori.

Ateneoan eta beste hainbat lekutan Blas de Oterorekin ibili izan zinen 1940ko hamarkadan Bilbon. Nola ezagutu zenuen?

Blas de Otero nire adiskide handia izan zen. Hiruzpalau urtetan bere hurbileneko laguna izan nintzela erran dezaket. Ez naiz gogoratzen nola ezagutu nuen, baina ia seguru nago Luis Manzarbeitia eta Manolo Ortiz de Artiñanoren bitartez izan zela. Udan Gorlizera joaten nintzen eta bi bilbotar hauek Gorlizeko gure lagun taldean ibiltzen ziren. Blas de Otero ez dut Gorlizan gogoratzen, baina hauen bitartez ezagutuko nuen, Manzarbeitia Blas de Oteroren lagunmina baitzen. Manzarbeitia honek «el viudo» erraten zion Blas de Oterori. Berak esaten zuenez, betaurreko ilunekin hain serio ibiltzen zen beti bazirudiela emazte maitea hil zitzaiola.

Manzarbeitia, Blas de Otero eta beste zenbait lagun Café Toledo-n biltzen ginen afalosteetan, hizketan egiteko. Denetarik mintzo ginen. Blas de Otero eta biok sarritan elkartzen ginen bere edo nire etxean ere. Blas orduan eboluzio aroan zegoela errango nuke: Juventud Católica-ren propaganda burua edo horrelako zerbait izan zen aurretik. Eta denbora pixka bat bazen Arrasateko eroetxea utzi zuenetik: anorexia zuelako sartu zuten bertan. Baina nik ezagutu nuenerako sendatua zegoen, poesia liburuaren bat idatzia zuen eta Alea taldeko kide ere izan zen.

Blas de Otero askotan etortzen zitzaidan etxera, poema berri bat izkiriatu zuela eta entzutea nahi zuelako. Musika klasiko-ko disko bat jartzen zuen irakurtzen hasi aurretik.

Redoble de Conciencia liburuko azken poema niri dedikatu zidan, hain zuzen. Nik testu indio bat, uste dut bengalieraz zegoela jatorrian, irakurri eta itzuli nion eta Blasi asko gustatu zitzaion. Gaztelera landu zuen eta horrela dedikatu zidan.

Gerora ere harremanetan segitu zenuen Blas de Oterorekin?

Ez. 1950-51 inguruan PCEkoak harremanetan ipini ziren Blasekin, eta bere artista lana herriaren onerako egin behar zuela konbentzitu zuten. Ez dakit zer erran zioten komunistek bere misioari buruz, baina kontua da egun batetik bestera nirekin mintzatzeari utzi ziola, besterik gabe. Gero esan zitzaidanez, PCEkoek erran zioten aristokratizatzaileegia nintzela. Handik gutxira erbestera egin nintzen eta ez nuen ezer gehiagorik jakin Blas de Oterori buruz.

Oteiza ere ezagutu zenuen garai hartan.

Rafael Figueraren etxean ezagutu nuen Jorge Oteiza, Hego Amerikatik iritsi berria zela. Eskultore baino berritsua zen Oteiza, *charlista*. Lau dimentsioko mundu negatibo-hiperboliokoaren teoria defenditzen zuen orduan eta, inguruan zituen pintoreak analfabeto samarrak zirenez, aho zabalik entzuten zioten. Fisika Berriari buruzko libururen bat irakurri berria izango zuen, eta horretaz aritzen zen. Irrazional samarrak ziren Oteizaren azalpenak, baina grazia handia zuen.

HITZALDI BATEAN ELIZA KRITIKATZEAGATIK ERBESTERATUA

Itzul gaitzen Euskaltzaindira. Azkue hiltzen ikusi zenuen, ezta?

Badakizu ibaira erori zela, Arriaga Antzokiaren atzera. Handik pasa zen nafar batek lortu zuen uretatik ateratzea. Bazirudien ez zitzaiola ezer gertatu, egun batzuetara itzuli egin baitzen Akademiara lanera. Baina ibaiko ura irentsi egin zuen, ur pozoindua, eta gaixotu egin zen. Egun batean joan nintzaion

etxera ikusterat. Ohean zegoen, eta ondoan Gregorio Maidagan zuen, bere lagun apeza, idazkari pertsonal zuena. Eta biok harekin geundela, une horretan hil egin zen.

Hurrengo urtean, 1952an, Villasante euskaltzain hautatzea zuk proposatu zenuen?

Villasante ezagutzen nuen. Askotan etortzen zen nirekin mintzatzera, nire gurasoen etxera. Orduan frantziskotarren probintziala aita Lete zen: oso gizon aurrerazalea. Elizan dena erdaraz egiten zen, baina frantziskotarren artean baziren euskaraz aritzen ziren batzuk. Frantziskotarren ordenako norbait nahi izan genuen Euskaltzaindian sartu, orden horretan euskarra erabiliagoa izan zedin. Eta euskaraz aritzen ziren frantziskotarren artean zeuden Luis Villasante eta Imanol Berriatua. Leterekin hitz egin genuen eta Villasante hautatu genuen.

Villasanteren sarrera hitzaldiari erantzun zorrotza eman zenion, Elizak euskararekin zuen jarrera gogor kritikatu. Hitzaldi ausarta garai haietarako.

Liburu batzuk banituen alemanez eta banekien Eliza, Polonian-eta, beti prestatu zela hizkuntza nazionalen alde. Horri buruz hemengo apezek baino gehiago nekien. Orduan, azaldu nuen aita saindu hark zera erran zuela, beste hark beste hura... Eta hemengo Elizak hizkuntzarekin zuen jarrera kritikatu nuen. Eliza kritikatu nuen, ez Estatua.

Hitzaldi horren ondorioz erbestera jo behar izan zenuen.

Ajuriagerrak nire aitaren bitartez abisatu zidan denboraldi baterako joan egin beharko nuela. Gero aitari proposamenak egin zizkioten, itzultzeko aukera emanaz, lehen esandakoaren kontra hitzaldiren batzuk egiten banituen. Gainera, ongi ordainduko zizkidaten hitzaldi horiek. Erabaki nuen kanpoan gelditzea.

Seminario Rojasen babesa, adiskide eskuindarrak, Krutwig abizena... horrek guztiak ez zizun lagundu hemen geratu ahal izateko?

Nahi banuen geldituko nintzen, baina ni ez nintzen nire buruaren traidore.

Haserrea piztu zuen zure hitzaldiak Administrazioan. Eta Euskaltzaindian?

Gobernadorearen izenean eta Seminario de Rojasen bitartez ni Euskaltzainditik botatzeko agindua heldu zen, baina Euskaltzaindiak uko egin zion. Garai hartan, ni neu nintzen publiko aurrean Euskaltzaindia osoa baino gehiago.

«EUSKO JAURLARITZAK EZ ZUEN EZER EGITEN»

Lehenengo Donibane Lohizunera joan zinen. Jagi-jagikoak ezagutu zenituen.

Oso sinpatikoak ziren. Beti izan dira oso sinpatikoak. Gauza batzuetan zabalagoak izan ziren EAJkoak baino. Baina oso denbora laburra egin nuen Donibane Lohizunen, bizpahiru hilabete. Berehala Parisera joan nintzen.

Giroz erabat aldatu zenuen. Bilbotik, inguru ez abertzale batetik, Lapurdira, errefuxiatu arteko giro oso abertzalera.

Eskualduna hotelera joan nintzen, eta han egoten zen Jagi-jagiko Lezo Urreiztieta. Nire adiskide mina bilakatu zen. Galdetzen nion EAJkoak zergatik zeuden haserre nirekin, ni ez bainintzen nehoiz sartu nehoren kontra. Lezok erantzun zidan: «*Que no? Usted se ha metido a trabajar el vascuence, que para el PNV es su coto privado*». Nik euskararen alde egin nuena ez zen aintzat hartzekoa; nire kontra jokatzeko zuen horrek EAJren aurrean. Euskarari buruz tontokeriak esatea zen orduan EAJren barruti pribatua.

Parisera joan ondoren ere izan zenuen harremanik Lezo Urreiztietarekin, ezta?

Jagi-jagiko jendearekin eta mintzatzen, altxamendu armatu baten plana egiten hasi nintzen. Lezo Urreiztieta Parisen izaten zen sarri, eta ados zegoen. Gauzak prestatzen aritu ginen baina azkenean ez zuen aurrera egin.

Eusko Jaurlaritzako jendea ere ezagutu zenuen Parisen, Singer kaleko egoitzan.

Irujorekin izan nuen harremana. Oso sinpatikoa zen. Eta haren bidez pertsona batzuk ezagutu nituen.

EAJ eta Eusko Jaurlaritzza oso gogor kritikatu zenituen gero. Orduan, hauekin harreman zuzena zeneukanean ere, kritika hauek egiten zenizkien?

Ordurako konturatu nintzen Eusko Jaurlaritzak ez zuela ezer egiten. Amerikatik dirua hartzen zuten euren bizimodua ordaintzeko. Agirrek pentsatzen zuen jenio bat zela politikan, baina amerikarrak Francorengana hurbildu zirenean, Euskal Gobernamentuak ematen zitzaion dirua kendu zitzaion. Dirurik gabe geratu ziren amerikarren interesak aldatu zirenean. Beti esaten dut Euskal Gobernamentuak uste zuela Singer kaleko egoitzaren atarian eserita zain egonda noizbait Francoren gorpua euren aurretik pasako zela.

1956ko Parisko Euskal Biltzarrean gerrila borroka defendituz txostena irakurri omen zenuen. Biltzarrean EAJren eta Jaurlaritzaren politika kritikatu zuen gutxietakoa izan zirela dio Txillardegik elkarrizketa liburu batean.

Nik ez dut sinesten pertsonalitatearen banatzean. Ni orduan jadanik Alemanian bizi nintzen eta ezkondua nintzen, Kolonian. Hala ere, batzuk ni Parisen egon nintzela erraten dute, gero ETA sortuko zuten gazteek han aurkitu nindutela eta ni orduan ETAREN bultzatzaile izan nintzela. Han irakurri ziren testu batzuk ere erakutsi izan dizkidate, nireak zirela erranez. Eta gogoratzen dut idatzi nituela. Baina leku ezberdinetan berdenboran pertsona bakarra ezin da izan. Ni Alemanian nengo: gorputzaren parte bat Alemanian eta gorputzaren beste parte bat Parisen? Presentzia izpirituala izango nuen, nire testuak han izan baziren.

«MIRANDE NEOPAGANOA ZEN ETA NI ANTZINAKO PAGANOA»

Jon Miranderekin egin zenuen topo Pariseko egonaldian, Alemaniara joan aurretik.

Mirande gauza batzuetan probokatzaille bat zen. Nazi anti-judua zen eta, egun batean, Pariseko *ghetto*-ra joan ginelarik, han kantatu alemanak, faxisten aldekoak, kantatu zituen. Esan nion kontuan hartzeko ni kanpotarra nintzela; berak hiritartasun frantsesa zuela eta bere kontra ez zutela ezer egingo, baina nire kontra bai.

Gero, 1963an *Vasconia* argitaratu nuenean, haserretu egin zen nirekin. *Vasconia* Miangolarrak ordaindu zuen. *Vasconia* atera baino lehen Mirandereren liburu bat argitaratzekoa zen Miangolarra, baina nola nire liburua lehenago atera zuen, Mirande haserretu egin zen: «*Rojo! El dinero de Moscu!*», erraten zidan. Baina Mirandek bazekien ez zela Moskuko dirua izan, Miangolarrak ordaindu zuela baizik. Ez dakit Mirandek zehazki zer publikatu nahi zuen; poesia batzuk ziren. Ez dut uste gero publikatu zituenik.

Moralez eta sinismenez euskal kulturako giroa erabat kristautaua zelarik, Mirande eta biok hautsi egin zenuten horrekin.

Mirande faxista zen, eta faxista zelako nazizalea. Alemanak beti herri minoritateen alde zeuden, batez ere bretoien alde. Eta Mirandek oso ongi zekien bretoieraz mintzatzen, bretoiek baino hobekiago. Bretoieraren bidez lagun faxistak zituen. Faxistak nolabait neopaganoak ziren, eta Mirande ere neopaganoa izan zen.

Zerikusirik ez zuten zure paganismoak eta Miranderenak?

Ez. Beti erran dut nirea veteropaganismoa dela. Antzinako paganismoa. Nire paganismoa ez zen nazien ikuspuntukoa. Nazia paganismoaren iluna da, eta nik maite nuen paganismoa Erromako eta Greziako paganismo argitsua zen.

Moral kristauarekin hausteko bide horretan filosofo alemanek eraginik izan zuten zuregan Miranderengan bezala?

Mirande ezagutu baino lehen irakurriak nituen Schopenhauer eta Nietzsche. Eta Kanten obrak ere bai. Guk europar giroa sartu nahi genuen, Ortegak Espainian egin zuen bezala. Schopenhauer ere paganoa zen, batez ere hinduzalea. Ni ere

hinduzalea izan nintzen... Gure mundua ez zen Elizaren mundu hertsia.

Gaztetandik filosofia irakurri izan zenuen. Gero zure pentsaeran zer filosofok izan dute eragin handiena?

Nik beti maite izan dut Schopenhauer, hori dudarik gabe. Kant eta Schopenhauer. Nietzsche baino gehiago. Nietzsche niretzat poeta zen, literatur gizona.

Parisen egin zenituen hiru urteetan (1952-1955) Ekialdeko hizkuntzak ikasi zenituen Unibertsitatean. Baina filosofia indiarrekiko eta bereziki budismoarekiko interesa lehendik zetorkizun.

Bilboko urteetan interes handia nuen budismoan eta baita filosofia indiarren beste zenbait arloetan ere, hinduismoaren beste adierazpen batzuetan. Beti indiazale izan nintzen, eta aspaldi Indiara joateko asmoa nuen. Ateneoaren garaian, Ekialdeko ikasketekin benetako interesa genuen jendea biltzea erabaki genuen. Uste dut astero biltzen ginela Fernando Lezama Leguizamonen Algortako etxean Fernando bera, aita Gorostiaga eta hirurok. Gai hauei buruzko biblioteka aberatsa zeukan Fernandok. Parisera joan nintzenerako indiarren filosofia ondo ezagutzen nuen, eta pertsera, hindustanera eta tamileraz hizkuntzak ikasten hasi nintzen.

Gero, Alemaniako Essenera joan nintzelarik, komunitate budistarekin harremanetan egon nintzen; nire burua budistatzat nuen. Atzerritarren klub bat bazen han: talde nazionaletan zatituta zegoen eta ni talde indiarrean sartu nintzen. Haiekin ospatzen nituen jai nazionalak eta erlijiosoak. Esseneko garaitik klub indiarrekoa da gomutarik onena.

Zertan aritu zinen Alemanian?

Alemanian ezkondu egin nintzen, eta dibortziatu gero. Ez dut oroitzapen onik. Alemanian bizi izan nituen urteak nire bizitzatik ezabatu nahi ditut.

«MIANGOLARRAK ESKATU ZIDAN VASCONIA IDAZTEKO»

Jauzi bat egingo dugu orduan. 1960an Euskal Herrira itzuli zinen, Miarritzera. Gai politikoetan buru-belarri sartu zinen orduan.

Nik orduan oso adiskide nituen Marc Legasse eta Miangolarra. KLM izena ipini genion hirukoteari: Krutwig, Legasse eta Miangolarra. Eztabaidatzeko bilerak egiten genituen, eta kezkatzen hasi nintzen nazionalismoaren egoerarekin. Horregatik publikatu nuen *Vasconia*.

Zerk eraginda erabaki zenuen *Vasconia* idaztea?

Miangolarrak eskatu zidan: «Hemen egiten den nazionalismoa hilda dago, europar erako nazionalismoa sortu beharra dago hemen, nazionalismo progresista, eta zeu zara hori idatz dezakeen bakarra». Askotan biltzen ginen Donibane Lohizunen kaian, hondartzaren aurrean, eta mintzo eta mintzo. Berak ordaindu zuen liburua eta nik publikatu nuen, Fernando Sarrailh de Ihartza ezizenarekin.

Nik beti erran nuen ni ez nintzela egilea. Baina batzuek bazuten interesa jakinarazteko ni nintzela. Orduan baziren telefono entzuketak eta EAJko batzuek, telefonoz mintzatzean, beti erraten zuten: «Oye Sarrailh...». Beti, Frantziako Gobernuak jakin zezan ni Sarrailh nintzela. Beraz, nolabait, nire espultsioa Frantziatik EAJk eragina da.

Nor zen Miangolarra?

Nire adiskidea zen Paco Miangolarra. Miarritzen ezagutu nuen. Bere aita Itsas Armadako kapitaina zen eta Venezuelara joan zen. Paco Miangolarrak negozioak egiteko bazuen jenio bat, lan handia egin zuen eta Venezuelan fundatu zuen gero Hego Amerika osoko inprimategi handiena izango zena. Dirua egin zuen. Zuzendari nagusi bat zuen inprimategiaren kargu eta bera Euskal Herrian sarri izaten zen. Uste dut Jagi-jagitarra zela.

***Vasconia* idazteko zure oinarriak zein izan ziren?**

Nik banekien nolakoak ziren Europako nazionalismoak. Egoera ekonomikoa nola zen aztertu nuen, nola zen egoera nazionala, teoria nola aplikatu hor... Nazionalismo ezkertiar moderno bat zer den izkiriatu nuen.

Eragin handiena *Bélica* parteak izan zuen: nola antolatu behar ziren gerrilak, nola egin gerra eta abar. Izan ere, hauek dena gaizki egiten zuten. Adibidez, saiatu ziren Madrildik Donostiara zihoan tren deskarrilatzen. Eta azken momentuan, «bai, baina ez...». Edo egiten dira edo ez dira egiten, baina ezin dira erdizka egin. Ez zuten ezer lortu. Apez ttipien talde bat besterik ez zen. ETA, ordura arte, mugimendu demokratikista zen, giristino iraultzaileak ziren.

Zer zenion, funtsean, *Bélica* atalean?

Azken momentuan eta beharrezkoa baldin bada, pentsatu behar dugu gauza batzuk indarrez lortu behar direla. Nik indarkeria, bortxa, ez dut maite, baina hil edo biziko egoeran bazaude... Une horretan beharrezkoa zen. Clausewitzek esaten du: «Gerra egin behar da. Ez dut atsegin, baina ez dut beste erremediorik! Edo hiltzen naiz edo gerra egiten dut!».

Espainolak asko mintzo dira euskaldunen kontra, baina ETAREN ekintza historikoa izan da. ETAREN ekintzarik gabe euskaldunak aspaldi desageri ziren.

«VASCONIA EZ ZEN E.T.A.-REN BIBLIA»

Azaldu, labur, beste sei ataletan zer zenion: *Etnica, Económica, Dinámica, Histórica, Política* eta *Dialéctica*.

Lehenengoan, *Etnica* partean, ezarri nuen zer den nazionalitate bat, zein faktorek definitzen duten. Faktore nagusia hizkuntza da, bigarrena kultura, hirugarren historia, erdizka, eta gero badaude beste faktore batzuk: arraza... Hizkuntza zein egoeratan zegoen, kultura zein egoeratan zegoen eta abar.

Ekonomiari buruzko atalean, herri batek bizi egin behar duela. Nazionalismoak ezin du jendea pobrezia kondemnatu. Begiratu behar duzu ekonomia nola dagoen eta orduan nik

hemengo fabrikak nola zeuden, nola izan zitekeen, Iparraldean lanik ez zegoelako jendeak alde egiten zuela...

Dinamika atalean, euskaldun sentimendua sortzeko behar den dinamikaz izkiriatu nuen. Nazionalismoa berez indar bat da, eta dinamika bat behar da sentimendu hori sortzeko.

Atal historikoan, zenbait gertaera nola interpretatu behar diren izkiriatu nuen. Espainol historia gezurrez betea dagoela. Historia faktuek osatzen dute, baina faktuen bitartez zuk egiten duzu koadro historiko bat. Eta ez zuen existitzen euskal koadro historikoak, baizik eta Historiako gertaera isolatuak Espainiaren Historiaren zentzuan interpretatuak.

Politika atalean, berriz, politika nola egin behar zen aztertzeko nuen. Euskal Herriak irabazi behar zituen kausa batzuk, eta beraz, progresista izan behar zuen euskal nazionalismoaren politikak. Herri minorizatuak beti progresistak izan dira; bosterean dauden herriak baino gehiago.

Azkena, dialektika atalak, zentzu marxista zuen: historian nola gauzak bata besterekin biltzen diren eta unitate bat kreadzen duten.

Lurraldetasuna modu berezian tratatzen zenuen: gaskoinak, errioxarrak, aragoarrak... naziokideak dira Vasconia liburuan.

Euskaldun izateko lehen faktorea euskara da. Baina adibidez, gaskoin hizkuntzak, badu euskararen influentzia bat, eta izan daiteke bigarren mailako faktore nazional bat. Eta gaskoin bat, gaskoineraz mintzatzen delarik, euskal nazioaren kide senti daiteke.

Errioxarena historikoa da. Errioxarrek eskatu zuten bereirik Euskal Estatutuaren barnean hartzeko 1934an. Jendea ahaztu egiten da. Errioxan Nafarroan baino boto gehiago zeuden Euskal Herrian sartzearen alde.

Vasconia liburuak ETArengan eragin handia izan zuela esan izan da beti.

Orduan argitaratzen zen Espainian *El Español* aldizkaria, Fragaren ministerioaren aldizkaria. *El Español*-en agertu zen *Vasconia*-ri buruzko artikulua luzea, erranez *Vasconia* ETAREN Biblia zela. Baina ez zen. *Vasconia* ez zen ETAREN Biblia. Txillardegik berak haren kontra izkiriatu zuen. Baina Fragak propaganda egin zion eta jendea *Vasconia* irakurtzen hasi zen. Eta jendeak pentsatzen zuen egiatan ETA *Vasconia*-ren produktu bat zela. Ez zen horrela hasieran. Baina, bertzalde, egia gertatu zen: hori horrela zela pentsatuz sartu ziren asko ETAN eta orduan barrutik *vasconiatu* zuten.

Zure ustez zer aportazio nagusi egin zion nazionalismoari *Vasconia* liburuak?

Euskal nazionalismoa beste era batera ikusteko modua etorri zen. Lehenago guztiak ziren apezen seme-alabak. *Vasconia*-rik gabe, ETA ez litzateke izango gaur dena, oso bide ezberdina hartua baitzuen *Vasconia* aurreko ETAK.

Leizaola Jaurlaritzako lehendakaria gogor kritikatu zenuen *Vasconia*-n. Traidore zela idatzi zenuen. Gogorra garai hartarako, ezta?

Zaitetik kondatzen zuenez, egun batean Parisen harekin mintzo zen eta Leizaolaren emazteari esan zion: «A ze pena zure seme-alabek euskaraz ez mintzatzea». Eta emazteak: «Total, balio duenerako!». Leizaola eta emaztea, biak, euskaldunak ziren! Hori zen abertzaleen jarrera. Euskararen etsaiak askotan.

Espainol batek hori eginez gero normaltzat hartuko nuke, baina abertzalea dela erraten badu, hori traizio bat da. Leizaola horrelakoa zen. Oraindik ere badaude horrelakoak Bilboko EAJn. Hauek ez dira abertzale.

Txillardegik ETAREN izenean kritikatu zuela *Vasconia* esan duzu. Zer kritikatzan zion *Vasconia*-ri ETAK?

Lehenago Fragak errana zuen hori ETAREN Biblia zela. «Ez, hau ez da ETAREN Biblia, ETA ez dago ados *Vasconia*-rekin», esan zuen ETAK. Batez ere aurreko nazionalismoei buruzko

iritzi negatiboarekin ez zegoen ados. ETAkoak, nolabait, EAJren jarraitzaileak ziren. EAJren jarraitzaile berriak.

Zure hitzaurrea Buenos Airesen datatua agertzen da Vasconia-n. Baina zu Hegoamerikan ez zeunden, ezta?

Inoiz ez. Despistatzeko zen.

E.T.A.-REN V. ASANBLEAKO TXOSTEN POLITIKOEN EGILE

Vasconia-ren egile izateagatik eta, diozunez, EAJren erruz, bidali egin zintuzten Iparraldetik.

Vasconia-ren argitarapenagatik dudarik gabe espainolek protestatu egin zuten baina frantsesek jakin zuten nor zen Vasconia-ren egilea EAJren bidez. EAJkoak han bizi ahal izateko Frantziako Gobernuari berak nahi zituen berri guztiak ematen zizkion. «Nor da Vasconia-ren egilea?», eta EAJkoek: «Federiko Krutwig da». Orduan, Frantziatik bidali ninduten eta Belgikara joan nintzen. 1965. urtea zen.

Belgikara heldu nintzenean, belgikarrek ezin zuten sinetsi giza eskubideen aberritik inor liburu bat idazteagatik, iritzi delituagatik, espulstatu zutela. Belgikan urte askoan egon nintzen bizilekua hartuta. Bertan ezagutu nuen nire bigarren emaztea.

Helbide ofiziala Belgikan nuen bitartean beste zenbait lekutara ere joan nintzen lan kontuak zirela eta: Erromara lau urterako joan nintzen 1967an, Aljerren ia urtebetez egon nintzen 1972an eta Aostan izan nintzen, aldiz, 1973an. Belgikako Gobernamentuak emandako paperekin beti. 1978an Euskal Herriera itzuli aurreko urteetan ere Belgikan bizi izan nintzen, Lovainan aurrena eta Brusselan gero.

Belgikan zeundela Julen Madariaga hurbildu zitzaizun.

ETAren estrukturak beti desegin egiten zituztenez, haiek eskatu zidaten ezin apurtuzkoak ziren estrukturak egiteko. Mugimendu iraultzailea nola antolatu erran nien: hirurkoe-tan antolatzeko eta abar. Hirurkoak bi urtez bizi badira, orduan sakonki sartzen dira herrian, non etsaiak gehiago ez duen

ETAren estrukturak desegiteko ahalmenik. Ikusten duzu orain ere: ETA bizi da.

Vasconia-ren ondoren *La cuestión vasca* argitaratu zenuen, 1965ean. Horrek ere eraginik izan zuen ETAn.

Hori espainol txinatarzaleek publikatu zuten.

Ez zen ETAren anagramarekin argitaratu?

Beharbada bigarren edizione bat. *Vasconia*-ren ideia berak desarrollatzen nituen *La Cuestión Vasca*-n, nazionalismo iraultzaile baten ildotik nolabait. Arazo batzuetan teoria marxistak eta maoistak nazionalismora ekartzea zen asmoa. Nik ondo ezagutzen nituen txinatarrak eta orain ere sinpatia handia diet. Nehoiz ez dira egiazko marxistak izan. Haientzat ere marxismoa bidea gidatzeko metodo bat izan da.

Ikuspegi marxista erabiliz egin zenituen orduko lan teoriko asko, ezta?

Ni egiazko marxista ez naiz izan. Nazionalista euskalduna nintzen. Prest nengoen euskal kausarentzat onak ziren ideologia guztiak onartzeko, baita faxismoa ere. VI. Asanbleakoak alderantziz, soil soilik marxistak ziren, eta hauek enplegatzen zuten euskal nazionalismoa beren helburu marxistentzat. Guk, aldiz, gauza guztiak enplegatzen genituen euskal nazionalismoaren finean. Tresna bat zen marxismoa.

Gaur egun izan daiteke tresna?

Ez, amaitu da. Jacques Monod-ek erakutsi duen bezala, naturan ez dago dialektikarik. Dialektika da gauzak pentsatzeko eta antolatzeko modua. Marxistek pentsatzen zuten sozialismoak berez, nahitaez, etorri behar zuela. Hori faltsua da. Baliogabeko tresna bilakatu da.

ETAren V. Asanblean protagonismo handia izan zenuen.

Bi zati izan zituen V. Asanbleak. Ni bigarren partean egon nintzen, Getarian. Han onartu ziren bi txosten nik idatziak dira: txosten politikoa eta estrukturei buruzko txostena. Orduan onartu zena ia osoa neuk diktatua da.

Liburuetan dago han azaltzen nuen gerrila estrategia. Alemanian eta Ingalaterran salgai zeuden. Gerrila estrategia hori ez zen mirakulu bat, liburuetatik hartua zen.

Gogoan duzu zein izan ziren zure irakurketak txosten horiek egiteko?

Batez ere Menahem Beginen *Rebellion en Tierra Santa*. Espainolez publikatu zen. Miangolarrak eman zidan. Juduak arabeak baino jakintsuagoak dira, eta estrategia gerrileroan beti burutsuago jokatu dute.

Mao ere izan zenuen erreferentzia. Haren itzulpenak ere egin zenituen.

Mao ere bai gauza batzuetan, baina ez hainbeste. Maozale Etxebarrieta zen eta, batez ere, Julen Madariaga. Ni ez nintzen hain maozale.

«JAKIN GABE SARTU NINTZEN E.T.A.-N, ETA JAKIN GABE UTZI»

V. Asanblean ETako Biltzar Ttipirako, zuzendaritzarako alegia, hautatu zintuzten, Eskubi, Bareño, Arregi, Madariaga, Beltza, Etxebarrieta, Etxabe eta Goristidirekin batera.

Uste dut Asanbleak aukeratu zituela zortzi eta gero geuk, Biltzar Ttipikook, beste bi. Adibidez, Julen Madariaga ez zuen Asanbleak aukeratu, baina gero guk aukeratu genuen.

Eta erakundea utzi egin zuten ETaren sortzaileetako batzuk, ordura arte zurekin *Branka* aldizkarian ibilitakoek: Agirre, Txillardeggi, Benito del Valle, Imaz. Zer gogoratzen duzu?

Nolabait gurekin zeuden baina Txillardeggi beldur zen muga pasatzean eta hemen geratu zen, ez zen Asanblean izan. Gero, marxismoaren beldur zirelako utzi zuten ETA.

Nola pasa zinen ETako Biltzar Ttipiko kide izatetik ETAKoa ez izatera?

Jakin gabe. Ni ETAn sartu nintzen jakin gabe. ETAn sartzeko ez dakit errito bat egiten den edo ez. Nik ez dut egin behintzat. Eta ez dut dimisioa eman irteteko. Ez dakit ETAn sar-

tu nintzen edo ez. *Vasconia* idatzi nuen eta deitu zidaten. Ni ez naiz ofizialki ETAn sartu, eta utzi ere ez.

Italiara jo zenuenean urrundu egin zinen ETArengandik. Urruntze geografikoa bakarrik ala ideologikoa ere bai?

Bietara izan zitekeen. Ez dakit. Dударik gabe ETAn gauzak aldatu egin ziren, nik ez nuen horren berririk, denbora aurrera joaten da, orain aurreratago joan da... Gauzak aldatu dira bitartean.

Zertan aritu zinen Italian egin zenituen urteetan?

Erroman berri agentzia erdi ofizial batean lanean aritu nintzen, itzultzen eta. Agentziaren bitartez Gobenuaren babesa izan nuen errefuxiatu gisa.

Erroman nengoela Errenazimenduaren esanahiaz jabetu nintzen. Museo guztiak bisitatu nituen eta orduan ikusi nuen nire indianismoak ez zuela oinarririk. Ordura arte pentsatzen nuen nire indianismoa sustrai handikoa zela, baina Erroman erabaki nuen ni ez nintzela indiarra, baizik eta grekoa. Ez nuen entenditu ezer zibilizazio indiarraz. Kultura bat entenditzeko, sortu egin behar duzu kultura horretan, bestela sus-traitik ez duzu ulertzen. Eta gu, gustatzen zaigun ala ez, grekoak gara kulturaz.

Gero, Aostan bizi zinela, Harpetaniako kultura eta hizkuntza aztertzen aritu zinen.

Liburu batean argitaratu zen ETAreneko ideologia Italiako iparraldean sartu zela nire eraginez. Nik asmatu nuen Harpetania hitza. Aurretik nazio franko-probentzala zen. Erran nien: «Independentzia nahi baduzue has zaitezte zeuen buruari franko-probentzal ez deitzetik, bestela frantsestzat hartuko zaituztete eta». Alpeak bertako dialektoan Harpeak dira. Harpetania hitza italiako lexikoan sartu da gero. Artikulu batzuk izkiriatu nituen hango hizkuntzari buruz, baina libururik ez.

Garaldea ere zuk asmatutako hitza da. Azaldu zer den.

Liburu batzuk aurkitu nituen kanariar hizkuntzari buruz. Adibidez, Lanzarote. Euskal izena da! Lanzarote espainola da

baina egiazko izena da *Launtzuarde*, *La Ahuntz Uharte*, *la isla de las cabras*. Euskarazko berrogei bat izen badira.

Eskozian ere, kaledoniarrek, badute antzekotasuna euskararekin. Gehiago ere izan daitezke. Grekoz ere badaude euskararekin antza duten gauzak, grekoan badira aurreindoeuropar gauza batzuk.

Garaldeaz ari naizenean, sustrai bereko hizkuntz aurreindoeuroparretan mintzo ziren Atlantikoko kostako herriez ari naiz, beraz. Guantxea eta euskara, adibidez, familia berekoak dira.

***La Vasconie et l'Europe nouvelle* argitaratu zenuen 1976an, frantsesez aurrena eta gazteleraz gero. Lehendik adierazia zenuen ikuspegi europarzialea nabarmenago agertzen duzu hemen.**

Vasconia idatzi nuenetik gauzak nola aldatu diren azaltzen dut. *Vasconia* zaharrean ere Europako nazioen mapa bat agertzen nuen. Geroago eta geroago hizkuntza etnikoen ikuspuntuak, kulturak, inportantzia handiagoa hartzen du. Europako kultur batasuna da ideia nagusia.

Noiztik zara europarzialea? Politikaz kezkatzen hasi zinenetik?

Bai. Bilbon Ateneo Berria fundatu genuenean ordurako europarzialeak ginen. Gaur egun ere europarziale naiz. Europaren etsaiak Alemania, Italia, Espainia eta gaur egungo estatuak dira. Estatu horiek desegin behar dira eta estatu tipiagoak egin, horiek Europa osatzeko.

«NEOLITIKOAREN PAREKOA DEN IRAULTZAN SARTU GARA»

1978an Euskal Herrira itzuli zinen, Zarautzera. Nola aurkitu zenuen Hego Euskal Herria, mende laurden kanpoan izan ondoren?

Beharakada handia nabaritu nuen kulturaren arloan. Itzuli nintzenean, Monzoni esaten nion ez nengoela ados berak egiten zuen literaturarekin: hizkuntzaren prestigioa goitik be-

hera eraman behar dela eta ez behetik gora. Berak bere giro sozialeko literatura egin behar zuela eta ez giro *populachero*-koa.

Baserritar ez jakitsuak ondo mintzo dira euskaraz, baina baserritar ez jakitsuen kultur maila exenplutzat hartzea...

Eta nolako Euskaltzaindia aurkitu zenuen?

Tamalgarria. Ez dute kultura zabalik euskaltzainek.

***Vasconia*-ren berrargitarapen osatuan, *La Nueva Vasconia*-n (1979), lan politikoa utzi eta aurrerantzean literatur kreaziora zuzenduko zenuela zure ahalegin osoa azaldu zenuen. Zergatik erabaki hori?**

Orain zibernetikaren aroan gauzak aldatu dira. Orainarte, aberastasunen sorreraren oinarrian teknika eta energiaren kontsumoa egon dira. Beti. Baina orain zibernetikaren aroan gaude: duela 10-15 urtetik, ez gehiago, aberastasun handiena informazio berriaren baretik dator. Eta informazioa burmuinean sortzen da.

Adimen inteligentearen definizioa zera da: lehendik ezarritako bi teoriatik abiatuta, berri bat asmatzeko gai izatea. Ehun mila lagunetik bakarra da horretarako gai. Euskal Herria bizi bada edo ez bada, lauzpabost pertsonari esker da. Pertsona arrunt baten adimena zurrundu egiten da 25 urtetatik aurrera.

Langileen lanpostuak direla-eta hainbeste arazo... ez al zaretetik konturatzen duela 10-15 urte aro berri batean sartu garetetik? Aberastasun gehiago sortu ahal izango dela gutxiago lan eginez? Pentsatzen dakien jendea, asmatzen dakien jendea, prestatu behar da.

Orain azaltzen ari zarenekin *Vasconia Computer Shock Año 2001* liburuan (1984) agertzen duzun tesia da, ezta?

Hori idatzi nuenean aro berri hau hasi egin zen etortzen. Liburu hori publikatu nuenean, agian zerbait geroago, munduan egin den iraultza handienera sartu gara. Neolitikoan lur langintza asmatu zen, eta geroztik aldakuntza guztiak, aurreakuntza guztiak, energiaren kontsumo handiagoaz egin di-

ra. Orain ez! Orain informazioaren produkzioaz egiten da. Neolitikotik ez da iraultza honen parekorik gertatu.

Kultura eta zibilizazioa gizonezkoen produktu direla diozu liburu honetan.

Feministak ez dira gehienetan feministak, maskulinistak baizik, gizon ez direlarik gizon izan nahi luketelako. Emakumeak baditu bere merituak eta bere ahalmenak, baina gizonaren eta emakumearen burmuina desberdinak dira. Gizonek burmuinaren ezkerreko alde handiagoa dute eskuinaldekoa baino. Emakumeek bi aldeak berdintsuak dituzte. Non zer dago? Logika ezkerrean dago. Beraz, gizona logikoagoa da, baina ez da hain intuitiboa.

Gizona oso tontoa izan daiteke, emakumea baino askoz ere tontoago, edo oso inteligentea. Eta hau erabakitzen da burmuina nola konposatzen den. Emakumeak batez beste gizonezkoak baino gehiago dira. Tontoenak gizonak dira, baina etorkizuna erabakitzen duten pertsona inteligenteak, progressoa bideratzen dutenak, gizonezkoak dira.

Hau ez da emakumearen aurka mintzatzea. Beraz, etorkizuna, ideia berriak, beti gizonek ekartzen dituzte, baina hobeki interpretatzen dituzte emakumeek.

Atentzioa ematen du atzeratuekin, ezinduekin, egiten duzun planteamenduak. Gizarteak gehiegi babesten dituela eta ezabatzerako jo beharko litzatekeela.

Bide naturala da. Aurrerabidea etorri da aldakuntza berriak onartuz eta aldakuntza negatiboak kenduz, negatiboak egiten diren elementuak kanpora botaz. Guk animalien kromosomak ditugu gure barnean, animalien materia bera dugu, baina aldatua. Eta aldatu da, konbinazio txarrak zituzten elementuak desageri direlako gure baitan eta elementu berriak kontserbatzen ditugulako. Gure barnean ditugun elementu fisikoak dinosauroengandik datoz! Aldakuntzak gertatu dira, baina haiengandik sortu gara. Lehen mongolikoa 40 urte pasa baino lehenago hiltzen zen. Orain seme-alabak izan ditzakete, zahartzarora heltzen dira... Kristauak garelarik, tontoen, tontoe-

nen, pertsona eskubideak kontserbatzean, humanitatearen progresoa eta humanitatearen existentzia ere hiltzen dugu.

«EUSKALDUNEK HOBEKI PENTSATZEN DUTE GAZTELERAZ»

Liburuan behin eta berriro aipatzen duzu Euskal Herriak, aurrera egingo badu, derrigorrezkoa duela Espainiatik banatzea.

Edateko ura eta ur pozoindua nahasten badituzu, guztia pozointzen da. Europartasunaren kontserbatzeko, ez soil-soilik euskaldunentzat, europar guztientzat baizik, Espainia Europako Batasunetik kanpora botatzea beharrezkoa da. Espainia Europan sartzea arriskua handia da, bere mentalitatea sartzen duelako.

Baina zure saio liburu ia guztiak gazteleraz idatzi dituzu.

Euskaldunentzat baitira eta euskaldunen kultur bidea, parte honetan, espainola izan da. Euskaldunek askoz hobeki pentsatzen dute, gauzak fixatzeko, gazteleraz. Minoritateen problematika da hau. Kultura kreatorreko talde tipo bat behar duzu. Tipiegia baldin bada ez duzu kreatorreko kulturarik. Oso tipia baldin bada, ehun milatik bakarra izan ohi denez kultura kreatorreko gai, ez du ematen gauza handirik. Eta Euskal Herrian ehun milatik bat hogeit hamar pertsona baino ez dira.

Hizkuntzaren zehaztasuna kulturaren bidez egiten da. Gizonen talde minoritario on batek kultura kreatorreko du, eta kultura horrek herrian fruitu ematen. Elitekoak gutxiegi badira, kultura kreatorreko gai direnak gutxiegi badira, ezinezkoa da. Kopuru bat beharrezkoa da, hogeit hamar gutxiegi da.

***Vasconia Computer Shock Año 2001* liburuarekin amaitzeko: demokrazia ez duzu sistema politiko egokitzat jotzen.**

Demokrazia *chusmocracia* izan daiteke. Demokrazian ton-to guztiek gehiengo erabakitzen dute. Ehun mila pertsonaren aburua ez da ona, beti txarra da. *Aristos* esan nahi du onenak, onenen gobernu, eta horregatik Aristotelerentzat aristokrazia gobernu hoberena zen.

Zuk beltistokrazia aipatzen duzu.

Aristos eta *Beltistos* sinonimoak dira, baina orain aristokrazia izenarekin noblezian pentsatzen duenez mundu guztiak, beltistokrazia erabiltzen dut: ez baita nobleziaren gobernua, hobereenen gobernua baizik. Dena herriarentzat baina deus ez herriarekin.

Zer dela eta idatzi zenuen *Belatzen Baratza* (1979-1983) nobela bilduma?

Roman-a da, ez nobela. *Roman*-a fondo filosofikoa duen istorioa da. Osoa publikatu gabe dago. Egunen batean publikatuko dut. Bederatzi tomo txiki publikatu dira, eta ia erdia dago argitaratu gabe. Idatzia eta euskarara itzulia dago. Beste bi nobela ere badituzte izkiriaturik: *Gane Garaietan* eta *Taleiaren Katopthrona*.

Nire emazte belgikarra Lovainako Unibertsitatean irakaslea zen, *Roman*-aren historian espezialista, eta berak ulertzeko aurrena gazteleraz idatzi nuen *Belatzen Baratza*. Orain, nire emazte ohiak frantsesezko itzulpen bat egin nahi luke.

Gazteleraz egin ondoren euskaraz egiten hasi nintzenean, ohartu nintzen euskarak ez dituela lengoia mailak. Bi pertsona hizketan ari direla, berdin dio bata piramide sozialean goian egon edo behean egon. Hizkuntza klasikoetan, hizkuntza kultoetan, lengoia mailak daude: era ezberdinean mintzo dira batoren edo bestearen klase sozialaren arabera. Orduan erran nuen: euskaraz sortu egingo dituzte lengoia mailak.

Baina porrot egin nuen, oraindik existitzen ez duen euskal gizarte batentzako aritu bainintzen idazten. Baliteke inoiz existitzea, baina gaur egun ez da existitzen. Euskara beheko klaseen hizkuntza da.

Etorkizunean egongo al da orain aurkitu ez duzun publiko hori?

Etorkizunean alda liteke Europa, baina *Belatzen Baratza* da orduan ez zegoen publiko batentzat, amets egin nuen publikoarentzat.

«KULTURAZ GREKOAK GARA»

Azal ezazu zergatik eta nola sortu zenuten Jakintza Baitha elkarte.

1986an sortu genuen Zarautzen. Manu Erzilla, Alfontso Iri-goien, Josu Lavin, Juan Luis Goikoetxea, Michael Morris eta ni izan ginen sortzaileak. Zerbait egin beharra zegoen euskaraz, baina porrot egin dugu. Euskal Herrian goi kultura sartu nahi genuen, euskara grekoaren bitartez goratu. Kulturaz grekoak gara, gustatzen zaigun ala ez. Euskaldunek basati izateari utzi diote greziar kultura etorri zen unetik. Goi kultura herri guztietara greko klasikoaren bitartez hedatu da.

Grekoz ez dakien herria bere kabuz pentsatzeko gauza ez da izango. Robotikaren morroi biziko da. Beraz, helburua zen goi kultura txertatzea grekoaren bidez gure herria roboten menpe eror ez dadin.

Baina antolatu ditugu greziar kulturari buruz konferentziak, euskaraz. Badakizu zenbat etorri diren? Hamar baino gutiago baizik ez, beti. Euskaldunek ez dute interesik kulturaren. Folklorearen ez da kultura.

Greko klasikoaren bitartez euskara goratu? Azaldu hori.

Mundu osoan hiru kultura handi ezberdin baino ez daude: greziarra, sanskritoaren eta txinatarra. Eta agian laugarren bat: arabiarra. Gure kulturaren oinarrian, Europako kulturaren oinarrian, kultura greziarra dago, eta hori indartu behar dugu gaur egun. Ez dugu inoiz ahaztu behar herri europar guztien kultura funtsean greziarra dela, eta leku bakoitzean egin dena kultura horri ñabardura nazionala eranstea izan da. Nortasun nazionala landu nahi badugu, ez dugu ahantzi behar nortasun nazional hori osatzen duen faktore nagusia hizkuntza grekoaren oinarritutako kultura europar komuna dela.

Ingelesa, frantsesa edo alemana lehen mailako bitartekoak dira ezagutza jasotzeko, baina ez dira izpiritua formatzeko hizkuntzak. Hizkuntza guztiak ez dira berdinak, hizkuntza guztiak ez dira posibilitate berdinekoak. Badaude hizkuntza pri-

mitiboak: Afrikako beltzen hizkuntzetan ezin da errealitatea deskribatu, ez eta pentsatu ere.

Greko klasikoa hizkuntza kultoa da, hizkuntza aristokratiakoa izan da. Greko zaharrean pentsatzeko modua pribilegiatua da. Greko zaharrean pentsatu edo hizkuntza giristino batean pentsatu, mundua oso modu diferentean ikusiko duzu.

Adibidez, grekoz eta euskaraz badago baieztapen subjektiboa —«egoten dateke»—, baina espainolez eta alemanez ez dago horrelakorik. Eta baldintzetan, espainolez ez daude euskaraz dauden maila guztiak: «izan balitz», «izan baledi», «izan bada-di» eta «izan bada». Eta zuk eguneroko hizkuntzan diferentzia hori egiten duzunean, askoz seguruago pentsatzen duzu. Grekoz bost diferente daude balditzetan, espainolez hiru eta ingelesez ez dago bat baizik.

Euskaltzaindian ez dakite ezer honi buruz. Orain batua hartu dute. Baina guk hartu behar dugu pertsona baten pentsatzeko modua eta horizontea zabaltzeko indarra duen hizkuntza. Nire ustez euskara klasikoak pertsona baten munda, edo ikuspegia, konkretuago, berriago eta aberatsago krea-tzen du batuak baino.

Kultura greziarraren jakintzaren araberako hierarkia ezarri zenuten elkartean: *didaskaloak*, *sintropoak*, *ikasleak* eta *entzuleak*.

Ezin duzu ikasi azkena datorrena erdikoa ez badakizu. Grezian aro batean bazeuden *baithak*: *baitha* batean egon behar dute irakatsi egiten duten maisuak —ez inposatu egiten dutenak—, eta ikasi egiten duten beste batzuk. Baina oinarri bat izan behar duzu ikasteko. *Baithak* etorkizuneko gizonak pres-tatzeko dira.

Entzuleak kultura greziar klasikoan interesa dutenak dira. Ikasleak, kultura eta hizkuntza greziarraren ezagutza dutenak eta greziar klasikoa menperatzeko asmoa dutenak. *Sintropoak*, lagunak, hizkuntza menperatzen dutenak dira. Eta *didaskaloak*, maisuak, ideia berriak sortzeko gaitasuna dutenak.

«GIZON INTELIGENTEEN KASTA BAT SORTZEA HELBURU»

Sofopolis bat sortzea da zure egungo helburua. Zer da sofopolisa?

Jakintsuen hiria. Kultura klasikoaren bitartez batxiler humanista ikasteko zentrua. Greko klasikoaren irakaskuntzan oinarritutako batxiler europeista litzateke, gero karrera jeneralista bat sortzeko.

Antzinako Erroman espezialistak esklabuak ziren. Nagusiak batxiler moduko oso prestakuntza zabala zuen, eta denean zen jakintsu. Klase kulto erromatarra, gainera, grekoz mintzo zen. Latina herri xehearen mintzaira zen.

Sofopolisean ikasiko luketenen bigarren ama hizkuntza greko klasikoa litzateke, aurrena norberaren hizkuntza babes-tuz. Helburua gizon inteligenteen kasta bat sortzea izango litzateke. Ez oraingo Unibertsitatea bezala, tentelak sortzeko baino ez du balio eta. Elite paneuropeista sortzea da helburua.

Nik sofopolisaren plana publikatu nuen gure elkarteko aldizkarian, *Hierax* errebistan, eta greziarrek presentatu zuten Europako Batasuneko 15 Hezkuntza ministroen aurrean. Papan-dreu ministroak berak, presidente izan zenaren semeak, aurkeztu zuen proiektua. Eta lehenengo aldia da zerbait aho batez onartu dutena! Sofopolisa sortzeko plana, *baithen* printzipioetan oinarritutako sozietate bat sortzeko plana.

Greziarrek aitortzen dute proiektua nirea dela. Euskal Herrian asko ideia lapurrak dira, baina greziarrak nobleak izan dira eta haien greziar hizkuntzaren defentsarako buletinean aitortzen dute proiektua nirea dela.

Onartu bada, zergatik ez du aurrera egiten?

Dirua behar da. Baina orain, onartu eta denbora askoren bu-ruan, Ameriketako masoiak konturatu dira, Fundazio bat egin dute nonbait, eta dirua etortzekoa da plana berpizteko. Uste dut 120 milioi dolar behar direla. Horiek biltzea ez da hain erraza.

Sofopolisa Euskal Herrian ipintzea zen zure lehengo asmoa, *Vasconia Computer Shock Año 2001* liburuan adierazten zenuenez, baina kanpoan ipintzea proposatzen duzu orain.

Euskal Herria, badakizu, mediokreen eta inbidiosoen herria da. Guk lehenago jasotzen genuen diru gutxia orain kendu digute Guggenheim egiteko. Jakintza Baithakoei eta guztiei kendu digute dirua. Lehen etortzen zen diru apurra etortzen ez bada, orduan beste herrietara joan behar dugu.

Gainera, Euskal Herria tipia da. Sofopolis bat Europa guztirako egin beharko litzateke. Grezian egitea pentsatzen nuen, Olinporen aurrean, non eta izan baita helenisten lehen kongresua. Baina greziarrak *chauvinistak* dira, eta greziar modernoak sartzeko baliatu nahi dute. Nik erran diet: «Edo greko klasikoa egiten da, edo ez duzue ezer izango».

Nik proposatzen dut, beharbada, Brujasen ipintzea lehenengo urteetako batxilerra. Brujastik 200 kilometroko zirkuluan daude Londres, Paris, Estrasburgo, Kolonia... Hasteko, gurasoek maiteago izango dute haurrak hurbil izatea. Orduan, batxileratoa Brujasen jar daiteke eta, gero, karrera jeneralista, Unibertsitatea, Olinporen aurrean.

Dirua etortzen bada Madrilera joango naiz, sofopolisaren plana aurrera ateratzeko, Enbaxadan gestioak egiteko. Eta gero Greziara joatea da nire asmoa. Madrilen ongi antolatuz gero, dirua badela ziurtatuz gero, Greziara joango naiz, han bizitzeko.

FEDERIKO KRUTWIGEN ARGITARAPENAK

Liburuak

Vasconia, Norbait, Buenos Aires, 1963, 638 or. (Fernando Sarrailh de Ihartza goitizenez sinatua)

La Cuestión Vasca, 1965, 255 or.

Garaldea: sobre el origen de los vascos, Txertoa, Donostia, 1978, 218 or.

La Vasconie et la Nouvelle Europe, Elkar, Baiona, 1977, 120 or. (Heiko Sagredo de Ihartza goitizenez sinatua).

Vasconia y la Nueva Europa, Elkar, Baiona, 1977, 192 or. (Heiko Sagredo de Ihartza goitizenez sinatua).

La Nueva Vasconia, Ediciones Vascas, Donostia, 1979, 770 or. (Fernando Sarrailh de Ihartza goitizenez sinatua).

Belatzen Baratza. Mikelditarrak. Euskal errankari hamaika irazkie-tan eta bederatzi ilbetan, Ediciones Vascas, Donostia, 1979, 327 or.

Ekhaitza, Luis Haranburu, Donostia, 1980, 246 or.

Igibarziaren Iphuinak, Luis Haranburu, Donostia, 1980, 300 or.

Jakintza Baitha, Luis Haranburu, Donostia, 1982, 173 or.

Otsoaren bidea, Luis Haranburu, Donostia, 1982, 166 or

Erroten Burgiko Mysterioa, Luis Haranburu, Donostia, 1982, 184 or.

Harbelnoren amazynak, Luis Haranburu, Donostia, 170 or.

Mystagintza Zaharra, Luis Haranburu, Donostia, 1983, 189 or.

Ortziren Zaldiak, Luis Haranburu, Donostia, 1983, 206 or.

Garaziko Oihanaren Thaumata, Luis Haranburu, Donostia, 1983, 161 or.

Sua ez da hiltzen, Luis Haranburu, Donostia, 1983, 156 or.

Vasconia Computer Shock Año 2001, Lizarra, 1984, 493 or.

GUNEN GURPILEAN

ALBERTO BARANDIARAN

ZINEMAGILEAK ETA EUSKAL GATAZKA
PIO BAROJAREN TXANTXA POETIKOA
ALARDEA: KONTSERBADOREAK MUINEAN

HARKAITZ CANO

GASTEIZKO HONDARTZAK
EZINEGON MINIMO BAT
ERREALISMOAREN BIDETIK
LITERATURA UNIBERTSALA
DINOSAURIO GALDUAK

IMANOL AGIRRE

TRIKITI ARO AITZINDARIA
UDAKO TRIKITI SAL TSA
AIRBAG, HUTSALAREN BIDEAN GALDURIK
20 URTEZ TEATRO ITURRI
HANDI-MANDI
HERIOTZA IKUSKIZUN

KIKE AMONARRIZ

GIZARTE ESKAERA I
GIZARTE ESKAERA II
IKASTURTE BERRIA, POZ BERRIA
HARRIAK ETA MOTXILAK

KULTURA
LITERATURA
IKUSKIZUNAK
SOZIOLINGUISTIKA

KULTURA

ALBERTO BARANDIARAN

ZINEMAGILEAK ETA EUSKAL GATAZKA

San Juan bezpera. Nafarroako mendialdeko herri bat, eta ira usaina giroan. Bideberriaren ondoko ermita baten inguruan jendea zientoka, kontent, berritsu, uda hasi berriaren irekiera ofizialaren zain edo. Meza bukatzeaz, denak daude sua noiz piztuko zortziko dantzatu eta udalaren ardoa dastatzeko. Inor gutxi ohartu gabe hurbildu da laguna eta paper sorta jarri du abarren azpian, suak hartu baino lehenxeago. Hamaikagarren zigarroa piztuta urduri begiratu die garrei, irailean errodatzen behar zuen filmearen gidoiaren azken zirriborroa nola jaten duten. Jan dute, bai horixe, eta orain mutikoek salto egi ten duten errauts gori-goria baino ez da urte askotako lana. «Zortea omen zekarrek», dio Joseba Salegik sorgin erritoaz gal-

detzen diotenean. Urte askotan zehar izen ezagunen laguntzaile gisa aritu ondoren, zuzendaria izango da nafarra lehen aldiz.

Bitxiak dira zinegileak. Jende estresatua iruditu zait beti, desoseguan bizi direnak, sormen lanak beste sortzaileak baino gehiago akituko bailituen. Jende arduratua, beren lanak izango duen hurrengo egin ahal izateko derrigorrezkoa den onepena.

Azken honetan estreinatu edo errodatzen hasi direnen artean jakinminenez bete nau Daniel Kalparsororen *A ciegas* filmeak. Bere lanaren nondik norakoak azaltzeko Madrileko prentsari esan zizkionak oso interesgarriak iruditu zitzaizkidan. Terroristak desmitifikatu nahi zituela esan zuen donostiarrak, «hiltzaileak baino ez diren ustezko heroi horiek» dakuskien bezala irudikatu. Zutabegile baten jarrera etorri zitzaidan gogora, kazeta ezagun batean bere helbidea jarri zuenean ETAkoak joan zitezten, bera zain zegoela, pistola eta guzti zuela etxean, eta beldurrik ez zuela batere kakazu koadrila horren aurrean, ez zituztela potroak. Ez nintzen batere harritu gero Veneziako Mostrako ikusleek txistuka jaso zutenean Kalparsororen pelikula.

Izan dira batzuk bortizkeriaren giroa kontatzeko euskal zinemagileek egin dituzten saioak. *Ehun metro*, *Ke arteko egunak* edo *Mikelen heriotza* barne-barnetik abiatu ziren, eta txarrrak ziren hirurak. *A ciegas* txarra den bezala, kanpotik egina izanagatik. *La fuga de Segovia* tajuzkoa zen eta Imanol Uriberen *Días contados* pelikulak ere —ETAko kide baten kezka eta buruhaustea kontatzen zituena— arrakasta izan zuen. Gainera, hemengo *benetako* egoera isladatzen ez zuelako egin zizkieten kritikak erabat arrazoigabeak ziren. Zer dela-eta izan behar du pelikula batek errealitatearekin loturarik? Zeinek esan dezake zein den hemengo *benetako* egoera? Fikzioaz ari gara, ez dokumental historikoez.

Gaia erakargarria da inondik ere, eta aurten izango dugu saiakera gehiago, Helena Taberna nafarrak zeri eta Yoyesen bizitzari koska egingo diolako bere lehen filmean. Montxo Armendarizek berak aurten erantzun behar izan zion, Berlingo Zi-

nemaldian, derrigorrezko galderari: «Noizko euskal gatazkari buruz pelikula bat?». Ez zuen aukera baztertu, baina gaia konplikatua zela eta kontu handiz egin behar zela onartu zuen. Armendariz azkarra da, eta uste dut berak badakiela hemengo giroari buruzko pelikula batek soilik atzerrian izan dezakeela erabateko onespena —gaiari ausardiaz helduko dion edonork jasoko ditu kritikak, alde batekoak zein bestekoak—, eta horretarako ona benetan behar duela izan. Jakin ere badaki ez dagoela aseptiko izaterik, eta moralizatzeko tentazioari ihes egitea oso zaila izaten dela. Zantzu bat eman zuen Berlinen. «Niri arrazoiak interesatzen zaizkit, honen guztiaren iturburua». Zerbait darabil buruan beraz Armendarizek.

Ah! San Juango sute batean erre zen gidoia klausurazko mojei buruzkoa zen.◦

PIO CARO BAROJAREN TXANTXA POETIKOA

Duela hiru urte argitaratu zuen Pamiela argitaletxeak liburuxka harrigarria, poesiaz beterikoa, oso ederra: *Haizegua*, Martin Indaburu zugarramurdiarrarena. Istoria, berez, oso erakargarria zen. Pio Caro Barojak aurkezpenean kontatu zuen, gazte garaian, Berako gazte garai haietan, usu joaten zen usoetara, ondoko baserriko mutil batekin. Egun batez hark luzatu zizkion bere etxean aurkituriko paper zikin zenbait, bere aitak behiala zirriboratuak. Urte askotako ehiza garaiko gora-behera zenbaitsuren ondotik —zenbat basurde, uso edo izokin harrapatuak zituen eta non ze giro zegoen usoak igaro ziren egunetan...—, euskarazko bertsoak ageri ziren. Horiek irakurri eta argitaratzeko modukoak iruditu zitzaizkion Caro Barojari, eta erdarazko itzulpenarekin argitaratu zituen Pamielak. Gogoan dut aurkezpenean ironiko azaldu zela behin baino gehiagotan Julio Caroren anaia, are, probokatzaille samarra ere bai.

Aurkezpenaren ondoko egunetan behin baino gehiagotan aritu ginen solasean liburuaz: horrelako poesia joan den mendeko zugarramurdiar baten eskutik aurkikuntza polita zela eta interesgarria inondik ere; erakusten zuela dohainak bazitue-

la idazteko, eta, beraz, oso litekeena zela gehiago idatzi izana; gaiaren tratamendua zela-eta, harrigarria zela poesia hura, oso gaur egungo zenbait irudi erabiltzen zituela...

Bernardo Atxagak sumatu omen zuen lehena, garai hartakoa ezin zitekeen klaberren bat irakurri zuenean. Elkarrizketa egitera joan nintzaionean onartu zidan Pio Caro Barojak berak. Bereak ziren bertsoak, erdaraz idatziak, eta egun batez bururatu zitzaion istorioa asmatzea, hau da, Martin Indaburu, semea eta ganbarako kutxan aurkituriko paper zikinak asmatzea. Ekin zion orduan bertsolari zaharren bat bilatzeari euskarazko bertsioa egiteko, garaiak eta fikziozko pertsonaiak — Gasteizko apaiztegian ikasitako gizon eraman handikoa— eskatzen zuen bezala. Lagun batek proposatu zion Eduardo Gil Beraren izena, eta nahiz eta berak nahi zuena ez izan hura, onartu zuen. Zazpi hilabeteren ondotik emaitza ikusi zuenean gus-tatu egin zitzaion eta jokoan Pamielakoak ere ados zeudenez, halaxe argitaratu zen, Martin Indabururi buruzko zehaztasun guztiekin.

Baten bat haserretuko da akaso Caro Barojarekin eta Pamielakoeekin baina berdin dio. Poema liburua goxoa da irakurtzeko bai erdaraz baita euskaraz ere:

Arimen eta usoen / egaldacatzea da / haizien arabera; / badira loriec lucitzen dittuzten / bazalako haiziac, / badira biolletac ere, / urdinchcac ta moratuac, / biñon haizeguarequin / doacie content; / naranja coloreco haizia / arrosai ostuac equentzen daztena. / Epela da ta elduda Españatic / gariyur rin ta ardogustuarequin, / haize alegre ta erochca / belaguietan danzacen dena / ta enamoratu en ezpañac / idortzen dittuena.o

ALARDEA: KONTSERBADOREAK MUINEAN

Komunikabideek, hasieratik, gizarteko gaien artean jarri badute ere, Irungo eta Hondarribiko alardeen gatazka kulturakoen artean paratuko nuke nik, azkenean kultur arazoa delako hor erabakitzen dena. Ezagutzen ditut ondo biak, barne-

tik, eta badakit hondarrean auzia ez dela emakume batzuek desfilatzeko duten eskubidea onartzea ala ez, latzagoa dela ez-baian dagoena, eta, beraz, interesgarriagoa, konplikatuagoa eta sakonagoa. Horregatik, ez dut uste feministen borroka denik. Ez beraiena bakarrik, esan nahi dut.

Bi alarde hauek antzerkiak dira funtsean eta bi eratarata jokatuta daitezke desfilatzen ari delarik. Bat da gogo militar samarra erakusten dutenena —asko, horien artean mando gehienak—. Hau da, lerroak zuzen-zuzen, musika neurrira, eta jenerala, kapitaina edo dena delakoa, jeneral eta kapitain, ondorio guztiekin. Bestea festa herrikoi eta zabala nahi dutenena da, alegia desfilea jaigiroan eta olgetan egiten dutenena, Donostiako danborradakoek edo Iruñeko peñetakoek egin dezaketaren antzekoa. Lepoa egingo nuke lehen kategoria horretan sartzen diren gehienak ez dutela emakumeen parte hartzeari buruz ezertxo ere entzun nahi. Badago puntu bat, beraz, emakumeen desfilatzea defenditzeko.

Garrantzitsuena ez da hori ordea. Irungo eta Hondarribiko herritarren erreakzioa oso esanguratsua izan da: gehiengoak kontra, eta bortizki gainera, arrazoinamendurik gabe, ez bada nagusitasunarena —arrazoirik gabekoen arrazoi maiteena—. Eraso fisikoak gora-behera, gerra psikologikoa etengabekoa izan da urte osoan zehar. Manifestazioak egin dira ugari betiko alardearen alde —emakumeak buru zirela, nahiz eta *putak* eta gisako oihu asko entzun diren gehienetan—, eta beste iritziarik plazaratzera ausartu direnak traidoretzat hartu dira. Ez dira asmakizunak: konpainia askotatik egotzi egin da tradizioz urte asko zeraman jendea, herrietan pertsona oso errespetatuak kupidagabe kritikatzin dira orain —Hondarribiko arrantzaleen kofradiako burua, kasu—, argitaratu dira zerrenda beltzak, eta dei anonimoak ia egunero jasan dituzte zenbait etxetan, bakarrik esateagatik euren ustez alardean deus ez zela aldatzen emakumeak aterata ere. Batzuek irabazi eta guzti egi-ten zuela esatera ausartu dira...

Horixe da, nere ustez, garrantzitsuena. Erreakzioaren tamaina. Garrantzitsuena ez da emakumeak izan direla urrats berri bat eman nahi izan dutenak, matxismoaren arrastorik ere

inoiz azaldu ez duten asko kontra izan direlako hasieratik. Kontua izan da aldaketa ekarri nahi izan dutela ospakizunera, eta aldaketari beti beldur. Herritarrek bazter utzi dute itxurakeria guztia eta diren bezala azaldu dira: arrotzaren aurrean beldurriak, ausarten aurrean koldarrak, berritasunaren aurrean zekenak, eta aniztasunaren aurrean intoleranteak. Horixe baita muinean gure herri hau, kontserbadorea oso (eta inork ez dezala pentsa hori soil-soilik hondarribitarren edo irundarren arazoa dela). Horregatik da garrantzitsua emakumeak alardeetan ateratzea: aldaketak, eboluzioa, gutxiengoaren eskutik datorrelako beti, eta muturreko ederra hartuko dutelako horrela gehiengoaren sakralizazioa ezarri nahi duten horiek.◦

LITERATURA

HARKAITZ CANO

GASTEIZKO HONDARTZAK

Banator berriz ere, jator bezain sator, literaturak azken hilabeteotan eman duena autopsiatzera.

Uda honetan hondartzan nahiz itzalpean irakurritako sormen-lanen artean, bi ipuin-bilduma azpimarratuko nituzke bereziki, satorrarena egitean datzan ofizio honetan, noizean behin loreak ere komeni direlako. Ezer baino lehen, eta inor haserre ez dadin, estatistiken arabera irakurleek hain gustuko ez duten narrazio laburraren jeneroari diodan kuttuntasun berezia aurrez aitortzen dut. Baina batez ere, biak ala biak aspaldian irakurri ditudan ipuin bildumarik borobilenak iruditu zaizkidalako aipatzen ditut, eta batak besteari deitzen dion ipuin ka-teatuz osaturik daudelako. Bata, Susak argitaraturiko Xabier Montoiaren *Gasteizko hondartzak* liburua da. Idazle gasteiztarrek ez zeukan batere lan erraza *Emakume biboteduna* gogoangarri haren mailari eusten, eta liburu berri honekin —Gastei-

zek ere bere hondartzak badituela aldarrikatuz— bete-betean asmatu duela esan genezake. Izenburuak jartzeko sena berezia duen idazle honek (*Anfetamiña*, *Likantropo* edo *Non dago Stalin?* bezalakoak gogoratu besterik ez dago) hainbat eta hainbat pertsonaiaren bilakaeraren berri ematen digu bere azken liburuko ipuin ezberdinetan, Gasteiz gaur-gaurkoa edo garai batekoa beti ageri delarik lehen planoan ez bada, bederen, bastidore artean: Gasteizko postale ezagunak dira batzuk, giro *underground* ezezagunago batekoak beste batzuk. Ipuin bilduma honek, honenbestez, *Emakume bibotedunak* hain lortuak ez zituen bi tasun dituela esatera ausartuko naiz: erregulartasuna eta batasuna, nahiz eta, agian, ipuin bakanen batean sartzen apur bat kostatzen den. Ezagun du Montoiak narratzaile ingeles eta amerikar garaikideen eragina ipuino-tan. Liburua gutxi balitz, bere bakarkako bigarren diskoa ere laster izango omen dugu entzungai.

Hondartzatik ihesi, itsaso barrualdera ausartu behar dugu. Xabier Montoiaren trebetasuna aurrez ere ezaguna bagenuen, ez da gauza bera gertatzen aipatzera natorren bigarren idazlearekin, niretzat erabat ezezaguna baitzen. Patxi Iturregi da bere izena eta aurten argitaratu du bere lehen liburua: *Haize kontra* jarri dio izenburu, eta hondartzatik haratago, itsas barnean eta giro portuarioetan kokatzen dira bere narrazioak. Beti da pozgarria autore berri bat irakurtzea, baina, are gehiago, Joseph Conrad euskaldun bat deskubritzea, bere lehen liburuan halako indarrez gainezka egiten duena. Apuntatu ba, nonbait: *Haize kontra*, Elkar argitaletxean.

Bi liburu hauek edozein euskal ipuin garaikideen antologiaren premiazko berrikuspena eskatzen dutela esango luke sator izkribatzaile honek, lurpean zulatzen darraien bitartean loreak hortzetan kateatuko zaizkion beldurrik gabe. Baldin baite, ez ahal ditu korrontek liburuok berehalakoan eramango.◦

Patxi Iturregiren liburuak *Haize kontra* bazuen izenburu, ia beti haize kontra dabilen idazle horietako bat aipatzekotan, horixe dugu Asier Serrano. Idazle ikonoklasta honen lehen poemarioak *Bada hiri gorri bat* izena du eta titulu bereko diskoa agindu digu udazken honetarako eibartarrak, *Lorelei* izeneko bere taldea grabaketa estudiotik pasa baita dagoeneko, Xabier Montoiak egin duen moduan. Montoia edo Serrano bezalakoek, beren ahaleginak sorkuntzaren esparru ezberdinetara bideratzen dituztenek, ezin uka, baikortasun dosi bat ematen digute, idazleen ezinegona agerian uzten duten heinean. Bada zerbait.

Serranoren poemarioa Elkar argitaletxeko Kaiero azpi-sailean izan da argitaratua, bilduma honetako bigarren emaitza izanik. Lehena, Garikoitz Berasaluze zarauztarraren *Azaro urrunetako intifadak* izan zen, indar itzelezko poema liburua, merezi adinako arretarik eman ez zaiona (Barkatu irakurle, une batez ahaztu egin dut poemei buruz ari nintzela. *Lapsus calami*; injenuoa ni).

Elkar argitaletxeak, bestalde, Enbido Txikira saila itxi ostean, apustu berri bati ekin dio, eta biografien sorta bati eman dio hasiera. Aitor Zuberogoitiak hartu du orain artekoak taxutzeko ardura: Gandi, Jose Antonio Agirre eta Katalina Erausorenak, hain zuzen.o

ERREALISMOAREN BIDETIK

Patxi Iturregirena lehen liburua bazen, Jon Urrujulegirena ere hala izan da. Kasu honetan, *Arragoa* izeneko eleberria da, Txalaparta argitaletxeak eman duena argitara. Fernando Barrena Txalapartako arduradunak liburuaren aurkezpenean esan zuenez, belaunaldi baten islada da liburua, orain 40-50 urte inguru dituen belaunaldiarena, hain justu. Autobiografikotik asko ei duen nobela hau, komentua, sexu grina, militantzia abertzalea, erbestea eta ekintza armatuaren inguruan hezur-mamitua izan da, eta egileak, polemikoa izan daitekeela aurreratu zuen. Igantzi izeneko gizona da eleberriko protagonistis-

ta, ETaren barne-munduaren berri emateko baliarazten duena idazleak.

Errealismoaren bidetik jarraituz aurkitu du sator zulatzaileak Jexuxmari Mendizabal *Bizargorri*-ren *Kalezulo* nobela ere. Bertan, duela ia lau urte idatzitako *Leizezulo* hartako pertsonaia bat berreskuratu du idazleak, istorio berri honetako protagonista gisara paratzeko. Era guztietako drogak, jipoiak, gaugiroa —hau guztia Irun aldeko parajeetan girotua—, hartu ditu ardatz gisara Mendizabalek: institutuko ikasleentzat (ez da alferrik *Bizargorri* irakasle Hondarribiko Txingudi ikastolan) erabat irakurgarria izan daitekeen gertaera multzoa aletuz istorioaren harian. Liburuari sarrera ematen dioten ziten artean, bada bat, Montserrat Roigena, agendan apuntatu nuena irakurri bezain pronto: *oker ikaragarria da zoriona gorderik eramatea behebarruan eta zorigaitza ageri-ageriko azal larruan*. Ongi jasotzen du aipu honek liburuan kontatzen denaren mami.a.○

LITERATURA UNIBERTSALA

Aurreko hilabeteetan bezalaxe, aipaturiko sorkuntza lanez gain, itzulpenez ere mintzatu beharrean gara. Alberdaniak Miguel Torgaren *Piztiak* eman du argitara, Bego Montoriok portugesez itzultitako liburua. Itzultzaileak berak adierazten du, liburua hitzaurrean, hamalau ipuinok zuzen edo zeharka animaliekin daudela lotuak, baina, era berean, ez direla alegiak, ez eta Disney faktoriako piztia melengen abenturen parekoak ere. Halaxe da, izan ere. Hizkuntza single eta erraza erabiliz, kontakera tradizionaleko idazle moderno delat Torga erakusten digu narrazio hauetako bakoitzak. Atentzioa ematen du Torgaren kategoriako (Nobel sarietarako proposatua izan zen behin baino gehiagotan) idazle baten filosofia apala ezagutzeak ere: jakiteak, esate baterako, nola 50.000 aletik gorakoak izan arren bere liburuen tiradak, nahiago zituen edizio merke, xume eta xaloak, bera zen bezalakoak, hain justu. (Aholku bat, euskarazko itzulpenak *kontsumitzeko* orduan oraindik mesfidati agertzen direnentzat: irakur ezazue bilduma ixten duen Vi-

cente belearen ipuina liburudendan bertan. Hori egin ondoren, ezingo duzue etxera eraman gabe liburua bertan laga).

Bestalde, Carlo Leviren *Kristo Ebolin geratu zen* eleberriaren itzulpenak ere ikusi du argia Alberdanian. Koldo Bigurik itzuli du italiarretik eta honela mintzo da faxistek hainbat aldiz atxilotu eta kartzelaratu zuten autore honen obrari buruz itzultzaile gasteiztarra:

Bertan kontatzen duena 1935-36 bitartean Lucanian egindako egonaldia da, oroitzapen liburua da beraz, baina literatur balio ukaezinak dituena. Narrazioa gertakari gutxitan oinarritzen da, herri baztertu batzuetako pasadizo arruntetan, baina horien bidez Carlo Levik nekazarien unibertsoa aurkitzen du, berak ezagutzen duen zibilizazio hiritarrarekin zerikusirik ez duena.

Naturarekin nahiz animalien izpirituekin eta lurrarekin lotutako gizarte bat aurkitu bide zuen Carlo Levik Lucanian bertara deserriratu izan zelarik. Hegoalde geografikoaz mintzatzeaz gain, hegoaldea, muga sozial eta ekonomiko bezala ere agertzen zaigu liburu honetan, eta areago, adimenaren kategoria bezala ere bai, nik uste.

Beti izanen da geure aldeko puntu bat inguruko erdaretara itzuli gabeko obra interesgarriak euskaraz argitaratzearena. Kasu baterako, argialetxe galiziarak, eta batez ere kataluniarrak, aspaldi konturatu ziren horretaz, eta gazteleraz atera aurretik prestatzen dituzte Paul Auster edo Sandra Cisneros bezalako idazle garaikideen liburuen galiziera edo katalunierako bertsioak. Kataluniarrak ahotan hartu ditugunez, kontuan izatekoa da halaber, Jaume Fusterren *Beirazko giltzak* ipuin bildumaren itzulpena ere, Lluís Arquer detektibearen gora-beheren berri ematen diguna. Elkarrek argitaratu du *Beirazko giltzak*, Joxe Austin Arrietaren itzulpena berme dugula.

Azkenik, itzulpenen errepassoa ixteko, Pierre Choderlos de Laclos-en *Harreman arriskutsuak*, Herbert George Wells-en *Gizon ikustezina* eta Sadeko markesaren *Justine edo Bertutearen zorigaitzak* dira Ibaizabal argialetxeak kaleratu berri dituen itzulpenak Literatura Unibertsala sailean. Lehena, Jon Muñozek

itzuli duena, *Les liaisons dangereuses* titulua duen XVIII. mendeko liburua da, denok ezagutzen duguna, Stephen Frearsek duela urte batzuk zuzendu zuen filme arrakastatsuari esker. Wells ingelesa itzultzeko ardura Miren Arratibelek hartu du eta Sadeko markesaren obra aldiz, Mikel Hoyosek itzulia da. Hauekin hirurogetik gora dira jada bilduman argitaraturiko itzulpenak.

Baina literatura unibertsalaz hitz egiten ari garela, hasierako gogoetara bueltatzen naiz ni behintzat —igerriko zenuten dagoeneko nahikoa baikor dagoela satorra uda honetan irentsitako literatur dosiaren ondoren—: Iturregi, Montoia, eta abarren lanak irakurtzean, iruditzen zait euskal literatura ere, garai batean zalantzan jartzen bazen ere —zer arraio— literatura unibertsala dela, eta itzulpen-politika egoki batek hegoak eman liezazkiokeela (hego horiek tximeleta-hegoak izan arren...). Gerardo Markuletak itzuliriko Mehdi Charef-en *Arkimederen hareneko te hura* IBBY zerrendan sartu berri dela ikusteak, sentipen bera berretsi besterik ez du egiten.o

DINOSAURIO GALDUAK

Baikortasunaren aurka txertatu beharra dago, ordea. Badaezpada. Helburu prebentibo hori hartuta, buka dezadan joan zen abuztuan Pako Aristik *Dinosaurio galduak* izeneko artikuluan *Euskaldunon Egunkarian* (97-8-14) egiten zuen erreflesioaren zati bat jasoz:

Non daude, aspaldi honetan, idazle errebeldeak? Non pentsalari kritikoak? Mina sentitzen dut, denak boterearen azpian zapuzturik daudelako. (...) Paisaia hain zehazki xehatzen eta deskribatzen dakiten poeta horiek ezin al dute komunikabideen absurdoa apurtu, publizitatearen azpi-arrazismoa agerian utzi?

Hor geratzen zen dejada. Iruditzen zait, bote pareta eman duela honez gero pilotak, eta ez dela ahots bat ere ozenki altxatu atzeko koadroetan pilaturik dagoen artaldetik...

Mila seiehuni. (Gorri beti?)o

IKUSKIZUNAK

IMANOL AGIRRE

TRIKITI ARO AITZINDARIA

90eko hamarkada soinu txikiaren aro emankorra izan zela adieraziko dute euskal musikaren aztertzaileek datorren milurtean. Ez da 90eko soinu bakarra, jakina, baina ezbairik gabe, ororen gainetik protagonismorik esanguratsuen bereganatzen ari dena.

Eskema txiki bat eginez gero, honako hau izan daiteke euskal musikaren lerroa. 60ko hamarkada: Ez dok amairu; 70eko hamarkada: kantugileen aroa (gitarra espainiarra); 80ko hamarkada: euskal rock erradikala (gitarra elektrikoa); eta 90eko hamarkada: trikiti aroa (soinu txikia). Euskal kantugintza berrian 36 bat urte igaro dira eta gaur egun, orain dela ehun bat urte atzeritik heldu zen musika tresna hura ezusterik galantzen ari da eskaintzen.

Mugida honen aitzindari Kepa Junkera dugu. Soinu txikia infernutik askatu eta zeruko doinu klasikoetara eramantzen baitu. Irailaren 5ean, Getxoko Folk Jaialdian plazaratu zuen ikuskizuna bilakaera baten azken urratsa izan zen. Euskal usadioarekin estu loturik zegoen akordeoia orkestra sinfoniko batekin batzea pentsaezina baitzen orain dela hamar urte. Baina euskal sortzaileak bizkor aritzen dira eta hamarkada batean trikitixa euskal musikagintzaren brankan jarri dute.

Kepa Junkera eta Bilboko Orkestra Sinfonikoaren ikuskizuna kalitate goreneko emankizuna ezezik, ekimen sinbolikoa ere izan zen. Infernuko hauspoa behin baino gehiagotan mespretxu handiz ikusi baitu zenbaitek.

Alde batetik, Tradizio (Traizio) garbizaleek gogor kritikatu ohi zuten soinu txikiaren ibilbide berria (melodia berriak edota jazz eta rockarekin eginiko moldaketak ezin ikusi), eta bestetik, ustezko Modernitatearen jarraitzaile faltsuak funtsik gabeko ezbaian murgilduak dira. Horra hor, udaberri honetan, Garik soinu txikiaren arrakastari folklokeria zela leporatu zion.

Dinbi-danba, Kepa Junkerak aho bete hortz laga gintuen Getxoko Fadurara hurbildu ginenok. Elkartruketa, trikitia eta klasikoa, bikaina izan baitzen. Kepa Junkeraren proposamenak begietatik sartu (filme baten soinu banda ematen baitzuen), bellarriak laztandu (musikari dagokionez, bilbotarrak idatzitako partiturak oso ederrak dira) eta bihotza kilikan jarri zigun.

Folk berriaren adierazlerik nagusiena bihurtu da bilbotarra. Eta gure mugetatik at joateko prest azaldu da. Orain arte ibili dena baino urrutiago. Gure etxeko ekoizpena aski ez dela iruditu zaio eta disketxe multinazional batekin sinatzeko zorian dago.

Promozio jauzia gura du. Elkarrek ez du ase bere gogoia eta Madrilera jo du. Euskal musikari mesedea ekarriko ote dio? Junkerak bere bide emankor eta kalitateduna ikusirik nik baietz espero dut. Hala ere, denborak esango du. Carlos Nuñez galiziarrek eskuratu duen itzalaren ildoari jarraitu nahi dio Junkerak. Milaka europar euskal musikarekin dantzan jartzea ez da erronka makala.◦

UDAKO TRIKITI SALTSA

Dantzan euskal herritarrok eman dugu udaldia mende honetako amaieraren usadioari segika. Eta iazko saltsa gogoratuz gero, berriro ere trikitia arrakastaren lehian. Inork ezin izango du ukatu honen garrantzia. Euskal unibertsoak bere espazio propioak bereganatzen dituen bakoitzean, herrigintzan sakonduz joango gara.

Denok dakigunez, udaldi honetan emakumezko bi bikote (Maixa-Ixiar eta Alaitz-Maider) izan ditugu protagonista. Trikiti aroan emakumeak agertu dira goia joz. Euskal musikagint-

zan ez duzue emakumezko artista askorik topatuko eta soinu txikiari esker tradizio hau bertan behera geratu da.

Plazarik plaza ibili dira hauspo emeak, lorez lore ibiliko babilira bezala. Nolabait hippyen mezuak dakarzkidate gogora. Lore ikurrez gain, kanten hitzok orain hogeita hamar urteko lelo garbiak berreskuratu dituzte. Ametsa, Maitasuna, Kaleko Artista... esperantza gaztea plazaratzen dute eszenan. Eszenan, bestaldetik, eroso dabilta beraien taulen gaineko indarra ikusirik. Nik gustura egin dut dantzan doinu erraz hauekin eta nirekin batera jende asko bat datorrela uste dut. Osasuntsua.

Gozategi anaiak ere ibili dira herriz herri. Iazko txapeldunek emanaldi gutxiago jo dute iazko kopuru zoroa alde batera utzita. Nabaria da disko berri ezaren eragina. Euskal Herriko ikusleak merkatuaren gurpilean daude, ezbairik gabe eta kanta berriarik ez bada euskal irrati formularen (Euskadi Gaztean) nekez irentsiko dute merkatuaren tarta zatia. Dinamika hau oso arriskugarria da baina ezinbestekoa tauletatik bizi nahi duenarentzat.

Trikiti aro honetan agurra emateko tenorea heldu zaio Tapia eta Leturia Band-i. Erokeria amaitu da. Triki-rock-trash-punk-funk-rap-afro... delako horrek ez du bidaia zoro gehiagorik izango. Egia esan, zenbait esparrutan eskemak puskatu zituzten hasiera batean eta hainbat moldaketa bikain gauzatu zuten. Baina nik Tapia eta Leturiaren akustikoa nahiago dut eta nire uste apalean, folk eremuan bide aproposagoa zuten Tapiaren sormenak eta Leturiaren trebeziak.

Ez dezagun artikulu hau trikitixari buruzko monografiko bilakatu. Nahikoa baitugu ETBrekin, Tele-triki errepikatzaile astunarekin, hain zuzen. Horren zaila ote da euskarazko telebista orekaturik izatea!o

AIRBAG, HUTSALAREN BIDEAN GALDURIK

Trikitixa klasikoa eta mestizoa nahasten dira *Airbag*-en azken eszenan, barregura bilatu nahian edo. Euskal kulturaren aipu folklorikoez blai baitago uda honetan zine aretoak bete di-

tuen filmea. Euskal filmea, zenbait komunikabiderentzat; atzerritarra Espainiako Kultura ministro ezjakinarentzat eta euskal herritar batek eginiko filme espainiarra niretzat. Arrakastatsua izan da, benetan. Asegarceren ekoizpena bikaina (soinua, dekoratuak, promozioa...) izan bada ere, filmeak ez du balio handirik, gidoia hutsaren hurrengo baita. Dena dela, ez bururik ez buztanik ez duen filme hauek arreta oso berezia eskuratzen dute gaurko gazteen aldetik.

David Lynch-ek irudi eremu bitxi eta ikusgarria zabaldu zuen (*Blue Velvet*), Tarantino-k ildo honi jarraiki bortxakeria azpimarratu zuen (*Pulp Fiction*) eta Tarantino-k eta Roberto Rodriguez-ek, biek batera, (*Abierto hasta el amanecer*) iparra galdu zuten. Hiru zuzendari hauen eraginak pantailaratu ditu Juanma Bajo Ulloak baina istorioak ez du bete nire zinemina. Egia esan, egun zinera joan ohi den gazteriaren iritzia ez dator bat nire sentsazioekin. Horrexegatik haiek ez dute penarik hartu gasteiztarraren irudiak sortzeko ikutu bereziaren gale-rarekin.

Bizitza honen paradoxak gero eta handiagoak dira. Euskal gazteriaren langabetu kopurua izugarria (%50) izan arren arazo horri buruzko filmerik baino, txepelkeria hutsalak nahiago dituzte. Honela, *Bassed off* (*Tocando el viento* hegoaldeko karteldegian) filmea ezkutuan ibili da aretoetan, *Airbag*-ek glamour guztia bereganatzen zuen bitartean. Putetxerik putetxe joatea dibertigarria omen da eta mehatzari zarpail batzuen istorio hitsa aspergarria. Mundu arin eta hutsal honetan *Bassed off* filmeak ez du leku handirik. Bakan batzuk nabarmenduko dugu honelako giza proposamen artistikoa. Ken Loach-en tankeraren ildoan, filme britainiar hau gizakiaren barne kezka sakonen islada baita.◦

20 URTEZ TEATRO ITURRI

Orain dela hogeituro urteko egunkariak gainbegiratzeko aukera izan dut aurten eta hara non Luis Iturriren bizar luze eta beltza topatu. Estetikaz ezezik, iritziz ere aldatu bide du. Diktaduraren osteko estreinako sasoi horietan Iturrik «euskal ant-

zerki nazionalaren» lehen harria jartzen ari zela zioen. Akelarrre taldeak, Luis Iturriren agindupean, *Irrintzi* lan gogoangarria plazaratzen zuen herriz herri 1977 eta 1978 urte haietan. Euskal estetika eta kezka zuten oinarri. Bidea zabaldu nahian zebiltzan. Egia esan, *Irrintzi* izan genuen denbora luzez euskal antzerki nazionalaren paradigma.

Hogei urteren buruan, euskal antzerki nazionalaren ezbaierik ez da. Euskal kezka eta dagokion estetikaren debatea ia desagertu da tauletatik. Gehienetan Euskal Herrian ekoizten diren lanak berdin buru daitezke A Coruña edota Valentzian. Euskarazko bertsioek (daudenean bonbon...) baino ez dute adierazten teatroaren jatorria.

Hogei urteren buruan, Luis Iturrik ondo adierazi du zein den bere eredia: *Romulo, El Grande*. Zerikusirik al du *Irrintzi*-k *Romulo El Grande*-ekin? Deus ez. *Romulo, El Grande* antzezlanak euskal dirua (bilbotarren zergeri esker) eta aktore euskal herritarrek baino ez ditu bertoko. Berrero ere galdetu behar diot neure buruari nola demontre egiten den hainbat antzezlanen aukeraketa.○

HANDI-MANDI

Orfeoi donostiarraren urteurrenak ikuskizunik handiena taularatu zuen. Anoeta leporaino, harmailetan 20.000 ikusle baino gehiago, eta bestaldetik, eszenan 200 artista baino gehiago. Orfeoiak gain, Euskadiko Orkestra, Ainhoa Arteta, Raimon... Musikaren Guggenheim-a zirudien. Nik ikuskizuna telebistaz jarraitu nuen eta errealizatzaileak argi eta garbi utzi zuen nortzuk ziren ahots hauen zalerik amorratuena. Lehenengo lerroan jarririk Mari Carmen Garmendia eta Juan Maria Atutxa izan ziren behin eta berrero telebistak eskaintzen zuen ikusleen plano hurbila. Herrigintzan bi ikur.

Orain uler dezakegu Orfeoi donostiarraren portaera. Hone-la, hala Infanten ezkotzen zaletasunak nola Madrilgo Parlamentuari dion miresmenak ez naute harritzen. Nazionalismo demokratikoaren kultura, nonbait.○

HERIOTZA IKUSKIZUN

Mundu txepel eta arin honetan heriotza bihurtu dute ikuskizunik errentagarrien. Miguel Angel Blanco eta Lady Di (Herioari diodan begiruneak barka nazala) audientziaren izarrik disdiratsuenak izatera heldu dira telebistaren bihotz zuri eta hotzen hatzaparretan. Ohizko telesailen osagai guztiak erabilita gaurko irudien diseinatzaileek anpuluak bilatzen zituzten hartzaileengan. Eta bete-betean asmatu zuten. Euskal malkoek, Espainiakoeekin batera, uda amaieran Mundu osoarekin bat egin zuten eta negar uholde honek pentsaera kritikoak eta arrazoi sakonak suntsitu zituen.

Telebista bakarra hamaika kanaletan, horra hor etorkizuna. Ñabardurarik ez, hizkuntza ez bada. Bi heriotz ikuskizun hauek berretsi dute aspaldidanik hitzetik hortzera erabili duguna. Telebista dugu neoliberalismoaren armarik garrantzitsuenetako bat. Horregatik informazio kritikoaren behar handia dagoela aldarrikatu nahi dut. Bien bitartean ni ez naiz hemengoa.◦

SOZIOLINGUISTIKA

KIKE AMONARRIZ

GIZARTE ESKAERA I

Euskaldunon Egunkaria-n era honetan irakurri dut albistea:

EAEko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salako epaile talde batek uste du ez dagoela «gizarte eskaerarik» organo judizialetako euskararen erabilerarako.

Hori entzun eta gogora etorri zait alabaren jaiotzaren izenematea Tolosako Erregistro Zibilean euskaraz gauzatu ahal izateko ibilitako komeriak eta alferrik galdutako orduak. Nekane

San Miguel epaileari esker edukiak euskaraz jaso ahal izan genituen, baina ezinezkoa izan zen, erregistroko liburua euskaraz lortzea, INEren *Boletín estadístico de parto* delakoa euskaraz eskuratzea, edota Euskal Herriko Epaitegi Gorenera bidalitako gutunaren izapidea (tramitazioa, alegia) euskara hutsez egitea. Gogoan ditut ere, NAN delakoa berritzerakoan izandako gora-beherak: zaharrean emazteak eta biok izenak euskaratuta geneuzkan, eta berrian berriro euskaraz agertzeko ez dakit zer agiri lortzeko eskatzen ziguten, oso ongi ez dakit zergatik. Eztabaida luzeen ondoren lortu genuen, beste egun batean itzuli gabe, izenak euskaratuta etxeratzea.

Garrantzirik gabeko era horretako huskeria batzuk euskaraz lortzea eromena bihur baliteke, garbi dago oso komentzitu behar duela pertsonak, epai garrantzitsuren bat jokoan egonik, euskararen eskaera egiteko. Badituzte erabaki hori harturiko lagunak eta beraiek bakarrik dakite zenbat atzerapen, zenbat itzuli eta zenbat buruhauste pasa behar izan dituzten. Eta batzuetan, hala ere, erdaraz egin behar!

Oso oker ez banabil izango dira hamabost bat urte (artean Tolosako Euskara Zerbitzuan nintzen) orduko epailearekin harremanetan hasi ginela, euskararen erabilpena sustatzeko asmoz. Orduko hark ez zuen ia urratsik eman, baina ondoren, herritik epaile euskaldun eta euskaltzaleak pasa diren arren, egoera ez da asko hobetu. Urrats bat aurrera eman nahi izan denean Justizia administrazio barruko muga eta harresi erdaltzaleekin egin baitute topo.

Hori guztia jakinda, «gizarte eskaerarik» ez dagoela irakurtzea mingarri suertatzen da. Aitzakiak asmatzen hasita, imajinario gehixeago ere ager zitekeen, kontxo! Nolanahi ere, badirudi justizia administrazioa euskalduntzeko lehen neurriak (txikiak eta herabeak izan arren) hartu ahal izateko bidea zabaldu dela. Bada zeozer.◦

Eta hala ere, egia da, irakaskuntza alde batera utzita, gure gizarteko hainbat esparrutan (gehienetan zoritxarrez) oso gutxi nabari dela euskararen gizarte eskaera.

Udal administrazioa izan daiteke horren adierazlerik garbientako bat. Gaur egun, Euskal Herriko udal askotan (gero eta gehiagotan zorionez), ez dago inolako arazorik gutunak, agiriak, eskaerak edo nolanhiko idazkiak euskaraz jaso, eta berauen tramitazioa ere euskaraz bideratzeko. Hala ere, bakan batzuk besterik ez dira udal administrazioarekiko harreman idatzietan euskara erabiliko dizuten herritarrak.

Euskarazko kultur produktuen bideragarritasunaren arazorik handiena merkatuaren eskasia da, «gizarte eskaririk» ez egotea, alegia. Euskarazko produktuak gutxi kontsumitzen dira, batez ere idatzizkoak.

Gizarte eskaera handitzea eta aktibatzea ezinbestekoa izango da ordea, hizkuntz normalizazio prozesua aurreratu ahal izateko eta euskarazko hedabideak, liburuak, kultur produktuak, emankizunak, etab. bizirik mantendu eta sendotu ahal izateko.

Badakit hizkuntzaren «gizarte eskaera» gauzatzeak, pazientzia eta ahalegin dosi handiak eskatzen dituela eta edonor ez dagoela prest horretarako, baina audientziek agintzen duten sasoi honetan bizitza sozialaren alor guztietan euskararen aldeko «gizarte eskaera» bizkor dadin, sistema eta mekanismoak asmatu, zabaldu eta gizarteratu beharrean gaude euskaldunok.

«Gizarte eskaera» handituz, unean uneko eta sailez saileko erabilpen jarrerak aktibatu behar dira, edo bere kasuan, euskarazko kultur produktuen kontsumoa sustatu, euskararen aldeko aldarrikapen hutsak gaindituz.

Behin euskara erabiltzeko aukera zabaltzen denean, inork ez dezala esan: «*¿No ves? Tanto que pedían y ahora no viene ninguno*».o

IKASTURTE BERRIA, POZ BERRIA

Ikasturtea joan, ikasturtea etorri, gero eta altuagoa da euskarazko eredueta matrikulatzen den haur kopurua.

EAEEn 3 urteko haurren erdiak baino gehiago D eredueta matrikulatu dira, A eta X ereduak % 16ra murriztu direlarik. Iparraldean, oztopoak oztopo eta emeki bada ere, euskarazko lerroak hedatzen ari dira. Eta Nafarroan, lehen aldikotz, erdia baino gutxiago dira euskararik gabeko eredueta matrikulaturiko haurrak (G eredueta, alegia).

Euskarari eta euskarazko irakaskuntzari dagozkion datu pozgarri hauen atzean erronka eta egoera berriak planteatzen zaizkigu. Euskarazko eredueta ikasten ari diren ikasleen tipologia soziolinguistikoa aldatu egin dira eta baita berauen behar soziolinguistikoa ere.

Kontuan izan behar da, euskarazko eredueta matrikulatu diren haur horietatik asko (eta zonalde batzuetan gehiengo nabarmena) jatorriz erdaldunak direla eta ingurune sozial eta familiar erdaldunetan bizi direla.

Baldintza horietan, gero eta garrantzitsuagoa izango da ikastetxeen esparruan garatzen ari diren hizkuntzaren ikasketa dinamikak erabilera dinamikekin uztartzea, ikastetxeetan lorturiko hizkuntz gaitasuna kanpoan gal ez dadin, ikasleek ikasitakoa erabil dezaten eta gaitasun pasiboetatik (ulertu) gaitasun aktiboetarako jauzia (hitz egin) eman dezaten.◦

HARRIAK ETA MOTXILAK

Zerbait idatzi nahi nuen, komunikabide guztiak astindu dituen gai garrantzitsu honi buruz... baina ezin dut. Oinarrizko datu batzuk falta zaizkit, eta hainbat egunkaritan bilatu ditudan arren ez ditut inon aurkitu: zenbat pisatzen zuten motxiletan sartu zituzten harri dontsu haiek? Zenbat kilometro egin behar izan zituzten hurrek motxilak bizkarrean zituztela?◦

BARROKOAREN ETA KLASIKOTASUNAREN OREKA

Xabier Mendiguren Elizegiren
Bekatuaren itzala

UR APALATEGI

Heldutasunera iritsitako idazle baten emaitza da, duda izpirik gabe, 1994an Txomin Agirre saria lortu zuen eleberrri labur hau —117 orrialde baizik ez ditu—. Zertan nabari da heldutasun hori? Bada, hizkuntza erregistro, genero literario eta kontatzen zaigun istorioaren arteko artifizialtasunik gabeko lotura sakonean. Gure susmoa hau da: Mendigurenen abiapuntu eta xedea hizkuntza erregistro hautatu baten berezko potentziala azken punturaino eramatea izan da, eskaintzen dituen ahalak azken punturaino garatzea. Eta hizkuntza erregistro hori —agian euskal literatura klasikoaren

fruitu hoberenak eman dituen, ikus bestela Axular, Agirre Asteasukoa etabar— apaizen erretolika jesuitikoa da.

Historikoki, erretolika hori, kasuistikak suposatzen duen pentsamoldeari hertsiki lotua, Kontra-Erreformarekin batera sortzen da, eta gauza jakina da, baita ere, Kontra-Erreforma garaian agertu eta nagusitzen den estetika «Barrokoa» dela. Hori horrela izanik, badirudi, Mendigurenek euskal literatur tradizioaren ondareak gordetzen zuen altxor hautseztatuetatik ederrena hartu eta bizitza eta erabilpen berriak eman dizkiola, erretolika zaharrari behialako dizdira berreskura araziz.

Goazean muinera. Zertan datza gorago aipaturiko lotura? Erretolika barroko batek —bere itzuli-mitzuli, bihurtu eta joritasunarekin— ezin atzeman zezakeen genero epistolarioa baino hedabide egokiagorik (eta azken hitz hau bere esanahi bikoitzean ulertu behar da estetika barroko bati buruz ari garelarik). Izan ere, zein testu motak onar lezake, kalte konponezinik jasan gabe, hizkuntza barrokoak berarekin dakarren desbideraketa eta digresioaren mania edo eritasuna, ez bada gutunak? Lagun bati, edo lankide bati, bakartasunaren putzutik igorritako eskutitz batean luzapen eta desbideraketak oro zilegi dira; are gehiago, sinesgarritasunak beren presentzia eskatzen du. Eta eleberriaren pertsonaia nagusia den apaiza, hain zuzen ere, egoera larri horretan aurkitzen da: bere egoera bakartia dela-eta bakarrikzeta etengabe eta obsesionala erretzen zaio buruan. Etxean hiru bizilagun dira, apaiza bera, serora eta azken honen alaba. Baina apaiz horrentzat emakumeak ez dira pertsonak, haragiaren tentazioa erreprezentatzen dute soilik; beraiekin bizi ala ez, bakardadea berdintsua da. Horregatik, lankide eta apaiztegiko aspaldiko ikaskide duen lagun bati eskutitzak idazten dizkio, tentazioaren aurkako bere barne borrokan laguntza eta indar bila. Eta eskutitz horiek dira guri irakurtzera ematen zaizkigunak. Lagunaren arrapostuen berri ez dugu izango ez bada gure apez oinazetuaren eskutitzetan agertzen diren zeharkako aipamen bakanen bidez.

Ohar gaitzkeenez, eleberriaren planteamentu orokorraren trinkotasuna eta koherentzia ukaezinak dira. Eta ausartuko nintzateke, bidenabar, esatera aspaldian irakurri dudana eus-

kal libururik borobilenetakoa dela *Bekatuaren itzala*, hitz bakar bat ere eskas edo soberan ez duen horietakoa dela. Lehen hitzetatik azken orrialderaino hatsa zintzilik atxikiko dio irakurleari, apaizaren tentazioaren inguruan sortu eta etengabe eraberritzen den suspenseari esker.

Konparaketa bat egin behar bagenu zera esatera ausartuko ginatke, *Bekatuaren itzala* Bernardo Atxagaren *Obabakoak* liburuaren negatiboa dela, kontzeptu fotografiko hori onartzen badidazue. Atxagaren maisu-lanean mundua, edo hobeto esatearren istorio guztiek batera osatzen zuten mundua, barrokkoa zen, hizkuntza zuhurtasun klasiko eta hotz batera mugatzen zen bitartean (ipuin batzuetan salbu). Mendigurenen «bitxi literario» honetan (eta barroko hitzaren jatorriak zera erakasten digu, berpizkundeko italiera zaharrez harri bitxi batzuei, forma irregularrak izanagatik oso ederrak izaten jarraitzen bazuten, «barroko» zeritzaiela), aldiz, mundua eta gaia zeharo klasikoak badira —herrixka batean apaiz bat, serora eta honen alaba etxe bakar baten barruan bizi dira, elkar bizitza honek dakartzan igurzketa anbiguo guztiekin—, hizkuntzak berriz, estetika barrokoaren itxura txundigarriak janzten ditu, irakurlearen plazererako. Gaia zaharra (apaizik badea oraindik?), hizkuntza erregistroa garai bateko ondaretik berreskuratua, eta, hala ere, etorkizuneko liburua: horra hor Mendigurenen obrak lortzen duen balentria paradoxaz betea. Zergatik ote lorpen inpresio sarkor hori?

Galdera horri erantzuteko asmoz euskal irakurlea Freud Doktoarearen ohetxoan etzan beharra daukagu, une labur baterako bakarrik ez bada ere. Seguru asko —eta honako hau hipotesi soil gisa baizik ez dut aurkezten— euskal literaturaren edozein irakurlek bere baitan beti sumatu izan duen hutsune, zulo beltz edo frustazio bat betetzera datorkigulako liburu hau. Hau da, bere garaian (XVII. mendetik aurrera) euskal literaturak ekoizten jakin ez zuena —gizartearekin edo giza legearekin barne konfliktua bizi duen pertsonaia bakartiaren abentura kontatzen duen ipuina («eleberria», beraz)— garai hartako zapore eta kutsuz dasta arazten digulako. *Bekatuaren itzala* euskal literaturazalearen amets ezkutu bati gorputz ematera dator.

Euskal eleberrigintzak hasieratik pairatzen duen umezurtza-
ren konpleju psikoanalitikoari aurre egiteko botika magikoa bai-
litzan irensten baitira, izan ere, obra honen 117 orrialdeak.
Pentsa zer plazerra eta zer lasaitua hartuko genukeen ganba-
ra zahar bateko liburutegi baten apal ustelen gainean 1850. ur-
te inguruko euskara dotorez idatziriko eleberri bat —bai, bene-
tako eleberri bat, eta ez sermoi bilduma bat— azalduko balitz
bat-batean. Euskal literaturak iragan bat —buraso bat— izan
zuenaren segurantzak bat baino gehiagori arnasa erraztuko lio-
ke eta baita harrotasun kuota minimoa ere itzuli bere baitara.
Bada, Xabier Mendigurenen *Bekatuaren itzala* dateke, zalantza-
rik gabe, ganbara zahar hartan zerbait agertzekotan agertuko
litzatekeen liburua.

Otto Pette argitaratu zenean, oroituko duzue, «Biharko klasi-
koa» lema publizitarioa zeraman paper gorri batez inguratu
zuten ale bakoitza. Mendigurenen eleberri honi «Atzoko klasi-
koa. Egin berria!!!» jartzea ez litzateke ideia txarra izango.

JAKIN

EDORTA ARANA
EUSKAL HERRIA TELEBERRI, TELENABARRA
ETA TELENORTE ALBISTEGIETAN

CESAR MARTINEZ
MOBILIZAZIORAKO PRESTASUNA
EUSKAL HERRIAN

IMANOL MURUA URIA
FEDERIKO KRUTWIGI ELKARRIZKETA

ALBERTO BARANDIARAN
HARKAITZ CANO
IMANOL AGIRRE
KIKE AMONARRIZ
EGUNEN GURPILEAN

UR APALATEGI
BARROKOAREN ETA KLASIKOTASUNAREN OREKA

101

UZTAILA-ABUZTUA 1997